

Goienkaria

2006ko martxoaren 17a > Egubakoitza > VI. urtea > 236. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

G2a

Debagoiendarrak
Euskal Kantu
Txapelketan > 43


BERGARA
Ibarreko lehen hileta musulmana
egin dute Ipinza futbol zelaian > 15

ARRASATE
Akziodun txikien akzioak erosita,
arazoa konpondu da Gamein > 18

KIROLA
Oñatiko duatloian 250 lasterkarik
jardungo dute zapatu > 41

"Bakea gertu
dagoela
zalantzhan
jartzen dut;
atzeraka egin
dugu"

Aritz
Arrieta
PSE-EE > 09



DEBAGOIENA > EGURALDIA

Agur negu hotz eta lehorri

Udaberria epela
eta bustia izango
da, adituek iragarri
dutenez > 05

BERGARA > KONTSUMOA

Eroskik superra zabalduko du Orni SA lantegia dagoen tokian

Orni SA empresa dagoen tokian, Leizeagan, supermerkatua irekiko du Eroskik. Bigarrena izango da, Bideberriko ere zabalik edukiko du eta. 1.500 metro koadro izango ditu eta jatekoa bakarrik izango du. Eroskik zabalduko duen superretik gertu, Super Amarok zabaldu zuen beste bat Gabonen aurretik. > 25

Debagoieneko txirrindularitz 'Astelehene Goienkaria'-n

Astelehene Goienkaria-k Debagoieneko txirrindularitzaren gaineko informazio osatua ekarriko du oraingo astelehenean: 8 orri behe mailetako zikisten gainean.

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrikzeta > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

LEHEN SEKTOREA > DEBAGOIENEKO ERLEZAINAK

Erlezaintza, urte osoko ardura eskatzen duen zaletasuna

EZTIGILEAK Debagoieneko erlezain batzuek Eusko Labeldun eztia egiten dute, eta baita euren eztia propioa ere

ARRAZA Erle Beltzak, Europako Mendebaldeko erleak, Arantzazun du ugaltzeko leku aproposenetariko bat

ESKAERA Ibarrean, gero eta gehiagok eskatzen dute bertako eztia, eta beste erle produktuen gaineko jakin-mina dago > 02-03



HEGO AMERIKATIK Hilabete emango dute gure artean Hego Amerikatik etorritako dozena bat lagunek.

MIRARI ALTUBE

Kanpotik etorri dira 12 lagun, kooperatiben esperientzia ezagutzera

Atzerritik etorritako 12 lagunek hartuko dute parte aurten Mundukideren Truke Programan. Esperientzia kooperatibo eta komunitarioak elkartrukatzea du helburu programak. Hilabete emango dute gurean eta hemengo kooperatiben nondik norako

ak ezagutu ahal izango dituzte; klase teoriako jasoko dituzte eta enpresetara bisitak egingo dituzte. Haien esperientzia ere ezagutu ahal izango dute hemengoeik. Kolonbiatik, Kubatik, Venezuelatik, Argentinatik, Perutik eta Ekuadorretik etorri dira.

SUPER AMARA gonbidatzen zaituzte ERRIOXAKO UPATEGI ONENAK EZAGUTZERA

Zozketan parte hartu!


Bidaia,
Bazkaria
eta Bisita barne

Informazioa
kutxan eskatu



BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkaleku

Škoda Octavia Combi Berria. 20.040 €-tik AURRERA



*Plan Prever bane.

Udalaitz

Gipuzkoako etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



NEKAZARI JARDUERAK > DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO AUKERA DUTE ERLEZAINEK

Erlezaintza, gureko lagun askoren gustuko jarduera

URTE OSOKOA Eztia jasotzeko sasoia udazken aldea den arren, erleak urte osoan zaindu behar dira: orain, adibidez, jatekoa badutela zaindu behar da

IBARREAN Oñatin, Bergaran, Antzuolan... gero eta erlezain gehiago dago, baina gehienek zaletasun moduan dute, bizibide baino gehiago

AUKERAK Kalitatearen Eusko Label agiriarekin ontziratzen dute eztia ibarreko hainbatek, eta euren eztiz propioa ere saltzen edo banatzen dute

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Nekazari jardueren artean erlezaintza ez da ezagunetariko bat; baina erleez langile isil eta saiatuak direla esaten den moduan, gauza bera esan daiteke erlezainez euretaz. Debagoienean ere badira batzuk, eta eztia jasotzeko sasoi jakin batzuk egon arren, gureko erlezainek urte osoan dute lana: eztia jasotzeko sasoian ez gaude oraindik –San Migel ingurua da horretarako sasoi aproposa–, baina urte osoko prozesua da: orain, erlekumeak hazten ari dira, eta udaberri inguruari bete-betean lan egiteko moduan egongo dira.

Debagoinena oso leku esanguratsua da erlezaintzan; izan ere, Euskal Herrian bertakotu den erlea, Erle Beltza delakoa, ugaltze bi leku ezarri dituzte, eta Arantzazu da horietako bat.

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak orain gutxi kaleratu ditu, Erlezaintzarako Programaren barnean, erlezainek dirulaguntzak eskatzeko oinarriak, eta ibarreko erlezainek ere horiek

eskatzeko aukera dute martxo bukaerara arte. Horregatik ere bada albiste sektore hori.

EKOIZLEEK, HAINBAT AUKERA

Debagoinean, urteen buruan, gero eta jende gehiago animatu da erlezain lan egitera, baina bizibide moduan hartzea zaila denez, gehienek zaletasun moduan daukate. Jose Mari Uriarte erlezain oñatiarrak azaltzen digunez, "Oñatin, Bergaran, Antzuolan... talde txo bat gabiltza, bai. Gazte batzuk ere animatu dira, baina asti laburragoa dute horiek". Erlezainoi laguntzeko zenbait elkarre daude: aipatutako Gipuzkoako Erlezainen Elkartea, Euskal Erlezainak, eta beste batzuk.

Horrez gain, kalitatearen Eusko Labela ekoizteko, ontziratzeko eta banatzeko, Gipuzkoako Erlezainen Elkartea Giez-berri enpresa sortu zuen, Getarian, eta Debagoineko hainbat erlezainen eztia hark ontziratzen du; Eusko Labelarekin, hortaz. Jose Mari Uriartek azaltzen digun moduan, eztia hori Gipuzkoako

ko mota berbereko eztiekin egiten denez, berezia da: "Nire eztia eta Gipuzkoako beste ekoizle askorena erabiltzen dute eztia hori egiteko, eta zapore berezia du". Ezti mota desberdin asko dago, eta Uriartek egiten duena, adibidez, Mil Lore eztia da (gaztelaniaz, *Mil Flores* deitzen dena). Gero, erlezainak berak geratzen zaion eztia erabil dezake. Uriartek, esate baterako, berak ekoitzitako eztipoto batzuk edukitzentzu ditu, eta oso estimatua da, gainera: "Anaiak ere egiten zuen, eta eskuetatik kentzen zioten, Araozko eztia ospe handia duelako".

Gureko beste eztipoto batzuek, berriz, azoketara, merkatutara eta herriko dendetara eramatzen dute produkzioa.

JAKIN-MINA ASETZEKO HITZALDIA

Erlearen produktuekiko estimua –eztia produktu horien gorenean dagoela– hazten joan da debagoiendarren artean, eta gero eta eskaera handiagoa dago.

Hala, interesa haziz joan da Debagoinean, erlezain kopurua



ERLAUNTZAK Argazkiko moduko kutxa horietan bizi

Debagoineko erlezainek Foru Aldundiak ematen dituen dirulaguntzak eska ditzakete martxo bukaerara bitartean

Euskal erlea, Erle Beltza delakoa, gordetzeko leku aproposa da Arantzazu auzoa

PRESTA ZAITEZ UDAKO OPORRETARAKO!

■ Martxoaren 31 baino lehenago bidaia erreserbatuz gero...

KARIBEA - IA '2x1'

Bavaro hondartz, Punta Cana, Puerto Plata, Cancun, Maia Erribera, Varadero, Esmeralda hondartz...

Mediterraneoa, Adriatikoa eta Greziako Uharteak, Karibia...



ITSAS BIDAIAK -%50rainoko deskontua

KOSTA -%20rainoko deskontua KANARIAR UHARTEAK ETA TUNISIA -%10

■ Eta aprobetxa itzazu Aste Santurako ditugun azken eskaintzak!

Arrasate Bidaiak

CIE 2214

BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA

Kontzeñio kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 Faxa: 943 79 74 45 E-posta: d4051@marsans.es



Zure konfiantza saritu nahi dugu!

Postal bat bidaltzen badiguzu, urte amaieran egingo dugun zozketan parte hartzea aukera izango duzu: bainuetxe baten aste bukaera zoragarria!

BIDAIA HANDETAN ESPEZIALISTAK GARA
Costa Rica, Argentina, Australia, Zelandia Berria...



i dira erleak. Hori euren biziak da. Jose Mari Uriarte erlezainak kutxa barruko abaraska (panal) bat erakusten digu.

ERLEAREN PRODUKTUAK

> EZTIA

Mota askotako dago: Mila Lorekoa, ezkai-eztia, txilar-eztia... Erleek nektarra nondik hartu duten arabera.

Osasunerako oso ona da: mikrobioei aurre egiteko, arnas aparatuko gaitzendako eta infekcioendako...

> ERREGINA-JELA

Erleek jariatzan duten likido zuria, airearekin gogortu egiten dena. Zaporez garratza da. Astenia, anorexia, azaleko gaixotasun batzuk eta arterioesclerosis tratatzeko erabil daiteke.

> PROPOLIOAK

Zuhaitzetako erretxinetik sortzen dute erleek. Tradizionalki, zauriak eta azaleko arazoak zaintzeko erabili izan da, baina, azken urteotan, hartu ere egiten da, tentsiorako, kolesterolerako edo urdaileko gaixotasunendako.

Bolatxo forman saltzen da polena.



Jose Mari Uriarte > Erlezaina

"Erlauntzak egunero zaindu beharrik ez dago, baina ardura behar da, bai"

L.K. > OÑATI

Araozko da Jose Mari Uriarte, eta han ditu 30 bat erlaunta. Horretatik bizi ez, baina gustuko lana du eta maizibiltzen da lan horretan.



Aldundiaren dirulguntzak eskatzen dituzu?

Txikioi, 60 erlaunta baino gutxiago ditugunoi, ez digute ematen. Hori bai, materialarekin laguntzak jasotzen ditugu.

Zein eztiz gustatzen zaizu zuri gehien?

Mila Lore (*Mil Flores* delakoa) eztia da nire takao onena. Zenbat eta lore gehiagorekin eginda egon, orduan eta gozoagoa. Araozko eztia ere ospe handia du inguruan.

Erlezaintzak irabazirik uzten du?

Nik zaletasun gisa daukat. Honeitatik bizi izateko, erlaunta gehiago behar dira, eta lan handiagoa hartu.

Noiztik zara erlezain?

Anaiarekin hasi nintzen ikasten; neu, erlezain, orain 25 bat urtetik. 30 bat erlaunta ditut, sasoi honetan 15.000-20.000 erlerekin bakoitzean.

Lan handia ematen dute?

Ez naiz egunero etortzen, baina ardura hartu behar da, bai. Adibidez, orain umeak hazten ari dira, eta, eguraldi txarra egiten badu, jateko falta dezakete eta hori eman behar zaie.

Debagoina
martxoak 23
BERGARA

Miguel Altuna GLBHI
(Elementala)

Ordutegia:
18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:
943 747 314
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Antolatzalea:



sunaren onerako hitzaldia egin-
go du. Produktuen ezaugarriez,
onurez, bitxikeriez... berba egin-
go du aditu horrek.

EUSKAL ERLEA, ARANTZAZUN

Bestetik, martxo bukaerara arte,
ibarreko erlezaineak Foru Aldun-
diko Landa Garapen Sailak ema-
ten dituen dirulaguntzak eska-
tzeko aukera dute. Hori egin deza-
kete, adibidez, ibarreko Landa

Garapen Elkarteararen egoitzan,
Bergaran. Hainbat motatako
laguntzak eskaintzen ditu, eta
gutxienez 60 erlaunta dutenek
eska ditzakete, eta baita erlaun-
ta gehiago ipini gura dutenek ere.

Erakundeen beste helburu bat
da Europako mendebaldeko erle
arraza, Erle Beltza delakoa, bul-
tzatzea. Euskal Herria arraza hori
babesteko leku aproposa dela dio-
te zientzialariekin, eta hemengo

erlezainendako erle aproposa da,
gogorra eta langile erregularra
delako. Arraza hori Arantzazun
aurkitu zuten ikertzaileek, eta
orain, gune hori da Erle Beltza
kontserbatzeko aukeratutako
leku, Goizuetarekin batera. Hor-
ko kontserbazio-guneak Parke
Naturaletan kokatu gura dira,
erlea bera kontserbatzeko eta
erlea hor egotea parkearendako
ona delako.

autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako mintegiak

Biltegien kudeaketa informatizatua eta eraginkorra

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan

Zein da egungo biltegien kudeaketaren egoera? Zeintzuk dira hobetzeko aukerak? Zer lor dezakegu merkatuak eskaintzen dizkigun tresnak egoki erabiliz gero? Nola lortu etengabeko inventarioa izatea irteeren eta sarreren erregistro zorrotzarekin?

Sustatzaleak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

euskadi

informazio gizartean en la sociedad de la información

e·gipuzkoa SPRI

HEZKUNTZA > ARANTZAZUKO ARTZAIN ESKOLA

Gomiztegi artzain eskola eraberritu egingo dute

Sektorearen beharrari erantzuteko sortu zuten eskola duela bederatzi urte, eta gero eta ikasle gehiago apuntatzen dira; aurten, hogei

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Arantzazuko Gomiztegi baserri-eskola eraberritu egingo dute. Artzain ikasketak egiteko dagoen eskaera gero eta handiagoa ei da urtero, eta eskaera horri erantzuteko eta mundu mailako erreferentzia-puntu izateko egingo dituzte aldaketak Gomiztegin.

Eraikin berria egingo dute, 1.000 metro koadro ingurukoa. Hori egiteko, egungo eskola dagoen eraikina eta ondoko etxetxoan bota egingo dituzte, baita oilategia ere. Gomiztegi baseria bera dagoenetan utziko dute, han ez dute inolako aldaketarik egingo. Eraikin berriak gaztak egiteko

eta ardiak izateko tokia izango du eta puntako teknologia zerbitzuez hornituta egongo da. Formaziorako eta bileretarako gelak ere izango ditu. Lanak udaberrian hasiko dituzte, martxoaren bukaeran edo apirilaren hasieran, eta urte bukaerarako bukatu gura dituzte. 750.000 euroko aurrekontua dute.

ARTZAIN DIPLOMATUAK

Gomiztegiko artzain eskola sektorearen beharrari erantzuteko zabaldu zuten, bederatzi ikaslekin. Aurtengoa bederatzigarraren ikasturtea izan da eta 20 ikaslek jaso dute artzain diplote ikasleak.

ma eta makila. %73 Euskal Herrikoak dira, baina badaude Txilekoak ere, adibidez. Denek esan dute asko ikasi dutela, eta eskerrak eman dizkiete bai Nikolas Segurola irakasleari eta praktikak egiten lagundu dieten Euskal Herriko hainbat artzain. "Nik Etxarrin eta Aian egin ditut praktikak eta etxekotzat hartu naute bi baserrietan", diosku Letizia Molina Iruñeko gazteak. Etorkizunari buruz, artzaintza etorkizun handiko lanbidea dela diote, baina bokazioa ere behar dela aitortzen dute. "Ordu asko eskatzen ditu, baina gizarteari produktuak eskaintzen dizkiozu. Ni neu bakarrik ez, baina beste batekin hasiko nintzateke artzain lanean", kontatu digu Arantzazun Haritz Sudupe Soraluzeko gazte ikasleak.



IKASLEAK Iruñeko Letizia eta Soraluzeko Haritz, Artzain Eskolakoak.

O.E.

ILUSIO Kreditua

EUSKADIKO KUTXA

*asegurua auto
Gazetas AUTOA bidaia
Kabrioleta oporra
Furgoneta gutiziak
Moto*

Nahi baduzu, ahal duzu

Zu bezalako jendeak bere **Ilusio Saila** du Euskadiko Kutxan, eta bertan oso mailegu berezia.

KREDITU ILUSIOA ESKAITZA

Epea	Interes nominala
1 urte:	%2,98
3 urte:	%4,19
5 urte:	%4,44
7 urte:	%4,55

%4,96 U.T.B.

Irekiera-komisioa: %1
Komisioa aldez aurretik amortizatzeagatik: %0
Komisioa aldez aurretik kitzeagatik: %0
Gutxieneko zenbatekoa: 9.000€

Eskaintza hori lortzeko ezinbestekoa da Nomina helbideratzea eta Euskadiko Kutxaren bizitza-aseguru bat kontratatuta edukitzea, eta bere Aurrezpen, Aurreikuspen edo Pentsio Planetako beste produktuaren bat.

06-03-13tik aurrera egindako eragiketetarako eskaintza, 10 milioi euroa iritsi arte. Berriro finantzatzeko eragiketak alde batera utzita.

EGURALDIA > ASTELEHENEAN SARTUKO GARA UDABERRIAN

Negua hotza eta lehorra izan da eta udaberria epela eta bustia izango da

Euririk ez da faltako udaberrian, baina ez du hotzik egingo; udaberri polita izango dugu

Joan den asteburuan egin zituen euriteen ondorioz, Urkuluko urtegia ehuneko ehunean dago

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Aurtengo negua normalagoa baino hotzagoa eta lehorragoa izan dela diote eguraldi aditurek, egin dituen izozteengatik, batez ere. Tenporei kasu egiten badiagu, berritz, euririk ez da faltako udaberrian. "Aste Santu bitarteko egunak nahiko lehorra izango dira, epel egingo du", esan digu Andoni Aizpuru eguraldi adituak. "Aste Santu ostean euri asko egingo du, baina hotzik ez; ipar-mendebaldeko haizea nagu-



EURIA Normalean baino gutxiagotan egin du euria aurtengo neguan, baina gogotik.

situko da. Euria maiatza bitartean egingo du batez ere, eta ordutik ekaina erdi aldera arte, euri gutxiago botako du", jarraitu du.

Pello Zabalari ere galdu dio gu temporen inguruan, eta udaberri naturala, aldakorra, egingo duela esan digu: "Kontra-temporek eguraldi polita utzi dute eta udaberria ere horrelakoa izango da, polita. Hala ere, ekaitzak ere joko du, eta euria egingo du ondorioz. Azken baten, udaberri aldakorra izango dugu".

URKULU, GAINEZKA

Negua, orokorrean, lehorra izan bada ere, euria egin duenean gogotik egin du, joan den astean bezala. Egubakoitzean eta zapatuau euri asko egin zuen, ur litro asko erori ziren eta erreketan eta urtegietan nabarmen igo da uraren maila. Urkuluko urtegia, esaterako, ehuneko ehunean dago, goraino beteta. Berdin daude Gipuzkoako gainerako bost urtegiak ere. Ur Partzuergoaren datuen arabera, Urkuluk 65.800 laguni ematen die ura: Soraluzeo eta Debagoieneko biztanle gehienei.

> GAZTETXEAK

Gaztetxeen Martxak Oñati, Arrasate eta Bergara bisitatuko ditu datorren apirilaren 27an

Gaztetxeen Martxa aurkeztu zuten astelehenean Oñatiko plazan eskualdeko gaztetxeetako ordezkariek. Euskal Herriko hainbat herriatik pasako da, tartean Oñatitik, Arrasatetik eta Bergaratik. Gaztetxeen Martxa Maulen hasiko da apirilaren 21ean eta Iruñean bukatuko da maiatzaren 7an, eta apirilaren 27an helduko da Debagoienea: 18:00ak inguruan helduko da Oñatira. Autogestioaren aldeko aldarrikapena egingo dute martxarekin. *Pausoz pauso autogestiori ateak zabaltzen* da martxaren leloa.

> MANIFESTAZIOA

Autobusak jarri dituzte bihar, zapatua, Lokarrik Bilbon egingo duen manifestazioa joateko

Autobusak jarri dituzte bihar, zapatua, arratsaldean Lokarrik Bilbon egingo duen manifestazioarako. Hamahiru urte egin dituen Elkarri agur esateko eta Lokarri ongietorria emateko manifestazioa izango da, eta 17:30ean abiatuko da Bilboko Kasillatik. Autobusak 16:00etan aterako dira Antzuolatik eta 16:15ean Bergarako lagunak batuko dituzte. Joan gura duenak telefono zenbaki honetara deitu behar du: 943 00 06 00. Lokarri joan den domekan aurkeztu zuten. Paul Rios da koordinatzailea.

> EUSKARA

Eusebio Osa bergararraren biografia argitaratu dute 'Bidegileak' bildumaren sorta berrian

Bergarako Eusebio Osaren biografia jaso dute *Bidegileak* bildumaren sorta berrian. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak argitaratzen ditu biografia horiek, eta euskalgintzan aitzindariak izan direnenak izaten dira. Oraingoan, musikagile, idazle, irakasle eta kazetarien biografiak kaleratu dituzte; tartean, Eusebio Osarena. Eusebio Osa abade ohia ikastolen eta euskal hezkuntzaren bultzatzailea izan zen, EHUKO irakaslea, pentsalaria, idazlea eta euskara irakaslea Gasteiz eta inguruetaiko herriean.



Deustuko
Unibertsitatea
Donostia



1956 - 2006



Deustuko Unibertsitatea Arrasaten

Etor zaitez gu ezagutzera

|ESTE-ESIDE. Titulazio Bikoitza:
Empresen Administrazioko eta Zuzendaritzako Lizentziatura eta Kudeaketako Informatikako
Ingeniaritza Teknikoa (6 urte)

|ESTE. Empresen Administrazioko eta Zuzendaritzako Lizentziatura (5 urte) +
Espezialitateko Masterra

|Giza Zientzietako Lizentziatura: Komunikazioa. HUCO (4 urte)

|Giza Zientzietako Lizentziatura: Enpresa. HUEM (4 urte)

|Turismoko Diplomatura (3 urte)

|Gizarte Laneko Diplomatura (3 urte)

Informazio saioa

Eguna: MARTXOAK 22, asteazkena
Tokia: Monterron Kultura Etxea
Zarugalde, 1
ARRASATE / MONDRAGÓN
Ordua: 19:00etatik 20:00etara.

943 326 308 - 943 326 600
e-mail: infoacad@ud-ss.deusto.es
www.infodonostia.deusto.es
Mesedez baieztau

ERREPIDEAK > IBARREKO ERREPIDE SAREKO LANAK

Eguraldia lagun, Epele-Kaskonategi bidea Aste Santurako gertu

Bide zati hori asfaltatzea eta margotzea falta da, eta horretarako eguraldi ona beharrezkoa da

Beasain-Durango autobidea 2010erako Bergarara iristea da asmoa

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Eguraldia oztopo izan da bide lanetarako, azken hilabetean batez ere. Horren ondorioz, bestekoa beste Epeletik Kaskonategi rainoko errepide zatian egiten diharduten obrak atzeratu egin dira. Izan ere, urtarrilaren amaierarako eginak behar zuten.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sailak esan digunez, "azken lanak egiten dihardute: asfaltatu eta margotu. Horretarako ezinbesteko da euri askorik ez egitea". Beraz, aurreratu dute, zaparrada handirik egin ezean, Aste Santurako lanak amaituta egongo direla; bestela, apirilaren amaierarako.

BEASAIN-DURANGO ZATI BERRIA

Bestalde, urrian hasiko dituzte Beasain-Durango autobiaren hurrengo zatiko lanak, Zumarraga eta Urretxu artekoak, hain zuen ere. Ondo bidean, autobidea 2010ean iritsiko da Bergarra. Izan ere, Urretxu eta Bergara arteko lanak 2008an hasi nahi dituzte eta bi urtean amaitu.

Beasain-Durango autobidea Gipuzkoako zatiak ia 30 kilometro izango ditu. Beasaindik Zumarragara bitartekoak dira horietako ia 20 kilometro, eta zati hori zabalik dago.

Beraz, Zumarragatik Bergarara bitarteko zatia eraikitza falta da autobide horren Gipuzkoako lanak amaitzeko. Horiek dira, hain zuen ere, urrian hasiko dituzten obrak.

ZUMARRAGA-URRETXU URRIAN

Hiru kilometro luze izango da Zumarragatik Urretxurako tartea. Urrian hasi eta bi urteko epea izango dute lan horiek amaitzeko. Aurrekontua 50 milioi euro izango da.

Zumarraga eta Urretxu artean autobidea egiteko lanetan has-



EGURALDIA Zaparrada handirik ez egitea da lanak garaiz amaitzeko baldintza. I.A.

teaz bat ekingo diote Urretxu eta Bergara arteko zatiaren eraikuntza proiektua lantzeari.

Urretxu-Bergara zatia 2008an hasiko dira egiten eta asmoa da 2010erako amaitzea. Tarte horrek 6,7 kilometro izango ditu eta lanak egiteko aurrekontua 100 milioi euro da.

Zumarragatik Bergarara bitarteko zatia bi fasetan egingo dute, beraz. Tarte hori da, hain zuen ere, Beasain-Durango autobidearen Gipuzkoako zatian konplexuena; era berean, baita garestiena ere, guztira, 150 milioi euroko kostua izango bai.

Zati horrek bi tunel eta sei zubi izango diru, eta kilometro horiez gain, beste bi gehiago eraiki beharko dira Antzuola, Legazpi eta Zumarragarekin lotzeko.

BIZKAIKO ZATIA

Behin lanak amaitu eta Bergara iritsita, gidarieki Eibar-Gasteiz autobidea edo Kanpanzarko bidea hartu ahal izango dituzte Bizkaira joateko, oraingoz. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio mugatik, Elorriotik, igaroz Durangora (A-8 autobidearekin elkartzeko) arteko tartea eraikitzea.



**GRUPO
TTT**

Elgeta bidea z/g.
130 posta-kutxa
20570 BERGARA
Tel.: 94376 91 37
Faxa: 943 76 91 38

e-posta:
ttt@grupottt.com
web orria:
www.grupottt.com

ESKAINTZA

Giauto

REF.	DESCRIBAPENA	PREZIOA/€
958337	175-65-14E3A (T)	71,46
860809	165-65-14E3A (T)	62,88
881923	175-70-13E3B (T)	60,03
502818	165-70-13E3B (T)	58,12
72716	185-65-15E3A (T)	80,98
766215	175-70-14E3A (T)	72,41
136227	195-65-15E3A (H)	96,22
818521	195-60-15E3A (H)	100,04
868762	195-65-15E3A (V)	102,42
137266	205-50-16 (V) PRIMACY	151,95
688397	185-65-15E3A (H)	102,42
458398	205-55-16E3A (V)	134,33
137268	205-55-16E3A (V) PRIMACY	134,33
136276	215-50-17 (W) PRIMACY	221,02

ESKULANA eta BEZ-a Prezioan barne.

902 345 125
clientes@giauto.es

MICHELIN

ELGOIBAR · BERGARA · ARRASATE · EIBAR · ANOETA · OLABERRIA



www.giauto.es





Mundukide Fundazioaren Truke Programa babestuko du Eroskik

Nerea Atxutegik, Eroski kooperatibako presidenteak, eta Jose Angel Mikeok, Mundukide Fundazioako koordinatzaileak, elkarlan hitzarmena sinatu dute. Ondorioz, Eroskik babestuko du Truke Programa 2006. Besteak beste, Truke Programan parte hartuko duten atzerritarren egonaldia, material didaktikoa eta bidaia diruz lagunduko ditu Eroskik. Egitasmoan parte hartuko dute hainbat herrialdetatik etorritako 12 kidek. Helburua da haien herrialdeetan esperientzia kooperatiboak abian jartzeko lagunza eskaintza.

GIDA > ARRASATEKO 167 KOMERTZIO AGERTUKO DIRA GIDAN

EHNA erabiltzeko komertzioen gida kaleratuko dute Arrasaten

Bergaran eta Arrasaten hileko azken zapatuetan tramitazten da EHNA, Oñatin lehen zapatuetan eta Aretxabaletan eta Eskoriatzan egunero

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA EHNA agiria Arrasateko zein komertzioan erabil daiteken jakinarazteko gida kaleratuko dute. Gidaren aurkezpena martxoaren 25ean egingo dute, 12:00etan, Monterron jauregian. Han bertan banatu ostean, herriko zenbait puntutan zabalduko dute jendeak eskura izan dezan.

Gida horretan agertuko dira txartel bidezko ordainketak EHNA agiria erakutsiz egitea ahalbidetzen duten komertzioak; 167 guztira.

TRAMITAZIOA
EHNAREN bultzatzaleak oso pozik daude milaka herritar ibilten direlako agiria patrikan

dutela. Baino hemendik aurrera ere ahalik eta herritar gehien bultzatu nahi dituzte agiria lortzeko eskaria egitera.

Bergaran eta Arrasaten hilabeteko azken zapatuan tramitazten da EHNA eta herri bakoitzean 1.200 tramitazio egin dituzte orain arte. Oñatin hileko lehen zapatuetan izaten da hitzordua eta egindako tramitazioak 300 dira gutxi gorabehera. Aretxabaletan 400 izan dira tramitazioak eta bai Aretxabaletan eta baita Eskoriatzan ere egunero dago agiriak tramitatzeko aukera.



nolako ikasketak, halako etorkizuna

Joseba Etxebarria,
Industri Diseinu arloko koordinatzailea.

"Ikaslearengandik gertu-gertu nago beti, bere beharrak ulertu eta erantzuteko"



www.mondragon.edu

kontsumoa



Kontsumitzaileen kexa asko telekomunikazioen gaineakoak dira. I.A.

Internet konexioak nazioarteko dei moduan kobratzea saihestu nahi da

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak esku die telefonia enpresei Internet konexioen nazioarteko deietako desbideratzek bertan behera lagatzeko, aurrez bezeroei konexioa nazioarteko dei bezala kobratuko zaiela adierazi zaienean salbu.

Zenbait programa deskargatu eta disko gogorrean instalatu ostean, deia egiten hasten da nazioarteko telefono zenbakien bidez. Beste kasu batuetan, programak deskargatu gabe instalatzen dira *dialer* horiek. Askotan, programa horiek sistemaren konfigurazioa aldatzen dute, eta era biltzailea Internetera konektatzen den bakoitzean nazioarteko dei moduan egiten da, telefono faktura igota.

Badira prebentzio mekanismoak arazo hori saihesteko. Interneten, esaterako, badira anti-*dialer* programak.



Alkoholaren eta tabakoaren prezioek behera egin dute

Otsailean, Kontsumo Prezioen Indizeak %0,1 egin zuen behera EAEn. Alkohola eta tabakoa merkatu ziren gehien (%2,9); jantziak, oinetakoak, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak, %0,9. Gehien garestitu ziren alorek garraioa eta ostalaritza izan ziren, %0,7 eta %0,6, hurrenez hurren.



Komisioen gaineko informazio eskasa banketxeetan

Ikerketa baten arabera, Espainiako kreditu-erakundeen %83k ez diete bezeroei komisioen gaineko informazio egokirik ematen. Komisioetatik, 176,42 euro pilatzen dira bezero bakoitzeko urtean. Komisioen gaineko kexak Espainiako Bankuan jasotakoene %15 dira.

Oso herritar gutxik ordainduko du uraren zerga berria

Uraren lege egitasmoa abian da. Legea onartuz gero, pertsonako eta eguneko 130 litroko muga gainditzen dutenek 2,8 euro gehiago ordaindu beharko dute urteko faktura (mugaz gaindik metro kubikoko sei zentimetro). Herritar gehienek ez dute muga gainditzen; beraiz, ez dute zerga ordainduko.

Espainiako ostattu ia beteta daude Aste Santurako

Aste Santurako hilabete falta da, eta Espainiako denbora partekatuko ostattuak (bazkidetzaz funtzionatzen duen formula bat) ia beteta daude. Erreserbak %88ra iritsi dira; Kanariar Uharrean, %96ra. Denbora partekatuko ostattuetan, egoaldiak bederatzi egunekoak izaten dira, batez beste.

gure artekoak

HARRILUR GEOTEKNIA > Arrasateko Saiolan eraikinean dute bulegoa. Harrilur geoteknia enpresa osatzen duten lau neskek. Araban jarduten dute batez ere, eta etorkizunerako helburua enpresa handitzea da.

Virginia Ormaetxea

"Lurraren azterketa egiten dugu, gero etxeak eraikitzeko"

IRATI AGIRREAZALDI > ARRASATE
Goiz gehienetan bulegoan aurkitu-
koditugu lanean Virginia, Leire, Mar-
eta Naia. Astean birritan, berriz, kan-
po-lana egiten dute. Azterketak
egiteko laginak hartu eta gero,
bulegoan bertan gertatzen dituzte
txostenak.

Noiz ipini zenuten enpresa
abian?

Ni 2000. urtean hasi nintzen
eta gero besteak sartu dira enpre-
san. Garai hartan eraikuntzan
legea aldatu zen, eta derrigorrez-
koa zen azterketa geoteknikoa
egitea; horregatik egoki jo genuen
enpresarekin hastea.

Zer da geoteknia?

Lurraren azterketa egitea,
ondoren etxeak eraikitzeo. Lur-
sailera joan eta zuloak egiten
ditugu lurra edo harriak hartzeko.
Gero, entseguak egiten dira,
eta datuak interpretatu ostean,
arkitektoari esaten diogu nola
hasi eraikitzen. Lan batzuk bule-
goan egiten ditugu, eta beste
batzuk lursailean eta baita labo-
rategi homologatu batean ere.

Zein dira zuen bezeroak?

Eraikitzaleak, arkitektoak
eta promotoreak, batik bat. Jen-
de arruntak ez daki azterketa
beharrezko dela.



Leire, Virginia, Mar eta Naia, Arrasateko mapa geoteknikoarekin. I.A.

FITXA TEKNIKOAK**> LANGILEAK**

Virginia Ormaetxea, Naia Pagoaga
eta Mar Artze geologoek eta
Enpresa ikasketak dituen Leire
Isasmendik dihardute Harrilurren.

> WEBGUNEA

Enpresaren gaineko informazioa
honako helbidean aurki daiteke:
www.harrilur.com.

> KANPOAN ETA BARRUAN

Lursailetan eta bulegoan egiten
dute lan; biak bateratza dute
gustukoen.

Zein obratan ibiltzen zarete?

Etxebizitza blokeetan, famili-
lia bakarreko zein bi familiaren-
dako txaletetan eta baita industria
pabilioietan ere. Araban egi-
ten dugu lan gehienbat. Hasi
ginenean Araban ez zegoen geo-
tekniak enpresarik, eta orduan
hasi ziren eskariak egiten.

**Etorkizunerako zein asmo
duzue?**

Enpresa handitzea, jende
gehiago sartuta, eta finkatzea.
Guk egiten dugu hasieratik amaie-
rarako prozesua, eta egokiena
lana banatzea izango litzateke.

etxeko leihotik

Aitziber Aranburuzabala > Arrasate Irratiko arduraduna

Zapatuoko plana, azoka plazara!

Urtetako ohitura dut zapatuoko kapazua hartu eta biko-
tekipidearekin azoka plazara joatea; han egiten ditu-
gu asteroko erosketa gehienak. Zapatu goizeko pla-
na horixe izaten dut, baina, presarik gabe jaiki, erosketak
egin eta ondoren kafetxo bat lagunekin.

Izaten da, baina, tarteka, *piper* egiten dugun zapaturen
bat edo beste; horrela denean, hurrengo astean *kontu-eske*
etortzen zaizkigu hainbat saltzailea. Ez dugu gaizki hartzen,
alderantziz. Salerosteko toki bat baino zerbaite gehiago da-

**"Salerosteko toki
bat baino zerbaite
gehiago da azoka
plaza; topagune
bat da"**

Hark esan zidan, egun, pre-
zioario baino gehiago kalitatea-
ri errepazaten diogula, eta bere
negoziarako Oñati eta Arrasate plaza onak direla. Erosle-
en ordutegia ere aldatu egin omen da; egun, beranduago eta
askotan presarekin joaten gara. Baina badira gauzak lana
egin eta oheratuz aurrekik erosketak egiten dituztenak ere.
Zapatu bazatzen nirekin?

**> Lehen baino gizonez-
ko gehiagok dute etxeko
erosketen ardura.**

Jubilatu berri askok,
esateko. Bejondegiala!
Hala ere, gehienek
emazteak prestatutako
erosketa-zerrenda
daramate.

**> Postua izateagatik
ordaindu behar izaten
dute saltzaileek. Salto-
kiak duen neurriaren
arabera ordaintzen
dute. Beste herri batzue-
kin alderatuz, Arrasate
omen da, differentiaz,
garestiena.**

begi-bistan

Usondo parkean bikiletan (Bergara) 2006/03/14

Argazkia: Irati Agirreazaldegi.
Testua: Irati Agirreazaldegi.

Bizikletak udarako zirela zioten,
baina udaberrian sartzear gau-
denean, kanporako giroa aproba-
txatuz parkean ibili dira asko
eta asko jolasean, bizikletan, ego-
nean... Zuhaitz eta lore artean.

Har ezazu parte?

Argazkia eta azalpentxoak
bidali honako helbidera:
goinkaria@goina.com

izen propioak

Oskar Arana
ITZULTZAILEA

Paul Auster idazlearen *Brooklyn Follies* eleberria euskarara itzuli du Oskar Arana itzultzaile aramaioarrak. *Brooklyngo erokeria* kizenburu-
pean, liburuaren 1.500 ale plazaratu
ditu Alberdania argitaletxeak. Aurrez *Lotsaizuna* eta 1984 eleberriak
itzuli ditu Aranak.



Manu
Muniategi-
dikoetxea
MARGOLARIA

Arte Plastikoetako Altadis sarirako izendatu dituzte Frantziako estatuko hiru artista eta Espainiako estatuko beste hiru; tarte-
an Manu Muniategi-Dikoetxea ber-
gararra. Bere lana Parisko Lelong gale-
rian dago apirila-
ren 5era arte.



Mari Carmen
Gallastegi
EKONOMILARIA

Ekonomilarri berga-
rarrak hilaren 29an
jasoko du Gizarte
Zientzien eta Huma-
nitateen Euskadi
saria. Epaimahaiak
azpimarratu du
inguru ekonomian
eta batez ere arran-
tzara aplikatutako
eredu bioekonomi-
koen gainean
Gallastegik eginda-
ko ekarpeneak.

Orain sei hilabetetik da Aritz Arrieta arrasatearra Debagoieneko Gazte Sozialisten idazka-

ria. PSE-EEko Gipuzkoako exekutiboko kide ere bada eta Euskadi mailan ere, Gazte Sozialis-

tekin dabil lanean. Aurretik, Unidad Alavesako idazkari izan zen. Hiriburuaren lan egitea

eskualdean baino errazagoa dela dio. Poliki, baina gauzak aurrera doazela dio, hala ere.

Aritz Arrieta > Debagoieneko Gazte Sozialisten idazkaria

"Bakea gertu dagoela dudan jartzen dut, eta atzeraka egin dutela uste dut"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Debagoieneko Gazte Sozialistekin lan egiteko asmoarekin hartu zuen kargua Aritz Arrieta. PSE-EE alderdiak Arrasaten duen egoitzan egoten da. Gazteengana hurbiltzeko informazio kanpainai abiarazi zuten urtarilean, eta datorren hilean indartu egingo dute. Gazte askok "beldurra" dutela dio.

Zergatik egiten zaizu zaila Debagoienean lan egitea?

Uste dut jendeak oraindik ere beldurra duela hona etortzeko, bai gazteak baita nagusiagoak ere. Azken egunotako gertakiek, gainera, zailago egin dute egoera. Izan ditugu afiliatu berriak ere, baina atzetik egin gura dute lan, momentuz.

Zure kargua hutsik egon da denbora batez. Zergatik erabaki zenuen hartzea?

Legebitzarrean ibili nintzen aurretik lanean. Arrasateko eta Gipuzkoako sozialistekin ere berba egin nuen eta erabaki nuen kargu hori hartza. Hasieran, hala ere, alderdiarenak lan handiagoa egiten ari naiz gaztekin baino, gazteek zaitasun handiagoak dituzte-eta hurbiltzeko.

Zein da zure helburua?

Debagoienean gazteek ze arazo dituzten jakin gura dut, eta zinegotziekin batera arazo horiek dagokien erakundeetara bideratzea da asmoa. Zinegotziekin egiten dut lan.

Hemengo gazteek duten arazo handiena etxebizitzarena dela uste dut. Lana, egon, badago, nahiz eta zer baldintza edo zer kontratu dituzten ikusi egin behar den. Hala ere, uste dut helduek arazo gehiago dituztela lana aurkitzeko gazteek baino.

Ze talante dute Debagoieneko gazteek?

Denetarik egongo da, baina ez dakit zehazten. Hona, gainera, oso gutxi hurbildu dira.

Zenbateraino egiten dute paso gazteek politikaz?

Gure kasuan, behintzat, ez dakit interes falta edo beldurra den horren arrazoia, baina orokorrean, Espanian begiratuta, egia da gazteek paso egiten dutela politikaz. Zerbait gaizki egin delako gertatzen ari da hori. Alderdi guztiek dituzte arazoak gazteak erakartzeko, eta guk hemen, gehiago. Gazteek ez dute uste politikariekin arazoak konpon-



Aritz Arrieta has 29 years and is a member of the Socialists' Youth.

O.E.

tzen dituztenik, sinesgarritasun txikia ikusten diete.

Ze harreman duzu gainerako alderdiekin?

Beste alderdiek, eskualdean, ez dute gazte elkarrekin. Gu, adibidez, autonomoak gara, nahiz eta alderdiarenak lan egin. Orain arte, behintzat, ez dute harremanik izan inorekin. Hala ere, ikusen dut ez dagoela aurretik joera handirik alderdien artean lan egiteko. Badakigu norantzuek eginen duten lan elkarrekin, eta gu alboratuta gaude.

Ze iritzi duzu azken gertaeren gainean?

Orain arte oso baikorra izan naiz, baina uste dut zerbaitek geratu dela eta atzerapausoak eman dituztela. Gure alderdiak aurrerapausoak eman dituela uste dut, baina kale erasoek okertu egin dute egoera.

Zer gertatu da? Zergatik oker- tu da egoera?

GAZTEAK

"Alderdi guztiek dituzte arazoak gazteak erakartzeko, eta guk hemen, gehiago"

BATASUNA

"Gobernuak eman ditu pausoak, eta hurrengoa Batasunak eman behar duela uste dut"

ELKARLANA

"Ikusten dut ez dagoela aurretiko joera handirik alderdien artean elkarrekin lan egiteko"

ETAK autodeterminazioa eta independentzia eskatzen du, eta hori ezinezkoa da, gu gobernuaren gauden bitartean, behintzat. Beste gauza bat da ETAK eta Batasunak aurrerapausoak ematen badituzte. Orduan hitz egin daiteke, betiere Konstituzioaren barruan. Nekez hitz egin daiteke ezin bagara bizi lasai eta bizkartzainak eraman behar badi-tugu, nik bezala.

Ze baldintza behar dira hitz egiteko?

Lehenengo, armak uztea. Hortik aurrera, marko juridikoen barruan dagoen guztiari buruz hitz egin daiteke.

Nork eman behar du hurrengo pausoak?

Batasunak; salatu behar dene salatu behar du eta hitz egin behar denari buruz hitz egin. Uste dut normalizazioa heldu orduko urte asko pasako direla oraindik. Izan ere, gauza bat da ETAK esatea armak uzten ditue-

la eta beste bat normalizazio sozialera heltzea.

Bakea ez dago horren gertu?

Nik dudan jartzen dut. Gure presidentea isilik dago orain, eta zerbaitegatik izango da; pausoren bat atzeraka egin dela uste dut. Bakea ez da egun batetik bestera lortuko. Gauza bat da su-etenia egitea eta beste bat armak uztea.

Ze puntutan dago, orduan, bake prozesua?

Eten baten dagoela uste dut. Gobernuak ikusi du ETAREN inguruak eskatzen duen dena ezin daitekeela eman. Uste dut gobernuak eman dituela pausoak eta Batasunak asko duela esateko.

Urtebete barru dira udal hau-testakundea. Hasi da kanpaina?

Barruko kanpainak hasi dituzte hiriburuaren. Iraiz inguruaren hasiko gara Arrasaten, seguru-enik.



zabalik

Eneida Iturbe

Feminizidioa eta genozidioa

Pasada den astean Emakumearen Nazioarteko Eguna zela-eta, Bartzelonan egin zen manifestaldian izan nintzen. Dene-tariko aldarrikapenak entzun nituen. Neska gazte batzuek "arropa mutilek lisatzeko" eskatzen zuten, eta nagusixeago batzuek harro erakusten zuten *Orain Txilen guk agintzen dugu zioen pankarta*. Horien guztien artean, hitz hauetan: *Feminizidio gehiagorik ez! Guateman egunero 1'5 emakume hiltzen dituzte*. Txikia zen pankarta, inork gutxik ikusiko zuen. Berdin geratzen da salatzen zuen arazoarekin: oharkabean pasatzen da, ez baita komunikabideek egunero ahotan hartzen duten gaia.

Egun, ez da erraza datu hutsekin jendea hunkitzea; hala ere, saiatu egingo naiz: 2005ean 624 emakume hil zituzten Guateman, eta aurten, urtea hasi besterik egin ez dugun honetan, 108 dira jada hildakoak.

Feminizidio hitza asmatu bada, emakumeak direlako hiltzen dituzten asko da. Gainera, berebiziko bortizkeriaz jokatzen dute hiltzaileek. Ciudad Juarezko hilketak gehienok ezagutzen ditugu, baina, tamalez, ez dira bakarrak. Guatemala eta Errusia dira emakumeen hilketa gehien pairatzen dituzten herrialdeak.

Feminizidio hitzak beste bat dakarkit gogora: genozidioa. Guatemalak indigenen aurkako genozidioa bizi izan zuen urteetan zehar. Orain, emakumeen txanda dela dirudi. Horrenbesteko bortizkeria jasan eta gero, indarkeriara ohituak omen daude guatemalarra. Guri ere ez ote zaigu berdin gertatzen? Ez bada hala eta idatzi honek hunkitu bazaitu, erremediorik oneña telebista piztu eta ergelkeriaren bat ikustea.

"Feminizidio hitza asmatu da emakumeak direlako hiltzen dituzten asko"

"Guatemala eta Errusia dira hilketa gehien pairatzen dituztenak"

Goienkaria

Argiratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Saitetako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) Erredakzioa Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzela, Oihana Elortza, Leire Kortabarria, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi Oinarrizko diseinua Goi Arana Maketazioa Alex Azkarate Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundilhano, Natali Martinez, Zortzka Martín, Imanol Elortza, Ibaso Bereizbar Testu zuenketetako Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzaran, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOTZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarra Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 18.935 ale • Difusioa: 17.680 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAIKA



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiako
Udala



Aretxabaleta
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herritarra galdezka

NOIZ IZATEN DIRA TEMPORAK? (II)

Tenporen gainean eta aurreko asteko erantzunaren gainean oha-rra.

Aurreko astean tenporen gainean jardun genuen hemen. Ira-kurle bati erantzunez, esan genizuen urtarro berria hasi aurreko astea hartzen dela erreferentzia moduan, eta, zehatzago, aste horretako eguzaten, egubakoitz eta zapatua. Ondorioz, esaten genizuen oraingo astean direla temporak. Informazio hori Interneten aurkitu genuen eta lehen, antza, artzainek-eta horixe har-tzen zuten erreferentzia moduan. Baina geurean kontu honetan adituak diren Pello Zabalarekin eta Andoni Aizpururekin berba egin dugu, eta haietako beste bertsio bat eman digute.

Pello Zabalaren esanetan, temporak elizaten kontuak dira eta lau data hauetako hartzen dira kontuan temporak noiz diren jakiteko: San Jose eguneko aurreko astea, San Juan asteko aurreko astea, San Miguel aurreko astea eta Gabon aurreko astea. Hala ere, ilargiak baldintzatzen ditu temporak. Uda-berriko lehen ilargi bete eguna

da Eguen Santu eguna, aurten apirilaren 13a. Eta udaberriko temporak Garizumako lehen astean izaten dira, aurten martxoaren 8an, 10ean eta 11n. Temporak beti dira eguztena, egubakoitz eta zapatua, eta egun bakoitzak hurrengo urtaroko hilabete bakoitzeko eguraldia iragartzen du. Zuberoan eta Bizkaian, ordea, kontra-temporak ere izaten dituzte kontuan; eguztenetik eguztenera egiten duen eguraldiari

begiratzen diote hurrengo urtarroan ze eguraldi egingo duen jakiteko. Eta horren arabera, martxoaren 8tik 15era arteko eguraldia hartu beharko genuke aintzat. Bistan da, hortaz, data bat edo bes-te bat aintzat hartuz gero, eguraldia ere ezberdina izango dela uda-berrian. Pello Zabalak dio, edozelan ere, aldakorra izango dela eguraldia udaberrian: "Izango ditugu egun eguzkitsuak, baina baita egun euritsuak ere".

ERREPIDEA APARKALEKU

Irakurle batengaldera: Aretxabaletako Bañu-etxe enpresak erre-pidea aparkaleku moduan erabil-tzen du. Kamioek egiten dituzten maniobrak kaminoan izaten dira seinalatu barik. Nire galdera hau da: guk ezin badugu autoa edozein tokitan utzi zergatik eurek bai?

"Eurek ere ezin dituzte kamioiak edozein lekutan aparkatu". Hala esan digu Martin Garai Aretxabaletako udaltzain buruak; "horregatik isunak behin eta berriz jasotzen dituzte. Bestalde, Aretxabaletan ez dago kamioiak uzteko aparkaleku egokirik eta horrek arazoa larritu egiten du".

marrakiz

Unai Busturia



Fernando Alonso. Bigarren urtea

Iban Perez 'Piban'

www.goiena.net/blogak/leihoa

Atzo hasi zen Bat Formula-ko 2006ko denboraldiko munduko txapelketa. (...)

Ondorioak ateratzeko garaian ikusi daiteke aurtengo txapelketa ez dela izango biren bakarrik, eta kotxe fidagarri-nak irabaziko duela ziurtatu genezake. Ea datorren astean horrelako antzerako beste

ikuskizun polit bat ikusteko aukera dugun. Pena mereziko du goiz jaikitza igande batean.

Gustatu zitzaidan: Alonso-ren pozak adierazteko era, Nico Rosberg gidari alemaniarraren birarik azkarreña eta larunbateko kalifikazioa.

Ez zitzaidan gustatu: Gauza ugari. Ide, Coulthard, Toyota, Barrichello, Montoya, Massa... Batzuk ez dutelako kalitaterik Bat Formula bat gidatzeko eta beste batzuk ez zutelako eman beren maila onena. Publiko eza ere aipatzeko da, argi ikusi zen gauza ugari diru kontua dela soilik. Telebistako erreali-zazioa zer esanik ez... (...)

101 vascos y medio

Joxe Arantzaibar
www.goiena.net/blogak

Egunotan irakurri dut Mitxel Ezquiaga kazetariaren Ezken liburua, *101 vascos y medio*. Alberdania argitaletxeari gaztelaniaz irakurri diodan lehen liburua. Liburuak 101 vascos y medio du izenburua, baina izan zitekeen 101 donostiaras y medio, liburuan agertzen diren pertsona gehienak ager-tzen baitira Donostiarekin duten harremanagatik.

plazara

Debagoieneko abere hiltegiaz dihardu Itziar Lamarainek, PPko ordezkariek. Kezkatuta dago hiltegiaren etorkizunaz; izan ere,

dio Mankomunitateak ez duela bere lana ondo egin eta eskatzen dio lehenbailehen hel diezaiolarazoari. Era berean, leporatzen

dio Arrasateko alkateari udalbatzarrak onartutako mandatua ez eroan izana Mankomunitateko Gobernu batzordera.

Itziar Lamarain *

Zubillagako abere hiltegiaren gainean

Zubillagako abere hiltegiaren biziraupenaren gainean ia bi urteko eztabaidea politikoak izan ostean, Arrasateko Udalak erabaki zuen udalbatzak 2005eko azaroaren 28ko osoko bilkura ezohikoan onartutako mandatua eroatea Debagoieneko Mankomunitatera.

Pleno hura konbokatu zen PP eta PSE-EE alderdien eskaeraz, eztabaideatzeko, irailean PPK, PSE-EEk, Ezker Batuak eta Aralarrek aurkeztutako mozioa, bere garaian Arrasateko alkateak plenora ez eroatea erabaki zuena.

Eta ez zuen nahi izan mozioa plenora eroan, aldez aurretik, 2004ko uztailaren 22an, EAJk eta EAk aurkezu zutelako mozio bat, hirugarren puntuant zera ziona: "Mankomunitateari eskaetza Zubillagako abere hiltegiko zerbitzuak bertan behera uzteko tramiteak egiten has dadila". Hau da, Zubillagako abere hiltegia itxi egin nahi zuten. Zorionez, mozioa ez zen onartu.

Ostera, azaroan aurkeztutako mozioak, PPK, PSE-EEk, Ezker Batuak eta Aralarrek sinatua, eta talde horien aldeko boteekin onartua, Mankomunitateko batzarrean Arrasateko Udalaren izenean aurkezteko mandatua zuen eta zera zioen zehatz-mehatz:

1. Kudeaketa plan bat zehaztea, aldez aurretik finkatutako helburu jakin batzuekin, zerbitzuaren kudeaketa zuzenerako. Eta, lehenbizi neurriak har daitezela hiltegiaren galera saihesteko.

2. Kudeatzaile independente bat kontratatzea.

3. Egin daitezela beharrezkoak diren inbertsioak hiru hilabe-



MIKEL ARROIABE

teko epean eta gutxinez bost urterako inbertsio plana egin dadila.

4. Azpikontraten egoera egon-kortzea, zerbitzuari gutxinez bost urteko jarraipena emanaz.

5. Sektorearen parte-hartzea bermatzea Mankomunitateko erabaki organoetan.

Behin mozioa onartuta, EAJ eta EAren abstentzioarekin, alkatte jaunak esan zuen une hartan abere hiltegiak zabalki jarraitzen zuela eta berdin jarraituko zuela.

Gogorarazi genion alkate jaunari, gure Udalaren mandatua argia zela mozioaren bost puntu defentsan eta huraxe zela Mankomunitatearen Gobernu batzordean defenditu behar zuen

"Dauzkadan datuen arabera, hiltegiaren gainean ez dute aspaldian eztabaideatu Mankomunitatean, eta horrek egonezina sortzen du sektorean, gaur egungo egoera ez delako egokiena"

"Gurokelak ez ei ditu lortu aurreikusitako emaitzak, porrot hutsa izan dela ez esatearren"

postura. Gogorarazi genion, era berean, bost puntu horiek eskualdeko beste udal batzuetan ere onartuak izan zirela.

Hiru hilabete joan dira dagoeneko egun hartatik. Zer gertatu da mandatu harekin? Ezer ere ez.

Dauzkadan datuen arabera, kontu honen gainean ez dute berriro eztabaideatu Mankomunitatean eta horrek egonezina sortzen du sektorean, gaur egungo egoera ez delako egokiena.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2006ko aurrekontuetan 500.000 euro bideratu ditu Zubillagako abere hiltegiaren kudeaketa aktibatzeko. Ezin dezakegu ihes egiten utzi.

Bestalde, gure tesiak berretsiz, irakurri dugu oraingo astean hainbat hedabidetan Gurokelak —Zubillagako abere hiltegia eustearen aurkakoen erremedioa— ez dituela lortu aurreikusitako emaitzak, porrot hutsa izan dela ez esatearren.

PPren izenean eskatzen diogu Debagoieneko Mankomunitateari gaia serio har dezala, horixe baita bere obligazioa. Dagoneko nahikoa denbora galdu dugu eta ezin dezakegu horrela jarraitu. Gauzek berdin jarraitzen badute, neurririk hartu barik, egoera okertu egin daiteke (ez dakit ez ote den hori helburua) eta sektoreari ondorio larriak eragin. Horrela, bada, eskaintzen zaigun leihotzak eskatzen diogu Mankomunitateari heldu diezaio-la behingoz arazorri.

* PPko zinegotzia da Arrasateko Udalean

zer deritzuzu?

www.goiena.net

Onak dira kirol eta kultura instalazioak?

BAI	%43
EZ	%57

> BERGARAN EZ

Bergaran, behintzat, ez gaude gustura egoteko moduan: igerilekurik ez dugu; beno, bainuontzi txiki kaskar bat toldopean; zinerik ez daukagu... Martxelo

> DENONDAKO BAT

Nire ustez onena litzateke bailararako multi-zine batzuk egitea nonbaiten eta gauza bera igerilekuekin. Herri batean denondako. Miren

> GEHIAGO ERABILI

Ba nire ustez ez ditugu hain ekipamendu txarrak. Egin behar dena da erabili eta ez kanpora joan.

Patxi

> ONAK DITU

Asko egin dugu aurrera eta eskertzeko da Elgetako jende batek egiten duen ahalegina. Kristona da etxetik hain hurbil horrelako kultura edukitzea. Ni Eibartik igo naiz bizitzera eta han baino kultura gehiago arnasten da. Eibartik

DATORREN

ASTEKOA:

Eskuin muturrekoak gogor dabilta Spainian?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

blog-top

Mitxel Ezquiaga Donostian jaio zen, nahiz eta Tolosan ere sustrai sakonak dituen. Hori dela eta, tolosar mordoa aurkezten ditu liburu honetan, Donostian lekututako tolosarrak. Hori da Gipuzkoa Mitxel Ezquiagarentzat. Inoiz Goierri-raino iristen bada, "Gipuzkoa sakona" deitzen dio horri. Debarroko eta Urolako alerik apena agertzen den.

Inork ez ditu liburu honeitan aurkituko Alberto Iñurtegi, Jaber Retegi, Jose Mari Velez de Mendizabal, Jesus Catania, Jon Sarasua, Josean Sagastizabal, Jesus Mari Lazkano, Juan Martin Elexpu-

ru, Luistxo Fernandez, Juanito San Martin, Felipe Juaristi edo Pello Zabala, bestea beste. Jakina, berak aukeratzen du noren gainean idatzi, baina argigarria da batzuek nola ulertzen duten Gipuzkoa.

Bestela, liburua nahiko gustura irakurri dut, eta argi dago pertsonaia horien gainean bezainbat bere buruaz idazten digula Mitxelek. Ez da txiripa: denetan artikulurik onena azkena iruditu zait, bere buruaz idatzi duena. "Soy timido, pero escribo de mí porque soy el hombre que mejor conozco" dio, eta arrazoi osoz. Alde horretatik, eta neurria ere hartua

diolako artikuluen luze-laburrari, blogari ona izan liteke Mitxel Ezquiaga.

Elkarri-ren jatorria

Joxe Arantzabal

www.berria.info/blogak/imanol

Elkarri-ren jatorriari buruz E zalantzaz utzi nau Jonan Fernandezekin egindako elkarrizketak. Ezker abertzalearen ekimenez jaio zelakoan nengoan, eta jaio eta gutxira hartu zuela bide autonomoa

(atentatuak arbuiatuz), baina HBren onespenik gabe jaio zela ziurtatu zidan Fernandezek.

Nire ondorioa, orduko hemerotekari begiratu azkar bat eman ondoren: ezker abertzaleak bakearen aldeko erakundea sortu nahi zuen, ezker abertzalearen barruan ordea, baina jaio baino lehenagotik erakutsi zuten Elkarri-koek beren bidea egiteko asmoa zutela, "hirugarraren espazioan" kokatu nahi zutela. (...)

El País, 1992-09-08: "Atutxa ratifica que ETA ordenó convertir Lurraldea en movimiento pacifista". (...).

koplak

Arrasateko gaztetxeko eskola

Bakea?

Gure herriko agintariak teiltatuari harrika bake mezua ahoan eta milloi mordoi jarraika.

Nahiz etengabe entzuten dugun esperantzaren mezua bertso eskolatik ez da ikusten inun bake prozesua.

Azken aldian biktima bako egunak mila ei dira estatistikak antza ez daude Euskal Herrira begira.

Korapiloa

Jon Altuna (HIRU, Euskal Herriko garraiolarien sindikatua)
Euskal Herria

Orduko 300 kilometro egiten dituen trena Euskal Herrira ekartzeko egitasmoa ez da berri-berria. Handia du dena: abiadura, aldaketak, inbertsioa, herritarren jakin-mina, zalantza eta kezka... Zamen garraioa eta abiadura handia uztartzea zaila bada ere, Jaurlaritzaren asmoa horixe da: Abiadura Handiko Trena Prestazio Handietako Tren bihurtu eta garraio-kamioiak eramateko erabili.

Ekonomia eta azpiegiturak eurak baino azkarrago hazten ari da garraioa Europan. Egin ahala bete egiten dira autobideak; garraioak hartu duen martxarekin errepideek ezingo dute horrenbeste kamioi jasan. Beraz, lehenbailehen aurkitu behar irtenbidea: gainezka diren errepideen arazoari aurre egiteko beharrezko da tren eta itsas garraioaren garapena.

Behobiatik egunero zortzi mila kamioi inguru pasatzen dira eta korapilo hori askatzeko alternatibak hurrengo urteetan gauzatu daitezke. Lakuak kamioiak itsasontzi (Bilbo eta portu frantsesen artean) zein trenetan sartzeko egitasmoak iragarri ditu. Baino hori AHT defenditzeko erabiltea trampa egitea da.

Inon ez da abiadura handiko trenik zamak edo kamioiak garraiatzeko erabili. Alpeetan, Italia eta Austria artean, bada esperientzia bat: kamioiak trenean albotik sartu eta 120 km/h-ko abiaduran eramatzen dira. Horrela bada, ez al da egokiago egungo trenbideak hobetzea? Zenbat kamioi eramango dituzte? Askatuko alda da korapiloa? Jendeari mesederrik egingo ote dio ondotik hain azkar pasatuko den trenak? Herritarrek nahastu gabe argitu behar dute egitasmoa agintariekin. Hainbeste aldaketa eta gastu eragindo dituen tren berria, behin martxan jarrita, zailago eta garestiagoa izango bai gelditzea.

Trena berez garraioibide egokia da, bai pertsonen joan-etorrietarako eta baita, batez ere, zamak garraiatzeko ere. Bertako garraiolariek ere argi dute hori, eta ona da, gainera, eurentzat, ibilbide luzeak utzi eta bertatik bertara lan egiteko aukera ugarituko baita, bezeroei behar duena ateraino eramanez, modu egoki, azkar eta eraginkorrean. Bestalde, garraio publikoa herriz herri hobetuta, errepideak garbiagoak eta seguruagoak izango dira. Trenbide sareak beharrezkoak du diru publikoa, baina ez baten batzuek erabili-

Eskerrik asko

Iñaki Zabala (Gameiko langileen batzordearen izenean) > Arrasate

Gamei SA lantegiko empresa komiteak jakinarazi nahi du azkenaldian enpresako akziodun txikiekin izanda: ko elkarritzetek balio izan dutela desblokeatzeko zalantzazko eta egon ezinezko egoera; izan ere, egunak pasa ahala, egoera jasanezina bihurtzen ziharduen.

Errealitate gordinari aurre egiten jakin izan dugu guztiok eta premiazko soluzioa bilatu nahi izan dugu. Honenbestez, Gamei SA enpresaren akzioen %6,78 erosi dugu langileok, akziodun txikienak zirenak.

Gamei SA enpresako langileok eskerrak eman nahi dizkiegu, enpresaren etorkizuna ziurtatzeko eta langileen lanpostuei eusteko irtenbide bakarra zen bidea babestu duten eta bidelagun izan ditugun guztiei.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, egunotan Arrasateko Laubide plazan egin ditugun elkarretaratzeetan geure alboan izan direnei. Eskerrak, era berean, Debagoieneko sindikatuen ordezkarie eta Fagor Arrasate Kooperatiba Elkarteko Kontseilu Sozialari, eskaini diguten elkartasunagatik, eta Arrasateko Udaleko korporazioari, bitartekaritza lana egiteagatik.

Era berean, nabarmendu gura dugu bai Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibako hedabideek eta baita besteek gure arazoarekiko agertu duten interesa eta egin duten gaiaren jarraipena. Baita, Ubane Madera, Nerea Zubietea eta Kepa Oliden kazetariekin erakutsi duten profesionaltasuna, Arrasateko herriarendako interesekoa zen arazo honen berri ondo baino hobeto eman dutelako.

ko duten azpiegitura eraikitze-ko, denontzat onuragarri dena garatzeko baizik.

Justizia animalientzat

Clara Elkorbarrutia
Debagoina

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela diote, baina, era berean, nire ustez, hitz xume eta sakon gutxi batzuek ere asko esaten dute irudi bati buruz.

Hona hemen hitz horietako batzuk:

Emanuel Kant filosofo alemanarenak: "Bizimodu guztienean ehitzen da, zalantzak gabe, egitura moraletik gehien urrunten dena". "Animaliekiko krudeleria ez dator bat gizakiak bere buruarekin duen betebeharra-rekin". Arthur Schopenhauer filosofo alemanarenak: "Animaliek krudela dena ezin da pertsona ona izan". Charles Darwin zientzialari inglesarenak: "Animaliek, gizakiek bezala, poztasuna eta mina sentitzen dituzte, zoriontasuna eta zorigaitza...". Leon Tolstoi poeta errusiarrarenak: "Animaliak hiltzetik gizakiak hiltzera urrats bat besterik ez dago". Joan Wolfgang von Goethe poeta alemanarenak: "Ehiza gerra egiteko modu bat da beti". Francois Voltaire idazle eta filosofo frantziarrarenak: "Ehiza gizakiok gure benetako lapurrik, haienak diren espazioen gorenak izatetik.

Ugaritu egin direla diote. Eta ez al gara ugaritu gizakiok? Modu kezkagarrian, gainera. Ez al gara gu desoreka guztieneen errudunak? Batzuen batzuk ez dira konturatzen, geu garela haienak diren espazioen benetako lapurrik, haien

hurkoekiko ditugun sentimenduak hiltzeko modu segurua da". Otto Von Bismarck errege-orde alemanarenak: "Gezurak gezurraren atzetik esaten dira bai ehitaren ostean bai hauteskundeen aurretik: inoiz ez da hainbeste gezur esaten". Teodor Heuss Alemaniako Errepublika Federaleko lehen lehendakariarenak: "Ehiza eufemismo koldarra da, babesik gabeko bizidunak koldarkeriaz hiltzea adierazteko erabiltzen dena. Ehiza buruko gaixotasun baten pareko da".

Egia esan, zaila egiten da ulertzeta nola pertsona batzuek poztasuna sentitu dezaketen animaliak tiroka hiltzean.

Hotzikara galanta sentitu nuen GOIENKARIA ireki eta basurde errugabe haien heriotza basati eta alferrekoaren aurrean irribarretsu zeuden haien argazki dantesko ikusi nuenean. Zer kalte egiten zuten baina? Badirudi ez dakitela basurdeek trankil bizi izateko eskubide osoa dutela. Heriotzaren eta indarkeriaren irudia zen, indartsuena izateak ematen duen botereak eragindako harrokeriaren irudia. Jakina, halako gizakiak osorrun daude sentimendu gorenak izatetik.

Ugaritu egin direla diote. Eta ez al gara ugaritu gizakiok? Modu kezkagarrian, gainera. Ez al gara gu desoreka guztieneen errudunak? Batzuen batzuk ez dira konturatzen, geu garela haienak diren espazioen benetako lapurrik, haien

gaixotasun guztieneen errudunak, adimentsu jokatzen ez dutenak, haien harmonian eta bakean bizi izateko gai ez direnak.

Zertarako balio digute aurrerapen teknologikoek, gure bihotz gogortuek ezin baditzte hain adimentsuak eta zoragarriak diren animalien garrasiak eta ikarak entzun?

Gogoan ditut baserrian nuen osaba batek noizean behin uzta jaten zion basurde baten gainean esaten zituenak. Inoiz ez zitzaison animalia hiltzea bururatu. Barrubarrutik errespetatzen zuen: bere lur eder haiengatik ordaindu behar zuen prezioa zela ulertzen zuen.

Bada gizarte baten espirituan zintzotasuna baloratzeko irizpide bat, inoiz ere hutsik egiten ez duena: gizarteak zenbateraino onartzen dituen animalien eskubideak. Benetan uste dut egunen batean gizakiok juzgatu egingo gaituztela animaliek gehiegikeriaz jokatzeagatik, pertsonen hilketak juzgatzen ditugun bezala.

Maitatu animaliak, maitatu bizi-dun guztiak eta gauza guztiak! Dena maitatzen baduzu, gauza guztiak agertuko zaizu bizitzaren eta izatearen sekretua eta, azkenean, maitasunez begiratuko diozu munduari.

Eta artikulu hau bukatzeko, erlatibitatearen teoriaren aita izan zen Albert Einstein fisikari eta Nobel saridunaren hitz batzuk ekarriko ditut: "Ezer ez du Lurreko bizirupena gehiago ziurtatuko elikadura begetarianoak baino. Gizakiaren izaeran duen eragina bakarrik kontuan hartuta, bizitza begetarianoak eragin izugarri ona izango luke gizateriaren bizimoduan, patuan".

Inposaketa ez

Mila Elortza (AHT Gelditu!
Elkarlana taldeko kidea)
Bergara

Abiadura Handiko Trenak Euskal Herriarentzat izango dituen ondorio kaltegarriak (ekonomikoak, sozialak, ingurugirokoak) kontuan harturik, behin baino gehiagotan, Euskal Herriko eragile sozial eta herritarrek proiektu honen aukako iritzia eman dute. Adituen txostenek dioten moduan, justifikaziorik ez duen azpiegitura honetan 3.000 milioi eurotik gora gastatzea ez da bidezkoa. Are gehiago, Euskal Herria bizirauteko eta garatzeko, kulturan, hezkuntzan, esparru sozialean edo eta ekonomikoan premiazkoak diren beste proiektu asko eta asko baliabiderik gabe dauden bitartean.

Herri honen hitza eta erabakia errespetatua izateko, azpiegitura erraldoien eraikuntzaren moratoria gauzatu behar da. Edozein erabaki hartu aurretik, ezinbestekoa da informazioa eta eztabaida bultzatzea, herri honen dituen azpiegituren beharren inguruan eztabaida bultzatzea. Era berean, eztabaida eman ondoren, herri honen hitza eta erabakia gauzatu eta errespetatua izateko bitartekoak jarri beharko dira.

Bai eskolak euskalduntzeari!

Ana Mendikute (Ikasle Abertzaleak)
Bergara

Gaur egun Euskal Herrian diren hizkuntza ereduak bitartez milaka haur eta gazteren hizkuntza eskubideak urratzen dira. Batetik, ikasleen gehiengo zabalarri euskara ezagutzeko eskubidea urratzen zaio; bestetik, Euskal Herriko hainbat eremutan euskaraz ikasteko eskubidea bera ere ukatzen zaie.

Hiru ikasletik bi ez da escola bidez euskalduntzen. Beraz, ikasleen %38 euskaldunduko da soilik. Milaka haur eta gazteri urratzen zaie euskara ezagutzeko eskubidea eta honek euskararen geroa bera ere kolokan jartzen du.

Egoera honen aurrean, Euskal Herriko hainbat eragilek sinadura kanpaina handi bat jarri dugu abian.

Gure aldarrakapena bi puntutan sailkatzen da: batetik, euskara ezagutzeko eskubidea herritar orori bermatzea Euskal Herri osoan. Eskolak haur eta gazte guztiak euskaldundu behar ditu. Bestetik, euskaraz ikasteko eskubidea ere bermatua izan dadila. Egun, eremu askotan euskaraz ikasteko oztopoak handiak baitira.

Arlo honetan ardura duten instituzioei zera eskatzen diegu: alde batetik, euskararen ofizialtasuna aitoritu eta gauzatzea. Euskalduntza bermatzen ez duten politikak gaintitu eta politika berriak zehaztea, euskalduntasun osoa lortzeko. Bestetik, euskarazko irakaskuntzaren kontrako neurriak eten eta euskaraz ikasteko eskubidea bera osoki bermatzea.

Bergarako ikastetxeetan milaka ikasleren sinadura biltzea dugu helburu. Horregatik, oraingo astean egunero jolas orduan sinadura bilketa egin dugu Aranzadi Ikastolan, Mariaren Lagundia Ikastolan, Ipintza Institutuan eta Miguel Altuna Institutuan. Eskerrik asko, gurekin bat egin duzuoenoi.



ZIORLA AUTOAK

ARRASATE



FINANTZAKETA:
%2,90eko UTB (TAE),
84 hilabetera, hilean 107 euro
ordainduta eta sarrera-kuota barik



Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE Tel: 943 77 01 44

R.P.S. N° 190/041/L.G.

MULTIOPTICAS

Eskaintza honek 06/03/15etik 06/04/30era arte balioko du, ezaugarri hauek dituzten betaurrekoetarako:
Cool, Cool+ eta Fashion Pro marketako armazoi, 4 Multifoco lente progresibo, ± 6,00ko esf., ± 4,00ko zil. eta +3,00ko add.

konbinatu2
BETAURREKO PROGRESIBO

bakarrik
242 €
4 lente progresibo
barne

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75

ARRASATE

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22

EIBAR

C/ Nueva 15 - GROS
Tel.: 943 32 66 49

DONOSTIA

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11

ERRENTERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01

IRUN


J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88

ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70

TOLOSA

Ura funsezkoa da. Funtsezkoa, bizi ahal izateko. Pertsonen eta herrien garapen eta ongizaterako. Baino ura baliabide mugatua da, zaindu eta arduraz kontsumitu beharrekoa. Ez dezagun ura alferrik galdu. Ez dezagun *kutsatu*. Ez dezagun *xahutu*. Bestela, hemen galduko ditugu basoak. Hemen hasiko dira lehortek. Hala deuseztatuko dira gure paisaiak. Hala hilko gure ibaiak. Hala galduko dugu fauna. Horrela joango zaigu ura, eta bizi...



zain dezagun ura. zain dezagun ingurumena. zain dezagun gizadia
martxoaren 22a. uraren nazioarteko eguna

EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



ingurumena.net
Gure esku dago

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> BERGARA

Eroskik supermarketa zabalduko du Orni dagoen tokian > **25**

> ARETXABALETA

Espedientea zabaldu diote Hierros Bainuetxe enpresari > **32**

> ESKORIATZA

Azkoaga Enea hotela egiteko lanek aurrera segitzen dute > **34**

> ELGETA

Bazkaria eta kontzertua bihar, gaztetxearen 10. urteurrenean > **37**

BERGARA > HILETA MUSULMANA

Ibarreko lehen hileta musulmana egin dute astelehenean Bergaran



HILETA Ordubete pasatxo egin zuen Zubairren gorpuak Ipintzan, eta otoitz labur batekin egin zioten hileta senide eta lagunek.

O.E.

BRIGADAN LANEAN

Ia bederatzi hilabete egin zituen Zubair gazteak Udaleko brigadan lanean

GORPUA HERRIRA

Gorpua Pakistanera eraman dute, hemen ez dagoelako kanposantu musulmanik

MESKITARIK EZ

Meskitarik ez dago eskualdean, eta hori lortzea dute lehen helburu

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Bergarako Ipintza futbol zelaian egin zioten hileta asteburuan hil zen gazte pakistandarrari. Meskitan egiten dituzte hiletak musulmanek, baina Bergaran horrelakorik ez dagoenez, haren lagunek eta senideek ondo ezaugten zuten tokia aukeratu zuten hileta egiteko, Ipintzako futbol zelaia; cricketean jokatzeko elkartzen ziren han sarritan.

Zubair Mohamed gazteak 26 urte zituen eta garun-isuri batetan ondorioz hil zen zapatuan, etxean, Bergaran. Logroñotik, Baratzelonatik, Madrilrildik eta Bilbotik ere etorri ziren lagunak, senideak eta herrikideak haren hiletara, 250 lagun inguru guztira. Sei ilara handi egin zituzten otoitz egiteko, zutik, ortozik, gizonak eta Mecari begira. Udaleko brigada zerbitzuan egiten zuen lan Zubair gazteak, eta lankideak ere hiletan izan ziren. "Oso mutil umila eta langilea zen", gogoratzen dute lankideek. "Ia bederatzi hilabete egin ditu gurekin lanean eta martxoaren bukaeran zuen asmoa Pakistanera joateko, azaroan jaio zitzaien semea ezagutzeko", gaineratu dute.

KANPOSANTU MUSULMANA

Zubairren gorputza Pakistanera eraman dute, han lurperatzeko. "Hango senideak ere zain daude", dio M. Afzal Chohan-ek. "Edozein modutan ere, hemen ezingo genuke lurperatu, ez dagoelako kanposantu musulmanik", azaldu digu Chohan-ek. "Egia esan, hauxe da eskualdean egin dugun lehen hileta musulmana eta ez dakit zer gertatuko den aurrerantzean. Duela urte gutxi beste lagun bat hil zitzaidan eta Bartzelona-

ra eraman zuten hura", dio. Eibarren bizi diren musulmanek nahiiko aurreratuta ei dituzte harremannak Udalarekin kanposantu musulmana egiteko. "Eibar ez dago urrutti, eta han jartzen badute zerbaiz izango da, baina gurako genuke gure eskualdean ere kanposantu musulman bat izan. Edozelan ere, meskita baten beharra handiagoa da", dio Chohan-ek, Oñatin bizi den pakistandarrak: "Guk ere gura dugu gure otoitzak eta hiletak egiteko tokia".

MESKITAREN BEHARRA

Bergaran, Zubiaurre auzoan duten mintzalekuak gela bat dute presstatuta meskita moduan erabiltzeko. "Ramadan sasoian, hantxe egiten ditugu otoitzak, baina txikia da, ez da hileta bat egiteko adina handia", azaldu digu Chohan-ek. "Horregatik aukeratu behar izan genuen beste toki bat Zubairren hileta egiteko". Dio Udalak ez die-tela lokalik uzten meskita moduan erabiltzeko eta aukera bakarra lokal bat erostea dutela. "Horretarako, ordea, ez dugu dirurik. Batzuek lan egiten dugu, baina ez guztiok, eta momentu honetan ez dugu lokal bat erosteko adina diru", diosku.

ELKARTE PAKISTANDARRA SORTZEN

Debagoienean ez ezik, Goierri eta Urolan ere pakistandar asko bizi direla dio Chohan-ek, 400 inguru guztira. Komunitate bat sortu gura dute, eta horretan hasi ziren due-la hiru hilabete. "Pakistandarren izenak batzen ari gara, eta, behin izenak batuta, komunitate bat sortzeko eta erregistratzeko tramiteak hasiko ditugu, legeak eskatzen dituen guztiak. Bihar, zapata, dugu beste bilera bat horretaz berba egiteko", aurreratu digu.



OTOITZA Hiletaren ostean, azken otoitza eta agurra egin zioten lagunek.

O.E.

zerbitzuak**GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapata, 18	Azkoaga	Ferreras 1	943 79 15 15
Domeka, 19	Azkoaga	Iturrioz 17	943 79 19 99
Astelehena, 20	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Martitzena, 21	Irizar	Erguín 11	943 79 12 39
Eguaztena, 22	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Eguena, 23	Español	Araba etorbidea	943 79 18 65
Egubakoitz, 24	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09

BERGARA

Zapata, 18	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Domeka, 19	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Astelehena, 20	Camacho	Otxirondo 4	943 76 11 74
Martitzena, 21	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Eguaztena, 22	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguena, 23	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Egubakoitz, 24	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15

ONATI

Zapata, 18	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Domeka, 19	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehena, 20	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Martitzena, 21	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 22	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 23	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Egubakoitz, 24	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58

ARETXABAleta

Zapata, 18	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 19	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 20	Iturrealde	Belerrieta auzoa 1	943 08 11 43
Martitzena, 21	Iturrealde	Belerrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztena, 22	Iturrealde	Belerrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguena, 23	Iturrealde	Belerrieta auzoa 1	943 08 11 43
Egubakoitz, 24	Iturrealde	Belerrieta auzoa 1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK**((112))
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 78 90 27
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 03 54 30
Udalzainagaok	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

GARRAOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Onati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hildegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	945 76 44 42
Onati.....	943 78 36 67


URBANOAK**URBANOAK****ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterrí, Legarre, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrego, Oñate, Barrenetxea, Makaztena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.	
Gorostizatik Eroskira (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makaztena, Oñate, Legarre, Galizia, Bengoa eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Oñate, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguín A eta Gorostiza.	

ARAMAIKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
07:50	08:05	
08:30	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoentakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia**eguraldia****DEBAGOIENEAN**

kale inuesta

Udaberria gertu dugu; umorea aldatzen dizu?



Sonia Etxenautia
Langabea
Aramaio



Pantxika Ibartzabal
Erretiratua
Leintz Gatzaga



Beñat Mallabia
Langilea
Elgeta



Aitzol Iturbe
Ikaslea
Antzuola



Jesus Eguren
Langilea
Bergara

Bai, nik igartzen dut umore hobearekin nabilela udaberrian. Kalean gehiago egoten naiz, tenperatura hobe da eta esnatzean euria ari dela edo eguzkia dela ikustea desberdina da.

Bai, asko. Eta beti hobearako. Eguna luzatu egiten da, erguzki gehiago ikuszen dugu eta baso eta zelai bazterrek beste kolore eta itxura bat hartzen dute. Horrek biziatsuna eta poztasuna ematen dizkit.

Bai, aldatzen zaigu umorea. Jendea alaiago ibiltzen da eta arropa gutxiagorekin. Giroa berotzearekin jendea kalera irteten da; azken egunotan eguraldi epelagoa egin du, eta igarri da kalean.

Bai, pixka bat bai. Eguraldia aldatzen da eta egunak ere luzatzen direnez, horrek gauza gehiago egiteko aukera ematen digu. Beraz, umorean ere badu bere eragina, eta betiere onerako.

Bai, eguraldi honekin bai, behintzat. Eguzkia irteten hasten denean eta epeltzen hasten denean... gogo handiagoarekin irteten da. Negu gogorra izan da aurtengoa, eta iazkoa ere bai.

txaloak eta txistuak



ENEKO AZKARATE

Candy lantegiaren ingurua negargarri



Bergarako San Martin inguruko auzokoek mezua bidali digute esanaz auzorako sarbidea "negargarri dagoela". Diote zorua zuloz beteta dagoela eta bazterrak paper eta plastikoz beteta. Eta, argazkian ikusten denez, kamino ertzean kamioi piloa daude, bidea oztopatzetan.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

"Demontria"

Okerra, gaiztoa (modu maitekorrean). - Nun sartu ete da gure katakuma demontria.



Marrazkia > Jon Iraegi

asteko datua

8,5

Puntuazio hori eman diote Arrasateko parrokiari. *Novias de Gipuzkoa* aldizkaria Gipuzkoan ezkontzeko hamar lekurrak onenak aztertu eta tartean, Arrasateko parrokia eta Arantzazu sartu ditu. Arantzazuri zazpi bat eman diote.

Eta ia gurean da udaberria... Beraz, pozik bizi!

5 galdera...

Cesareo Loiti

Almacenes Arrasate dendakoa Angiozar

1. Spainiako Gobernuak etxetresna elektrikoak berritzeko *plan renove* iragarri du, energia aurrezteko; eraginkorra izango da?

Bai. Lehengo aparatuak energia kontsumo handia dute. Orain, berriz, aparatu mota berri asko dago eta lehengoan aldean gutxiago kontsumitzen dute.

2. Zein tresna alda daitezke? Zelako ezaugarriekin?

Etxetresna zaharrak alda daitezke. Hozkailuak, garbigailuak eta ontzi-garbigailuak aldatzearren 50 euro emango dituzte eta izozkailuak aldatzearren, berriz, 100 euro. Izozkailuengatik gehiago emango dute beste tresnak baino kutsakorragoak direlako. Daukate poliuretanoa, eta hori oso kutsakorra da. Bestalde, izozkailuek eta hozkailuek gasa erabiltzen dute hotza sortzeko; eta gas hori ere kutsakorra da.

3. Noiz has gaitezke laguntza horiek eskatzen? Noiz arte?


Esaten dutenez, *plan renove* hasiko da datorren ekain edo uztailean. Eta hurrengo urtean ere jarraitzeko asmoa dute.

4. Nora jo behar du herri-tarrak plan horretan sartzeko?

Guregana. Etor dadila eta guk gestionatuko dugu guztia. Guk deskontatuko dizkiogu 50 edo 100 euro horiek. Ez dakit saltoki guztia sartuko diren *plan renove* delakoan; gu, behintzat, bai.

5. Astelehenean, irratian esan dute askok etxetresna elektrikoak bota egiten dituztela apurtuta dau-delakoan, eta kontua dela jende askok ez dakizkiela erabilten. Hala da?

Ez da nik ikusten dudana. Nik esango nuke bi motatako bezeroak daudela: tresnak zatartzen direnean berriak erosten dituztenak dira mota bat; eta etxetresna apurtu arte kentzen ez dutenak dira beste motakoak. Hori, bizitzako gauza guztieta moduan, poltsikoaren arabera izaten da.





ZABALIK Gameiko ateak berriro daude zabal-zabalik eta langileak lanean; hori bai, hemendik aurrera Fagorrendako egingo dute lan.

U.M.

EKONOMIA > GAMEI EZ DUTE ITXIKO

Negoziazio prozesuaren arrakastari esker, Gamei aurrera

Langileek erosi dituzte akziodun txikiak duten %6,78, 96.000 eurotan, gero Fagor Arrasateri emateko

Langileak pozik daude, baina ez erabat, 23 langile lan barik geratuko direlako, kalte ordainak emango dizkiete edo aurre erretirooa

UBANE MADERA > ARRASATE

Gamei ez dute itxiko. Martitzenean jakin genuen albiste pozgarri hori, eta herenegun, eguztena, gauzatu zuten, akziodun txikien akzioak erosi zituzten-eta Gameiko langileek. Hala jakinarazi digu Enpresa batzordeko presidente Iñaki Zabalak.

Beraz, Gamei Fagor Arrasatenen eskuetan geratuko da eta makinak erreminta arloan lanean segituko du, oraingo leku berean.

POZIK, BAINA EZ ERABAT

Horixe da albiste pozgarria. Baina Gameikoak ez daude guztiz pozik, Fagorrekin adostutakoaren arabera Gameiko 55 langile-etatik 23k ezingo dutelako jarraitu. Hala argitu digu Iñaki Zabalak: "Gure poza ez da erabatekoa; nahiz eta adostasuna lortu zenbait

langileri aurre-erretiroak eta kalte ordainak ordaintzeko, langile batzuek ez dakite zein izango den euren etorkizuna. Edozelan ere, onartzen dugu Fagor Arrasatek ahalegin handia egin duela ahalik eta lanpostu gehien mantentzeko eta gainerako langileei

irtenbide ekonomiko duina eskaintzeko. Gainera dezakegu Arrasaten drama sozial bat sainhestea lortu dela eta Gamei Arrasatetik kanpo egongo balitz, Fagor Arrasatek ez zuela ahaleginik egingo hora eskuratzeko, sortu diren arazo guztiengatik".

KONTUAN HARTZEKO

Historia, bi berbatan

Gamei SAK makina-erreminta arloan jardun du sortu zutenetik. Gonzalez, Mendizabal, Etxebarria eta Isasak sortu zuten, 1942an, eta hortik datorkio Gamei izena. Gero, 1953an, Isasak bere partizipazio gainerako hiru baxkideen artean banatu zuen. Bere historian zehar, Gamei behin baino gehiagotan izan da krisian. 1986an eta 1993 eta 94an, erregularizazioak egin zituzten. 1998an, berriz, esportazioan oinarritutako estrategiari ekin zion. Baina garapenean dauden herrialdeen krisi ekonomikoaren eraginez, makina-erreminten arloaren dako urte latzak etorri ziren; hala, 2001-2003an berriro sartu zen krisian Gamei, gaur egunera arte.

INDARKERIA PLANA

Indarkeriari aurre egiteko plana

Hil honetako osoko bilkuran aurkeztuko dute, udalbatzarrak onar dezan

N.Z. / U.M. > ARRASATE
Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako plataformak oso ondo baloratu du indarkeria planerako Arrasaten eindako lana, baina ikusten du oraindik ere gabezia handiak daudela. Hala adierazi du oraingo astean prentsurrekoan. Hori erakusteko adibide batzuk ere eman ditu, esate baterako, datu zehatzik ez dagoela indarkeria kasuen gainean; halako egoeretan jardun behar duten langileek ez dutela hezkuntza bereziturik edo laguntza juridiko eta psikologikoa oso ahula dela.

ESKAERAK UDALARI

Horren guztiaren aurrean, tratu txarren kontrako plana osatzeko eta hobetzeko asmoarekin, indarkeriaren kontrako plataformak zenbait eskaera egin dizkio Udalerri. Hasteko, eskatu diote laguntza ematea beharra duten emakume guztiei, inolako baldintza barik. Eskatu diote, baita ere, Udalak osatu dezlala Diputazioak eskaientzen duen laguntza psikologikoen zerbitzua. Horrez gainera, besteak beste, laguntza juridikoarekin lotutako lehen kontsulta doakoa izan behar dela pentsatzen du indarkeriaren kontrako plataformak.

Bizitokiei dagokienez, Arrasaten berehalako harerra zentroa ezinbestekoa dela uste dute; baina horrez gainera, aldi baterako zentroa ere behar dela pentsatzen dute, bizitzeko toki segururen bat. Eta bestelakoen artean, elkar-gunea ere beharrezkoia ikusiten dute, seme-alaben bisitak egiteko senar-emaizeak elkarzu behar direnerako.

OGARAN jatetxea
Garagartz auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Garagardo ona, giro hobea
TXIRRITA
Taberna
Gesalbar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

ZUBIZARRETA LANTEGIAK
Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

GAK
Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak
Era guztiako garbiketak
• Zuen komunitateko administrazioa
• Konponketa orokorrak
• Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.
Tel.: 653 70 45 47 OÑATI

GIZARTEA > HIRUGARREN MUNDUARI LAGUNTZA

Guatemalan liburutegia zabaldu dute, ibarrean batutakoari esker

Urtarrilean inauguratu zuten, Santa Maria Tzeja komunitatean; horri esker, hango ume askok lehenengo aldiz ikusi dituzte ipuinak

UBANE MADERA > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko hiru ikasleri esker estreinatu dute liburutegia Guatemalako Santa Maria Tzeja komunitatean (Mexikotik ordubetera dago). Ainhoa Uriarte arrasatearrak eta Lorea Undagoitiak (Berriz) eta Ainhoa Gobantesek (Tolosa) lortu dute hori.

Biblioteca Euskal Herria izeña ipini diote liburutegiari.

1.000 LIBURU INGURU

Hain justu ere, MUko ikasleak iazko urtarrilean izan ziren Guatemalan, maisu-maistra ikasketetako praktikak egiten, eta ikusi zuten liburutegi baten beharra zutela han. Hori horrela, Arrasaten, Aretxabaletan eta Oñatin


dirua batzeko kampaina abiarazi eta 6.000 bat euro lortu zituzten.

Orain, diru hori zela erabili duten erakutsi gura dute eta, bide batez, eskerrak eman lagundu duten guztie; bereziki, Arrasate, Aretxabaleta eta Oñati dendarielkarteei, Fagor Industrial eta zozketarako txartelak saltzen ibili zirenei eta dirulaguntza eman zuten guztiei. Hala kontatu digu Guatemalatik etorri berri den Jaione Uriarte arrasatearrak: "Batu zituzten 6.000 euroak ez dira nahikoa izan eraikin berria egiteko, baina han zegoen eraikin bat txukuntzeko bai. Horrez gainera, Guatemalan bertan ere eman dute dirulaguntza". Jaione kontatu digunez, horre-

kin guztiarekin, liburutegirako eraikina txukuntzeaz gainera, liburuak erozi dituzte. Hala, hemendik eramandakoak eta han erositakoak batuta, 1.000 liburu inguruko liburutegia antolatu dute, tartean Euskal Herriaren gaineko liburuekin: "Orain arte han ez zuten ezer. Eskolan irakasleak bakarrak zuen libururen bat. Ondorioz, ume askok orain arte ez dute sekula ipuinik ikusi. Askok marrazten ere ez zekiten, eta orain, liburuei esker, hobetzen dabilta".

JENDE ASKOK ERABILTZEN DU

Jaione kontatu digunez, Tzejako umeek gainera, alboko komunitateetakoek ere erabiltzen dute liburutegia: "Ingurukoak batez ere asteburuetan etortzen dira. Hori ikusita, Ainhoa-eta erabaki dute liburutegia asteburuetan ere zabaltzea, eta astelehen eta egubakoitzetan itxi egiten dute".



UMEAK Adin guztiak erabiltzaileak joaten dira Euskal Herria liburutegira, baina batez ere umeak.

JAIONE URIARTE

BASATI TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

943 711768

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoa
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagariak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
• Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

INGURUMENA > ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Ezker Batuak gaueko eguzki plakak proposatu ditu

U.M. > ARRASATE

Udaleko Ezker Batua taldeak proposamen berezia egin dio Arrasateko Udalari: gauean funtzionatzeko gauza diren eguzki plakak ipintzeko bideragarritasuna aztertzea.

Plaka horiek eguzki plaka arrunten eta beroa sortzeko bonben arteko teknologia mistoa erabiltzen dute. Argindarra lortu baino gehiago, egiten dutena da berotasuna sortu, EBren esanetan, "lortzen dute ura berotzea goian, aipatutako bi teknikak baino bederatzi bider gehiago". Hala, EBk zera dio: "Sistema

hori egokia dela etxeko ura bero-tzeko, etxeko berogailurako edo igerilekurako".

ESTATUAN, HALAKO 300

Ezker Batuak emandako informazioaren arabera, orain Estatuun halako sistema erabiltzen duten 300 instalazio daude eta oso emaitza onak ematen dituzte. Adibide moduan, diote Madrilgo Mesedeetako mojen kongregazio batean lortu dute-la urtean 41.693 euro aurreztea sistema horrekin.

Udalean jakinarazi digute azertuko dutela proposamena.

> INGURUMENA

Arrasateko iraunkortasuna aztertu eta abiarazteko ekimena aurkeztu zuten atzo, eguna

Erreflexio estrategiko partehartzaile eta iraunkorra-ren aurkezpena ziren egitekoak atzo. Iraunkortasunaren bidea zela landu aztertzeko egitasmoa da hori. Udalaren asmoa da gizarteko arlo guztietako ordezkarriak batza taldeka hilean behin eta guztien artean etorkizunari begirako ekintza planak adostea. Alkateak jakinari-digunez, sei hilabetez landuko dute gaia, Juan Gabiña adituaren metodologiarengan arabera. Arrasateko 60 bat lagunek parte hartuko du, helburua delako prozesua zabala eta parte-hartzalea izatea.

> UDALA

Osoko bilkura berezia egingo dute, Egitamu Orokorraren aldaketa aztertzeko

Bi aste barru, martxoari dagokion ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzarrak. Dagoeneko iragarri digute astelehen goizean barik astelehen arratsaldean egingo dutela batzar hori. Horrez gainera, iragarri digute ohiko bilkura baino lehen beste bat egiteko asmoa duela udalbatzarrak; kasu horretan ezohikoa izango da eta gai bakkra izango du: Zerrajera inguruan alokairuzko etxebizitzak eraikitzeko Egitamu Orokorra aldatzeko proposamena. Horren harira, alkateak esan digu negoziazio prozesuan jarraitzen dutela.

> OLANDIXOKO TUNELA

Foru Aldundiak enkantera aterako du Arrasate Mendebaldeko saihesbidearen proiektua

Kontratu horrek 700.000 euroko aurrekontua izango du eta zortzi hilabeteko epea bukatzen. Mendebaldeko saihesbidea 2,1 kilometro luze izango da. Aretxabaleta eta Arrasate arteko mugan hasiko da; besteak beste, biribilgune berria egingo dute Deba ibaaren gaineko zubiaren ondoko bidegurutzean. Horrez gainera, jakin, tunela eraikiko dute, Olandixo mendi zeharkatzeko. 860 metro luze izango da. Lanok 35,4 milioi euroko aurrekontua dute, 2007an hasiko dituzte eta 24 hilabeteko epean bukatuko dituzte.

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIK



Arotz lanak orokorean
• Horma armairuak
• Altzariak • Leihoa • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerlek zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAUKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91 / Fax: 943 76 08 04

AUKERA *Hauspoaren soinua* (goian) eta 40 ezetz lanen pasarte batzuk.

TOPAGUNEAK

Aitor Sarasketaren margolanak Arregin erakusgai

Lerro bertikal eta horizontalen bitartez, geruza eta sakontasunen arteko mugak kolokan jartzet ditu

I.B. > ARRASATE

Arregi galeriak margolari esanguratsuek egindako lanen erakusketa egin jarraitzen du. Azkena Bangladesheko Monir grabatu-egilearena izan zen eta arrakasta handia izan zuen, baina horien aurretik beste asko izan dira.

Egunotan izen handia hartzen dabilen eibartar baten lanak batu ditu. Hain zuzen ere, apirilaren 7ra arte Aitor Sarasketaren lanak egongo dira ikusgai Maalako Errabaleko 8. zenbakian.

Sarasketa gaztea da, baina 90eko hamarkada hasieratik gaur egunera arte izugarrizko lana egin du. Dozenaka erakusketa egin ditu Euskal Herrian eta baita Espanian ere, eta sariak ere dezente jaso ditu. Horien artean, nabarmenena da 1996an Madrilgo BMW Pintura saria irabazi zuela eta 1995ean aipamen berezia jaso zuela lehiaketa beraean.

Horrekin batera, gaur egun bere margolanetako batzuk izen handiko bildumatan batuta daude.

BERTIKAL ETA HORIZONTALAK

Sarasketak margolanetan sakontasunarekin eta geruzekin jokatzen du. Horretarako, lerro bertikal eta horizontalak erabiltzen ditu. Hala erakusten dute Arrasatera eraman dituen lanek. Horrez gain, kolorea da erabiltzen duen beste gai garrantzitsuenetako bat.



Kolorea ezinbesteko da Sarasketaren lanetan.

ÍÑIGO ARREGI

> IKUSKIZUNA

Bihar, zapatua, Kukubiltxok umeendako ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian

Zapatuan Kukubiltxok *Argitxo eta dir-dir* ikuskizuna egingo du, 17:00etan. Umeendako ikuskizuna da. Hain zuzen ere, Kukubiltxokoek uste dute 7 urtetik gorakoek ondo ulertuko dutela, nahiz eta familia giroan ere ikusteko apropsoa izan. Hainbat txotxongilo izango dira protagonista ikuskizunean, eta argi eta itzalekin lagunduta istorio ederra kontatuko dute.

> UMEEN AISIALDIA

Txatxilipurdik 'Larunblai' eta ludoteka ibiltaria egingo ditu zapatuan Seber Altuben eta Usaetxen

Gazteen euskarazko aisialdia lantzen duen Txatxilipurdi elkartea hainbat ekimen antolatu ditu biharko, zapatua. Batetik, Seber Altuben *Larunblai* egingo dute 11:30etik 13:30era. Hain zuzen ere, 5 eta 10 urte arteko gaztetxoendako tailerrak egingo dituzte.

Bestetik, elkarteak Usaetxeko plazan erabiltzen duen lokalean ludoteka ibiltaria egingo dute. 11:00etik 13:30era jolasak eta eskulanak izango dira bihar eta hileko gainerako zapatuetan.

BITTORI

ERRETEGIA

**Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuleta**

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

koki bideragarriagoak dira eta horien bidez esperientzia hartzeaz gain aurrera egin dezakete.

PROIEKZIOAK EGITEKO GAITZA
Zoritzarrez, ez dago film laburren zirkuitua handirik eta orokorrean zinema aretoek ez dute halako lanik proiektatzen. Horrez gain, are eta zailagoa dute euskarra hutsean egindako lanek.



Debagoineneko txirrindularitza

Txirrindulari taldeen GEHIGARRIA martxoaren 20an Asteleheneko Goienkarian

Taldeen argazkiak txirrindulari guztiekin • Erreportajeak • Iritziak

Asteleheneko Goienkaria |
GEHIGARRIAK

Gorde egingo dituzu.

Urtean zehar etxeauan
jasotzeko,
egin zaitez harpidedun.

36€

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik
egubakoitzera,
09:00etatik
18:30era.

ASTELEHENNEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

PILOTA > SAN JUAN TXAPELKETAKO ETA UDABERRI TXAPELKETAKO NEURKETAK

Arrasateko pilotarientzat partidu erabakigarriak gaur eta bihar

Zubizarreta-Agirregabiria eta Jimenez-Bolinaga bikoteek Udaberri Txapelketako finalerdiak izango dituzte, kadete eta gazte mailetan

GOIENKARIA > ARRASATE

San Juan txapelketaren barruan, pilota partiduak izango dira gaur, egubakoitza, Uarkapen, 19:00etan hasita. Lehenbizi, benjamin mailako partiduak jokatuko dira: Larrea II.ak eta Arregik Urrutiarren eta Ortubairen aurka jokatuko dute eta ondoren Garate-Vicen-

te eta Moron II.a-Larrañaga bikoteak izango dira aurrez aurre.

Jarraian, Udaberri Txapelketako finalerdiak jokatuko dira. Kadete mailan, Zubiaurrek eta Agirregabiriak Mundaroko bikotearen aurka neurituko dituzte indarrak. Gazte mailan, berriz, Jimenezek eta Bolina-

gak Elgoibarko bikotea izango dute aurrez aurre.

Gaurko pilota jaialdiari bukeria emateko Aitor Agirrek eta Egoitz Uribarrenek azpeitarren aurka jokatuko dute, senior mailan.

ZAPATUAN BESTE SEI PARTIDU

Bihar, zapatua, San Juan txapelketako partiduak izango dira baita Uarkapen, 16:00etan. Benjamín mailan, Narbaiza eta Gonzalez Urzelairen eta Herreraen aurka; Varelak eta Callejak

Axpe-Perez bikotearen aurka eta, azkenik, Heriz-Martiarena eta Murua-Arsuaga bikoteak aurrez aurre. Alebin mailan, Zabaletak eta Arrazolak Ariñoren eta Barrutiaren aurka jokatuko dute eta infantil mailan beste partidu bat izango da, Larrea I.a-Prieto eta Etxagibel-Urrutia bikoteen artekoa. Udaberri Txapelketako partidu bat ere egongo da, gazte mailan. Zuazubiskarrek eta Ortiz de Mendibilek Zumaiako bikotea hartuko dute.

> FUTBOLA Touringengandik puntu batera jartzeko aukera du Mondrak

Errenterian jokatuko du Gordobil bilen taldeak. Zapatuan 17:00etan izango da neurketa. Azkenaldiko emaitzekin Mondra urrundu egin da goiko postuetatik. Zapatuan irabaziz gero 41 puntu izango lituzkete Arrasatekoek, Touringek baino bat gutxiago.

> ESKUBALOIA Loiun has dezake Ford Mugarrik goiko mailarako hegaldia

Zapatuan hasiko du Arrasatek Euskadiko Txapelketako igoera fasea. Urdanetaren kantxan jokatuko du (17:30). Andoni Arando entrenatzai-learen arabera, Bizkaiko taldea da mailaz igotzeko fabritoetako bat, eurekin eta Donibanerekin batera.



'Urpekaritza bataioa' egin dute Musakolan

Urpekaritzarako gune bilakatu zen aurreko asteburuan Musakolako igerilekua. Eta beste horrenbeste gertatuko da datorren apirilaren 20tik aurrera. Egun horretan, iluntzeko 8etan hasiko da AUKEAk antolatu duen ikastaroa. Bosna saio teoriko eta praktiko (igerileku) izango dira, eta beste lau itsaso zabalean, Getariako portutik itsasontziz aterata. Antolakuntzak jarriko du material pedagogikoa, eta ikastaroa egiteko beharrezko urpekaritza materiala ere bai.

futbitoa zaldibar

EMAITZAK

THC - Abokajarro	7-16
Iluntz - HLB 108.....	7-3
AT Celaya - Lasagabaster	3-6
Tomahawk - Txoponbeiek	1-0
Iriztu Taberna - Irish Pub.....	14-3
Billy & The Cowboys - Dribling.....	---
Saukelu Scream - Aurrera Bolie TMT	1-0
Arrano Taberna - AC Surcos.....	---
Betrayer - Berdes Bremen	12-8
Pippol - Fuxxion	2-6

PARTIDUAK

Martxoak 18, zapatua

12:00 Iluntz - Billy & The C.	Antolakuntza
13:00 Abokajarro - HLB 108	Antolakuntza
16:00 Pippol - Betrayer	Antolakuntza
17:00 Iriztu T - Saukelu S.	Antolakuntza

Martxoak 19, domeka

11:50 Arrano T - Berdes B.	Billy & The C.
13:00 Dribling - Billy & The C.	Arrano T.

SAILKAPENA

	P	J
1. Betrayer.....	34	13
2. Dribling	31	12
3. Lasagabaster.....	28	12
4. Pippol.....	25	13
5. Saukelu Scream	25	13
6. Iriztu Taberna	22	11
7. Fuxxion	22	12
8. Iluntz	21	13
9. AT Celaya.....	21	13
10. Abokajarro	20	12
11. Arrano Taberna.....	18	11
12. AC Surcos.....	15	11
13. Tomahawk.....	15	13
14. Billy & The Cowboys.....	15	12
15. Irish Pub Dublin	15	12
16. HLB 108.....	15	13
17. Aurrera Bolie TMT.....	12	12
18. Berdes Bremen.....	6	12
19. Txoponbeiek	6	13
20. THC.....	0	12

Kopa Txapelketa eta atzeratutako partiduak

Kopa Txapelketako partiduak zapatuan eta Ligakoak, baina atzeratutakoak, domekan, jokatuko dira asteburu honetan. Txoponbeiek eta Aurrera Bolie TMT taldeak ez ziren euren partiduetara agertu. Hori dela-eta, fidantza galduko dute eta sailkapenean sei puntu ere bai, nahiz eta txapelketan jarraitu ahal izango duten.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

kanpotarrak arrasaten

Yuly Mileidy > Tabernaria
Arrasate

"Gauez lapurreta egingo didaten beldur barik ibil naiteke orain"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Yuly Mileidy beldurrak bizi zen Medellinen, hiri-segurtasunik eza zela eta. Orain dela bi aste etorri zen Arrasatera senarrarekin batzen. Eskiña tabernan lanean dihar du, eta datorren urtean euskara ikasten hasiko da.

Yuly Mileidy orain dela oso denbora gutxi heldu zen Arrasatera, martxoaren 3an, hain zuzen ere. Mileidy Medellingoa (Kolonia) da eta senarra Arrasaten bizi da orain dela zazpi bat hilabete. Horregatik, aukera izan zuen bezain pronto, hegazkina hartu eta Arrasatera etorri zen

senarrarekin eta familiakoekin batzera. Izañ ere, dagoeneko familiako 30 lagun daude hemen.

"Arrasatera etortzeko deseatzten nengo. Senarrak eta familiakoek argazkiak eta bideoak bidali dizkide, eta Arrasateren gainean oso ondo berba egiten zidaten".

"Senarra orain dela zazpi hilabete etorri zen Arrasatera, eta orain guztira familiako 30 lagun gaude hemen"



Yuly Mileidy.

Mileidy laborategirako lagun-tzaile ikasketak egiten zebilen Medellinen, eta, horrez gain, sakelako telefonoak konpontzen lan egiten zuen.

Mileidyren esanetan, Kolonbian hiri-segurtasun oso txikia dago eta 23:00etik aurrera ezin da kalera irten ere egin, lapurreta ugari izaten delako. "Hona etorri baino lau egun lehenago, Bogotara joan nintzen bisaren bila, eta autobusean gindoazela kaputxadun batzuek errifleak eskuetan zituztela lapurreta egin ziguten. Oso gogorra da han bizi duguna".

Peña du gurasoak Medellinen daudelako, baina hemen dagoen lasaitasunak eta segurtasunak harritu egin du. "00:00etan lanetik etxera oinez lasai-lasai joatea izugarria da. Hori bai dela bizi maila".

Lana aurkitzeko erraztasun nahiko daudela aitortu digu, eta hemen Kolonbian baino gehiago irabazten duela. Bestalde, datoren urterako badu egitasmoa: euskara ikasi gura du.

bere ustez



Asier Zubizarreta

Deguriako belardietatik ziutatera

Pastore zaharra, Deguriako belardietatik jaitzi zara, ardiekin ziutatera, eta gorotzez estali dira autobideak, espaloia, aurrezki kutxetako alfonbrak. Utzi gaztok inpresora gainean, faborez, pastore zaharra.

Eta bulegariak, begiak malkotan, nokia-motorrolak amatatu eta konfetia jauntzera atera dira aseguru-etxeetako leihotara. Gran Viano dama zaharrek, hunkituta, agur egin dizute gortinen ostetik, enkajezezko zapi

"Bejondeizula, pastore zaharra, larreetako langilea, esnea eta artilea"

zuriak behin eta berriro astinduz.

Exekutibo agresibo hainbat, elkarri bultzaka, musika kontserbatoriorantz abiatu dira arineketan, lehenbailen okarina ikastarora apuntatu guran. Kupoi saltzaile itsuak pozez zoratzen atalataikoan hasi dira, bas-toi zuriak porkulo jaurtita, istripurik ere izan ei da estoldako zuloan jausita.

Kalean behera, Ritz-era heldu da agurea. Hoteloko zuzendariak ongietorri beroa egin dio atarian, hau oho-re. Orain, ardiak jezten dihardu irakurketa saioan, pianistek Choponen baladak jotzen dituzten bitartean. Bejondeizula, pastore zaharra, larreetako langilea, esnea eta artilea, beatus ille qui procul negotiis. Beinke.



ARIZMENDI

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



JARDUN Arrizuriagan egiten dituen ekintzak beste norabait bideratu beharko ditu Jardunek.

EDU MENDIBIL

OBRAK > LIBURUTEGI BERRIA

Liburutegia Arrizuriaga eraikinera eramateko bideari ekin diote

Proiektu teknikoa HF Arquitectos SL enpresak idatziko du, 154.646,56 eurogatik

Arrizuriaga jauregia goitik behera berritu eta barrantolatu beharko dute

UBANE MADERA > BERGARA
Udala hasi da lantzen Udal Liburutegia Arrizuriaga jauregira eramateko proiektua. Joan den asteheneko ezohiko udalbatzarrean onartu zuten egitasmo hori betetzeako proiektu teknikoa idatzeko adjudikazioa. HF Arquitectos enpresak idatziko du, eta lau hilabete ditu horretarako.

Halaber, Udal Liburutegiko arduradunek ere idatziko dute txosten bat, Arrizuriaga jauregia Udal Liburutegiak dituen beharrera zelan egokitu azaltzeko.

GOITIK BEHERA TXUKUNDU
Egitasmoa hasi besterik ez da egin. Hala adierazi digu Hirigintza Saileko buru Joxean Etxeberria zinegotziak. Edozelan ere, jakinarazi digu badakitela Arrizuriaga jauregiaren barruko aldea

barrantolatu egin beharko dute, orain arte jauregi horrek bes-telako erabilera izan dituelako: "Hori guztia egokitutu egin beharko dugu erabilera berriroko; Arrizuriaga lehenago etxea zen eta gero ertzain-etxea izan da; beraz, barruko guztia ordenatu eta berri-tu egin beharko dugu".

Etxeberriak gaineratu digunez, kanpoko aldea ere txukundu beharko dute. Xehetasun batzuk ere eman dizkigu. "Asmoa da Arrizuriagarako sarrera aldatzea eta ipintzea atzoko aldetik; hain zuzen ere, Iparragirre kaletik, oinezko-en bidetik sartzeko moduan".

PARKERIAZIA

Horrekin batera, kontatu digu Arrizuriaga jauregia inguratzen duen parkea ere berrituko dutea: "Beheko aldean etxeak egiten dabilen enpresakoek konponduko dute parkea. Proiektua dagoeneko eginda dago. Asmoa da parke urbanoa egitea, Usondo parkearen moduko zerbaite, ume-ek, gurasoek... erabil dezaten. Horrez gainera, parke barruan dagoen Arregi etxea bota egin behar dugu".

Etxeberriak kontatu digu Udalaren aspaldiko asmoa dela Udal Liburutegia Arrizuriagan kokatzea, besteak beste, Errotalde jauregia, orain liburutegia dagoen lekua txiki eta zahar geratu delako.

LIBURUTEGIAREN ERABILERA

Udal Liburutegiari dagokionez, azken urtean erabiltzaile kopurua dezente handitu dela kontatu digu hango arduradun Mila Agirre-balek: "Urtetik urtera handitzen doa, baina batez ere, euskal Udal Liburutegien Sarean sartu ginenetik igo da". Datuek erakusten dute hori: 2005ean 1.340 mailegu egin zituzten eta 2006ko urtarrilean 2.080 mailegu egin dituzte: "Sistema berriarekin ahalegintzen gara jendeak dituen eskaerak eskuratzeko, eta ondorioz, orain gehiago zabaldutu da liburutegiaren erabilera". Albiste ona da hori, eta Arrizuriaga moduko kokagune berria izateak ere lagunduko du seguru goranzko bide horretan.

OBRAK > ERREPIDEA ZABALDUKO DUTE

Zubieta 3an dagoen etxea botako dute

Udalaren helburua da Bideberriko errepidean bi noranzko egitea

Lehenago ere bota zuten beste etxe bat Zubietan, proiektu hori betetzeko

U.M. > BERGARA
Ahalik eta lasterren botako dute Zubieta kaleko hirugarren zenbakia. Halaxe jakinarazi digute Hirigintza Sairetik. Gaineratu dugunetan, eraiste proiektua dagoeneko eginda dute; BEN Arkitektoak SL enpresak idatzi du eta otsailaren 24an aurkeztu zion Udalarri. Hala, orain etxea botatzeko eta orube hura egokitzeko lanak adjudikatu beharko ditu Udalak. Prozedura negoziatu bidez esleituko ditu, 29.733,32 eurotan.

HILABETEKO EPEA
Eta eskaintzak aurkezteko epea astehenean, hilak 20, bukatuko da. Behin lanak esleitu eta gero, berehala hasiko dira etxea botatzen eta lan horiek egingo

dituenak hilabete izango du bukatzeko. Besteak beste, inguru zirkulazioa eten egin beharko dute tarteka.

ZIRKULAZIO ARAZOAK
Zubieta aldean botako duten bigarren etxea da hori. Izan ere, Zubieta kalea zeharkatzen duen errepidea estu samarra da, eta horrek zirkulazio arazoak eragiten ditu gaur egun. Hori konpontzea da Udalaren asmoa. Hala, Hirigintza Sairetik jakinarazi dugunetan, etxe bota ostein, errepidea zabaldutu eta noranzko bi egin nahi dituzte; izan ere, orain, herri barrura sartzeko errepideak noranzko bakarra dauka. Halaber, Infernukua dagoen bihurgunea ere zabaldutu egingo dute.



Lanak adjudikatu ostein, hilabetean botako dute Zubieta 3ko etxea.

U.M.

Radio Bergara

- Argiztapenean azken modeloak
- Etxetresna elektrikoak
- Opariak



San pedro 25 BERGARA 943 76 19 89



ORMAZBAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

Bizkarreko mina • Bihurrituak
Tendinitisa • Masajeak • Erreuma
Osteopatia
Errehabilitazioa

Telleria 6 bis, 11 bullegoa
Labegarieta ind. BERGARA
Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08
ormazabalfisioterapia@yahoo.es



EROSKI Leizeaga industrialdean Center supermerkatua zabalduko du Eroskik datorren urtean.

ENEKO AZKARATE

ZERBITZUAK > CENTER SUPERMERKATUA

Beste supermerkatu bat zabalduko du Eroskik

Orni enpresa dagoen tokian zabalduko dute, Leizeaga industrialdean; 1.500 metro koadro izango ditu eta jatekoa bakarrik salduko dute

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Eroskik beste supermerkatu bat zabalduko du Leizeaga industrialdean, Orni eta Carpinsa enpresak dauden tokian. Eroskik adierazi digunez, dagoeneko esku du lizenzia komertziala Bergarako Udalean, eta hori lortutakoan hasiko dira proiektua lantzen. Datorren urtean zabaldu gura dute.

Oraindik ez dute supermerkatuaren proiektua egin, baina Eroskik aurreratu du Center supermerkatua zabalduko dutela, aparkaleku eta guzti. 1.500 metro koadro izango ditu eta barruan jatekoa bakarrrik salduko dute, ez beste lako produkturik. Bideberriin egun dagoen Eroski dendak zabalik jarraituko duela ere aurreratu dute; ez dutela denda hori itxi-ko esan dute.

ORNI ETA CARPINSA
Jabier Mendizabal Carpinsa lantegiko jabeak egiaztatu digu Eroskik egin diola eskaintza bere lokala, lantegia, saltzko. "Gure lantegia erosio gura dutela esan digute, baina oraindik ez dugu ezer sinatu. Baldintzak aztertu behar ditu-

DATUA
93
ZERBITZU BEDELKARREN

100 zerbitzu baino gehiago egon dira Bedelkarren, baina kopurua jaitsiz doa; azken urtean sei denda itxi dituzte erdigunean, eta bat ere ez zabaldu. Egun, hiru supermerkatu txiki daude erdigunean.

gu eta beste gauza batzuk lotu; adibidez, nora joango garen pentsatua eta aztertu behar dugu", dio Jabierrek. Orni enpresak ere jaso du lantegia saltzko eskaintza baina ez du ezer gaineratu gura izan. Hala ere, badirudi enpresa biek Bergaran jarraituko dutela, San Juango industriagunea, seguruen.

UDALAREN BAIMENA
Juanjo Arrieta behin-behineko alkateak esan digun moduan, "gune horretan posible da supermerkatua eraikitzea, ez dago arazorik. Erreka doa ondotik eta proiektuan kontuan izan beharko du hori Eroskik, baina bestela, posible da".

BEDELKAR HASERRE
Bedelkar oso haserre dago supermerkatu berri hori jartzeko asmoarekin. "EZ dut ulertzen zergatik ematen duten baimena lur industrialetan zerbitzuak jartzeko", dio Tere Gabilondo Beldelkarreko presidenteak. "Arau subsidiarioak ez dituzte aldatu oraindik".

NEKAZARITZA > MENDI ETA BASOEN USTIAPENA

Krabelin-Aitz alokatu gura dute

Errentariak 100 euroko errenta ordainduko dio urtero Udalari, bost urtez; lehiaketa publiko bidez adjudikatuko dute errenta

O.E.> BERGARA

Elorregi auzoan dagoen Krabelin-Aitz menda errentan eman gura du Udalak abeltzaintzarako. Zaintzeak eta mantentzelanak dituen kostuak kendu gura ditu horrela Udalak, eta lursailaren paisaia irudi egoikia eman. Mendiak 8.205 metro koadro ditu. Errenta bost urteko izango da eta beste bost urteko luzatu ahal izango dute. Errenta da 100 euro urte-

ko gehi KPIaren igoera, eta epea pasatzen denean, errentari edo maizterra Udalari itzuliko dio larrea, egin dituen hobekuntza eta guzti.

Kontrataua lehiaketa ireki bidez adjudikatuko dute. Baldintzak jarri ditu dagoeneko Udalak: errentariak 60.000 euroko poliza bat kontratatu beharko du eta guztiei onartuko die horra heltzeko dauden bideak erabiltzea, besteak beste.

> INGURUGIROA

Ingurumenaren ikuskaritza eta kontrol plana abiaraziko dute herriko lau enpresatan

Ingurumenaren ikuskaritza eta kontrol plana abiaraziko dute herriko lau enpresatan aurten: Industrias Termicas Electroliticas, Candy Hoover etxetresnak, Fegar eta Galvanotecnia y Derivados enpresetan. Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia onartu zuen 2001. urtean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak, eta aurtengo programan sartzen dira Bergarako lau enpresak. Enpresek kutsatzeko duten arriskua zaintzen du plan horrek.

> HEZKUNTZA

Ia 150.000 euroko dirulaguntza emango die Udalak herriko ikastetxeei euren gastuetarako

Ia 150.000 euroko dirulaguntza jasoko dute aurten herriko ikastetxeek euren gastuetarako: 148.427,50 euro, zehazki. Diru kopuru horren erdia oraintxe jasoko dute eta beste erdia udazkenean, irailean edo urrian jasoko dute, euren gastuak aurkezten dituztenean. Udalak emandako dirulaguntza proiektu pedagogiko berriak sortzeko, inbertsioetarako edo mantentze-lan gastuetarako erabiliko dute ikastetxeek.

> UDALTZAINGOA

2004an baino isun eta istripu gehiago gertatu dira 2005ean, baina beherantz doa kopurua

2005eko balorazio txostenak kaleratu du udaltzaingoak. Bertan dio-te 2005ean isun kopurua igo delako %29,91 2004ko datuekin konparatuta eta istripuena %14,5. Hala ere, bai bateko bai besteko kopuruak duela sei urtekoak baino dezente txikiagoak dira. Bergaran 16 udaltzain daude eta 06:00etik 22:00etara dihardute egunero, zapatuetan 14:00ak arte eta domeketan pilotak partida orduan.



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

EDEL
TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundieta

Alfonbrak, kordinak, kordinoiak,
koltxak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatza.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

Mentxu Gal > Margolaria

"Harriak margotzen bizirik iraun genuen amak eta biok erbestean"

IKER BARANDIARAN > BERGARA

Irungo Mentxu Gal margolari ezagunak erakusketa jarri du Aroztegi aretoan. Galek 88 urte ditu, eta ibilbide ikaragarria du margolarietan. Aspaldian alfertuta dabilela dio, baina tarteka irteten da paisaiak margotzera.

Gerran errefuxiatuta egon zinen. Urte oso zailak izan ziren, ezta?

Bai. Sasoi baten, amak eta biok jatekoa lortzeko errekkako harriak margotu eta saldu egiten nituen. Horrez gain, Tardech-eko (Biarno) udaletxean mural erraldoi bat egiteko enkargua egin zidaten. Orain dela gutxi kendu dutela esan didate.

Gerra ostean, Parisera joan zinen pintura ikastera...

13 bat urte nituen eta gaztegia nintzen halako eskolak jasotzea. Ikasgelako gazteena nintzen. Bi urte geroago joanez gero, eskolei etekin handiagoa aterako niekeen. Bestalde, Mathieu-en lana deskubritu nuen eta ikaragarri gustatu zitzaidan.

Oso irakasle zorrotzak izan zenituen, ezta?

Amedee Ozenfant zuen izena irakasleak eta militar baten antzezka zen. Ez zigun kolorerik era-biltzen uzten, eta nik hori gorroto nuen, koloreak niretako ezin-bestekoak direlako.

Are gehiago, zuk ez duzu margotzerakoan aurretik zirriborrak egiten...

Ez, nik beti zuzenean kolorearekin margotzen dut. Lehenengo lumatxoz-edo margotuko banu lerro horiek jarraitu beharko nituzke, eta ez dut hori gura.

Madrilera jo zenuen margolari lanbidea hartzeko...

Familiarekin joan nintzen. Irunen gelditu izan banitz, ez nukeen nire burua ezagutzen emango. Lan handia egin nuen

horretarako. Gero, zappi lagunekin batera Madrilgo Eskola sortu genuen. Oso urte onak izen ziren.

Zer eman eta zer kendu dizu margolaritzak?

Bizi izateko poztasuna eta bizimodu eman dit. Kendu didana da umeak edukitzea. Sasoi baten damutu nintzen umerik ez edukitzearaz, baina margotzeak denbora luzea kentzen du, luzeegia, eta ez dut umeak zaintzeko denbora nahikorik izan.

Zelan hartu zenuen Aldundiak eskainitako urteko gipuzkoarraren domina?

Oso pozik. 1960an Espaniako domina eman zidaten, baina ilusio handiagoarekin hartu nuen Gipuzkoakoa.

Zer lan eraman dituzu Aroztegi aretorak?

Nire ibilbidean egindako 30 bat lan batu ditut han. Ia erakusketa antologikoa da. Irungo eta Gaztela aldeko hainbat paisaia daude, baita amaren eta Suitzako modelo baten erretratuak ere. Lan horietako asko Irunen nire omenez egiten dabiltsan museoan jarriko ditugu.

"5 urterekin Bergarako mojetan ibili nintzen, jatun txarra nintzelako"

"Orain dela urte gutxi arte oso emakume gutxik margotzen zuten"



Ekimen handiko emakumea da Mentxu Gal.

DANI BLANCO/ARGIA

KONTZERTUA > BIHAR (ZAPATUA) EGINGO DUTE, ESPALOIAN

Orkestra Sinfonikoak emanaldia Elgetan

Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzendutako orkestrak jende ugari batuko du Espaloian

I.B. > BERGARA
Bihar, zapatua, Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua egingo du Elgetako Espaloia kafe antzokian, 22:30ean. Bergarako Orkestrak izen handia da, eta seguru aski bete egingo du Espaloia.

Alfredo Gonzalez Chirlaque da zuzendaria eta gaur egun 73 musikarik dihardute taldean.



GAZTEAK Musikarietako asko gazteak dira, baina ibilbide luzea dute.

Elgetako emanaldian doinu ezagunak entzuteko aukera izango da. Besteak beste, Chirlaquek berak idatzitako *Elgetako ereseria* interpretatuko dute, eta baita honako piezak ere: *La Bella Galathea*, *Danza ritual del fuego*, *Carpenters eta Deliver us*, besteak beste.

ESKARMENTUDUN GAZTEAK

Orkestra Sinfonikoa 1985ean sortu zuten eta dagoeneko ibilbide arrakastatsua egin du. Konposatzaile klasiko askoren piezak interpretatu dituzte, baina musikarietako asko oso gazteak direnez, *Cats*, *El fantasma de la opera* eta gaur egungo bestelako lanak ere eskaintzen dituzte.

**> JAIAK
Mendekosteetako koadrilen eguna prestatzeko bazzarra**

Azken asteotan jai usaina igartzen da Bergarako kaleetan. Aurreko asteetan Bidebarrietako kontzertuen eta horma-irudiaren lehiaketen berri eman genizuen. Oraingoan, beste deialdi bat dakarkigu. Eguenerako, hilaren 23rako, Mendekoste jaietako koadrilen eguna antolatzeko bazzarra deitu dute. Kultura etxearen egindo dute, 19:00etan, eta koadrila eta herritar guztiak daude gonditutu esku hartzera.

Antolatzaileek eskatu dute koadrilek edo bestelakoek koadrilen egunean egin gura dituzten ekitaldien gainerako ideiak edo informazioa bazzarrera eramateko.



www.clinicarecalde.com

MOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

DIGITAL+ ESKAITZA BEREZIA

2

HILABETE DOAN

BONOA Ligako edozein jardunaldi
FUTBOLA + (ikusteko ordaindu PPV)

BONOA 5 filma hilean
ZINEA + (ikusteko ordaindu PPV)

0

€
ALTA
KUOTA

0

€
ANTENA
ETA INSTALAZIOA

6

HILABETE
ERDI
PREZIOAN

Zaiatzko Telekomunikazioak

Telesforo Aranzadi 3 BERGARA
943 76 10 66

Aprobetxatu orain

hilean **12,30 €**-tik aurrera

UGARTE

AROZTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoa
- Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAOKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91 / Faxa: 943 76 08 04

GIMNASIA ERRITMIKOA > SAIOAK GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Gipuzkoako eskola arteko txapelketa bihar Labegaraietan

Ariznoa taldea ordezkatz, 19 gimnastak hartuko dute parte zapatuko txapelketan

EDU MENDIBIL> BERGARA

Ariznoako gimnastak Gipuzkoako eskola arteko txapelketan lehiatuko dira bihar, zapatua, kirolegian. Goizeko saioa 11:00etan hasiko da eta arratsaldeko, berriz, 16:30ean.

Ariznoa ordezkatz, 19 gimnastak hartuko dute parte. Alebin eta infantil mailako hainbat gimnastaz gain, gazte mailakoek bakarka hartuko dute parte: Virginia Odriozolak, Sarai Ruiz, Izargi Vegak eta Usue Arregik, hain zuzen ere. Sonia Corredera Ariznoako entrena-tzailea itxaropentsu dago bihar-ko txapelketari begira.

dain, Ainhoa Martinez eta Olatz Ugalde, eta kadete mailako taldean Oihane Agirre, Saioa Ugarte-buru, Itxaso Garmendia, Ainize Lizarralde eta Olaia Gastian.

GAZTE MAILAKOAK, BAKARKA

Alebin eta infantil mailako hainbat gimnastaz gain, gazte mailakoek bakarka hartuko dute parte: Virginia Odriozolak, Sarai Ruiz, Izargi Vegak eta Usue Arregik, hain zuzen ere. Sonia Corredera Ariznoako entrena-tzailea itxaropentsu dago bihar-ko txapelketari begira.



MAILA ONEAN Ariznoakoek sasoi betean direla erakutsi dute aurten. GOIENKARIA



Gipuzkoako Txapelketan, Shotokan aurrean

Eskola Kiroleko Karate Txapelketa jokatu zen domekan Aretxabaletan. Shotokan taldekoak bikain aritu ziren: alebin mailan, Haizea Iñarra izan zen txapelduna eta Jone Agirrezabal 4.a, eta mutiletan Jon Urkia izan zen lehena eta Xabier Iñurrieta 3. postua eskuratu zuen; kumitetan, infantil mailan, Mikel Aginagalde eta Eneko Cruz 3. tokian sailkatu ziren 40 kilotik azpikoetan; 45 kilotik beherakoetan Julen Arana 2.a izan zen eta 50 kilotik beherakoetan Markel Lopezek bigarren postua eskuratu zuen.

Ganbara
TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Irrintzi
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26



Iabegaraieta

EMAITZAK

Mongatxurra-Teatekh	5-5
Komando Piperrak-Agirrebeña	9-7
Guri Guri-Paco Cia	5-2
All Blacks-Egurre	10-0
Kalaveras-Erotagain	6-2
Pub Irish-A Ze Flaxa	3-5
Fit Automocion - Santana Rivers	5-9
Iribide-Paco Cia	4-4
Guri Guri-Txakurra	4-2
All Blacks-Agirrebeña	7-4
Egurre-Makanaki	1-3
SDTNT-teatekh	1-8

PARTIDUAK

Martxoak 19, domeka (kanpoa)

11:30 Errrotagain-Pirulotarrak	Makanaki
12:30 Iribide-Makanaki	Pirulotarrak
18:00 Egurre-Txakurra	Komando P.
19:00 Komando P.-All Blacks	Egurre

Martxoak 19, domeka (barruan)

16:00 Belengua-Guri Guri	Fit Autom.
17:00 Fit Autom.-Kalaveras	Belengua
18:00 Agirrebeña-Niu Tim	Teatekh
19:00 Teatekh-A Ze Flaxa	Niu Tim
19:00 Mongatxurra-Pub Irish	A Ze Flaxa

SAILKAPENA

P J

1. Alls Blacks	54	18
2. Kalaveras.....	45	18
3. Teatekh	42	20
4. Agirrebeña	39	19
5. Errrotagain.....	39	17
6. Mongatxurra.....	38	19
7. A Ze Flaxa	37	18
8. Makanaki.....	31	17
9. Pub Irish	28	19
10. Niu Tim	27	18
11. Komando Piperrak.....	24	18
12. Pirulotarrak.....	24	17
13. Santana Rivers	23	18
14. Paco Cia.....	22	19
15. Egurre	19	17
16. Belengua Taberna.....	16	17
17. Guri Guri	13	17
18. SDTNT	12	19
19. Iribide Jatetxea	11	17
20. Fit Automotion	6	18
21. Txakurra.....	3	18

Federatu bat izateagatik Guri Guri zigortu dute

Antolatzaileek argi eta garbi utzi zuten futbolean edo areto futbolean dabiltsan kirolari federatuak ezin dutela txapelketan parte hartu. Guri Guri taldeko Mikel Leon kirolari federatua da eta hori dela eta zigortu egin dute antolatzaileek Guri Guri. Sailkapeneko bigarren postuan egotekit 17. tokira jaitsi da. Mikel Leon jokatutako partidu guztiak galduztat eman dizkiote, 3-0 emaitzarekin. Bestalde, aurrerantzean ezin izango da partidurik atzeratu, liga amaitzeko jardunaldi gutxi geratzen direlako.

mingainari tiraka

Javier Estella > Ortopeda

"Moda aldakorra da, baina oinak ez"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Farmazia eta ortopedia ditu Jabier Estellak. Iza-tez iruindarra, Eibarren hainbat urte egin ostean gaur egun Bergaran dihardu. Oinak lurrean dituela erakutsi digu, erantzunak zuzen eta zorrotz emanda.

Oinak zaintzeko modurik onena?

Oinetako eta galtzerdi egokiak erabil-teza; eta oinak garbitu ostean, ongi lehor-tzea onddorik ez sortzeko.

Usain txarrarentako erremediorik?

Ondo garbitu ostean hauts bereziak ematea; oinak lehor mantentzeaz gain usain goxoa emango dute.

Zein bidaliko zenuke ostikada batez dendatik kanpora?

Errespetuz jokatzen ez duen edonor.

Nora iritsi nahi zenuke pausoza pauso?

Nora iritsi nahi dudan ez dakit, baina argi daukat ez dudala gelditu nahi. Farmaziatik ortopediara pasa ginen, eta aurrera-pausoak beti dira onak.



Oinetarako ez ezik bestelako irtenbideak ere baditzue zuenean, ezta?

Ortopedia oinekin lotzen da askotan, baina bizkarrezurrerako, belaunetarako... ere badauzkagu gauzak. Mugikortasuna hobetzeko gailuak ere baditugu. Gainera, gurea farmazia ere bada, eta, besteak beste, kosmetikako gauzak egiten ditugu bertan.

Iruindarra izanda entzierroan egin duzu inoiz korrika?

Bai, behin bakarrik. Entzierroan korrika egiteko hanka onak, ibilbidea jakitea eta zezenak nola portatzen diren jakitea beharrezkoa da.

Nolako oina, halako zapata, dio esaerak. Zuk nolakoak erabiltzen dituzu?

Erosoak, zabalak eta arinak. Modakoak badira ongi, baina ez zait axola. Moda aldatu egiten da, baina oina ez.

Nolakoak ez dira erabili behar?

Takoi oso altuak dituztenak; puntan estuak direnak; eta material sintetikoz eginak. Oinaren kalterako dira.

bere ustez



Unai Lopez

Iparrorratza eskuan hartuta

D onostiako elizbarrutia berregituratze lanetan murgildu da. Krisialdian dagoen elizak hausnarketa prozesu sakon eta berri-tzaile bati ekin dio egungo bere egoerari erantzuteko. Eliza Katolikoa aurrez kinka larrian ibilitako dela aipatuko duenik ez da faltako, eta ez dabil oker. Hala ere, egungo eskenatokia bestelakoa da: Elizak hutsik, gizaldi berriek testiguari uko egin, hitz batean, iraupenerako osagaiak galtzear.

"Krisialdian dagoen elizak hausnarketa prozesu sakon eta berritzaile bati ekin dio "

Bada itxaropenerako izpi-en bat halaber. Azken urteotako eliza eta erlijiotasuna ezberdintzeko joerak, bigarrengoa hau askatu eta komple-xurik gabe hazteko aukera bermatu du. Gaurko giza erlijiotasuna puruagoa dela ezin ukatu, nahiz zerbaitean edo norbaitengan sinistu, nahiz sinesgabea izan, norbere askatasunetik egindako aukera bihurtu da. Honek guztiz argitu ditu norbanakoaren ideal eta irizpideak; erabakia norberarenarena da, erlijiotasuna erreala goa da, garbia-goa.

Askatasuna eskuratu da, jazarpen eta beldurrak uxatu. Askatasun honetatik era-karri beharko du gizakia etorkizuneko elizak, iparrorratza norabide egokian zuzendurik barne hausnarketan dabilena konbentzitzut.

txutxumutxua



GOIATZ ARANA

ETXEBERRIÀ

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txa-ri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93




Fino

Gizonezkoen
ile apaindegia

Ezkon-bidaian goaz!
*Martxoaren 23tik apirilaren 17 arte
ile apaindegia itxita egongo da*

Durana 19 • Aretxabaleta
Tel.: 666 264 886



SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN
**Gabiriako
Rallysprint-a**

Zapatuan, martxoaren 18an
14:45ean

Domekan, martxoaren 19an
17:15ean



Ikustekoa!



Teilatua konpontzeko
eskatuko dio
hitzarmenean, eraikina
jausi ez dadin

Tubos de Precision S.
Coop. enpresako
langileek egingo dute
alde lehenengo

XX. mende hasierakoa
da, eta arkitektura
aldetik interesa duten
eraikinen artean dauka
Jaurlaritzak

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Tubos de Precision kooperativa
elkarteko bulegoak kokatuta dauen
eraikina konpondu gura du
Udalak. Horretarako hitzarmena
sinatuko du jabearekin, Ortubos
SL enpresarekin.

EGOERA ESKASEAN
Astelehenean egindako ohiko
osoko bilkurak, Ortubos SL
enpresarekin hitzarmena sina-
tzeko ahalmena eman zion alka-
teari udalbatzarrak. Hitzarmen
horretan, eraikinaren teilatua
konpontzeko eskatuko dio Uda-
lak jabeari; izan ere, oso honda-
tuta dauka, eta euria egiten due-
nean ura sartzen zaionez, jaus-
teko arriskua ere bauka.

Bulegoak kokatuta dauen
eraikina XX. mende hasierakoa
da. Vergara, Jauregi, Resusta y
Cia izeneko lantegia izan zen, eta
arkitektura aldetik interesa duten
eraikinen artean dago, hau da,
kultura interesa duelako propo-
satua. Udaleko Hirigintza ardu-
radunen esanetan, arteari baino
gehiago industriari dagokion inte-
resa dauka eraikinak, XX. men-
de hasierako herriko industria-
ren sorreraren aztarna delako.

LANAK AURTEN
Eraikinaren jabea Ortubos SL
bada ere, bertan lanean dabile-
na Tubos de Precision koopera-
tiba elkartea da. 2003ko otsailen
sortu zuten kooperatiba hain-
bat langilek, eta hurrengo hiru
urteetan lantegian bertan jardu-
teko hitzarmena sinatu zuten.
Hiru urteok pasatu dira, eta hain-

HIRIGINTZA > TUBOS LANTEGIKO BULEGOAK DAUDEN ERAIKINA

Hitzarmena egingo du Udalak Tubos eraikina konpontzeke



HITZARMENA Teilatua konpontzeko eskatuko dio Udalak Ortubos SL enpresari, eta hark inoiz lurrik salduko balitu Udalari emango lioke eraikina.

M.A.

Vergara, Jauregi, Resusta y Cia

XX. mende hasierakoa da Aretxabaletako iparraldeko sarreran dagoen lantegia. Vergara, Jauregi, Resusta y Cia izena zeukan lehenengo lantegiak, eta gure herrian sarrailagintzak indarra hartu aurreko da. Goitik begiratuz gero gurutze itxura dauka hasierako eraikinak, nahiz eta itxura hori galdua izan, gerora gela berriak eraiki zizkiotako. Eusko Jaurlaritzak arkitektura aldetik interesa duten eraikinen zerren- dan sartu zuen, eta kultura interesa dutenen artean proposatua dago.

Hasierako industria jarduera aldatzten joan zen lantegian eta Tubos de Precision SA sortu zutenean tutuak egiten hasi ziren. 50 urte baino gehiagoan egin dituzte tutuak. 2002an jabeek itxi egin gura zuten lantegia, baina sei langileren artean kooperatiba sortu eta aurrera jarraitu zuten. Kooperatibako langileek egoitza berria aurkitu dute, eta lantegia hutsik geratuko da laster.

bat eratako tutuak egiten dituen
enpresak laster alde egingo du,
hitzarmenak esandako moduan.

Udalak aurten konpondu gura
du teilatua, eta lanok urteko lehe-
nengo hiruhilabetean hasi gura
zituen. Hala ere, langileek alde
egin aurretik ezin dituzte hasi kon-
ponketa lanak, eta bitartean, Ortubos
SL proiektua egiten dabil.
Bukatukoan Udalari aurkeztuko
dio, hark oniritzia emateko.
Hitzarmenak dioenaren arabera,
teilatuaren berritzte lanen kostua
jabeak hartuko du. Aurrerago,
etxebizitzak eginez gero lurrotan
Udalak hartzen duen aprobetxa-

menduaren %10etik jasoko luke
jabeak berritzearren ordaina.
"Horretarako, baina, Ortubosek
eraikina Udalari eman beharko
lioke", esan zuen alkateak; "eta
badaukagu oniritzia".

Udaleko Hirigintza Sailean ez
dakite jabeak zer egingo duen lan-
tegiarekin oraingo langileek alde
egindakoan, ezta zer egingo duen
Udalak konpondutako eraikina-
rekin ere. "Helburua da ez jaus-
tea, eta horretarako teilatua eta
hormak ondo behar ditu; barrualdeari
ez diogu garantzirik eman,
ez dakigulako zertarako izango
den", diote Hirigintza Sailean.

propaganda
kartelak
kartak
jai egitarauak
pegatinak
liburuak
etiketak
txartelak
errekordatorioak
gonbidapenak
errebistik
inprimakiak



1979 urtetik
zure zerbitzura

EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com



ZIKINKERIA Horma jausi eta zikinka handia dagoelako pilatuta erreka ertzean zabaldu dio zigor espedientea Udalak. M.A.

HIRIGINTZA > ZIGOR ESPEDIENTEA HIERROS BAINUETXE LANTEGIARI

Ibai ertzean jausitako hormagatik espedientea

Martxoaren 3an zabaldu zion espedientea Udalak, eta 15 egun dauzka lantegi bazterrak txukundu eta horma berria egiteko ibai ertzean

M.A. > ARETXABAleta

Zigor espedientea zabaldu dio Udalak Hierros Bainuetxe lantegiari, ibai ertzeko horma jausita eta ingurua txatarraz josita daukalako. Txukuntzeko epea jarri dio, eta aste honetan bertan bukatuko da. Ondoren isuna jar diezaiok Udalak.

HORMA JAUSITA

Herriko hegoaldeko sarreran dago Hierros Bainuetxe lantegia, Deba ibaiaren ertzean. Edukiontzia eta txatarrairekin egiten dute lan bertan, eta azkenaldian txatarra asko pilatu du ibaiaren ertzean. Harrizko horma zegoen bertan, baina pisuak eraginda edo beste arrazoi batzuk tarteko hormaren zati handi batek behera egin du, eta orain zuhaitzek eusaten diote pilatutako txatarra.

Hori ikusita, iazko azaro inguruhan horma berriro eraikitzeko eskatu zien Udalak lantegiko arduradunei, baina 2006ko martxoan oraindik eraiki barik dago. Horren aurrean, lantegiari espedientea zabaltza eraabaki zuen Udalak, eta halaxe egin zuen martxoaren 3an. 15 eguneko epea dauka orain horma eraiki eta ingurua txukuntzeko, eta aste honetan bertan bukatuko da aipatutako epea.

Tarte honetan alegazioak aurkezteko aukera ere badaukate lantegiaren arduradunek, eta halaxe egin dute. Euren esanetan, panel bitartez itxi gura dute jausitako hormaren zatia, eta panelek oraindik ez dituzte jaso. Horregatik atzeratu dira hormaren konponketa lanak, eta epea luzatzeko eskatu diote Udalari.

Orain, nahiz eta epe luzapeña eskatu, Gobernu batzordeak erabaki beharko du isuna jarri edo ez, eta zenbatekoa. Udaleko idatzariaren esanetan, 300 eta 24.000 euro arteko isuna izango da, eta horren berri jakinaraziko diote Hierros Bainuetxeko jabeari isunarekin joan aurretik.

LEHEN ERE ISUNAK JASOTAKOA

Hierros Bainuetxek lehen ere izan ditu zigor espedienteak zabalik, eta isunak ere jaso ditu. Orain urte pare bateko kontuak izango dira, eta orduan kamioiak eta edukiontzia behar ez ziren lekuetan uzteagatik jaso zituen isunok.

Udalak, bestalde, orain arte ez dizkio dirutan kobra tu aipatutako isunak. Horren ordez, bere zerbitzuak erabili ostean deskontua egin izan dio. Udalak ez dauka inor kobra tu lanok egiteko, baina aurtengo aurrekontuetan sartu dute lanpostu berria, eta behar boda laster izango du horretarako langilea.

TABAKOA > ERRETZEARI UZTEKO IKASTAROA

Erretzeari uzteko ikastaroa egingo du Udalak apirilean

Hurrengo bi asteotan eman behar da izena, eta oraingoan Udalak ez du diruz lagunduko

Allen Carr's Easyway taldeak bideratuko du, eta dagoeneko 5. aldiz egingo dute

M.A.> ARETXABAleta
Erretzeari uzteko ikastaroa antolatu du Udalak herritarrendako. Saio bakarra egingo dute, apirilaren 7an, baina izena orain eman behar da, martxoaren 20tik 31ra, udaletxeko Prebentzio Zerbitzuan.

SAIO BAKARRA

Dagoeneko bosgarren aldiz egingo dute Aretxabaletan erretzeari uzteko ikastaroa Udalak antolatuta. Allen Carr's Easyway taldeak bideratu du aurrekoetan, eta oraingoan ere halaxe izango da. Saio bakarra egiten dute, sei ordu inguruko, eta ondoren errefortzu saioak

eskaintzen dizkiete interesatuei. 290 euro balio du saio bakar horrek, eta aurrekoetan Udalak diruz lagundi badu ere, oraingoan ez da hala izango. Hori bai, saioa egin eta bi hilabete pasatu aurretik erretzen hasiz gero ordaindutako dirua itzultzera konprometitzen da ikastaroa emailea.

ERA POSITIBOAN

Allen Carr's Easyway taldeak erabilitzen duen metodologia oso samurra da: erretzearen arrazoiak aztertu lehenengo, eta ondoren ez erretzearen onurak azpimarratu. Era positiboan motibatzea dute oinarri, eta horregatik behin eta berri aipatuko dute zein zoriontsu bizi daitzeen erre barik. Erretzeari uzteko ikastaroaren artean arrakastatsuena da Udalak dakarrena, %70ek uztzen dute-eta.

Udalak antolatzen duen bosgarren saioa izango da, eta Prebentzio Zerbitzuko Myriam Beltran de Herediaren esanetan, Aretxabaletan ikastaroa egin dutenen erdiak baino gehiagok utzi dio erretzeari. Azken hori apirilaren 7an izango da, egubakoitza, 15:00etatik 21:00etara bitartean, udaletxeko ganbaran.

> POLITIKA


Berbaldia egingo du Joseba Egibarrek bizi dugun egoera politikoaren inguruan gaur, 19:30ean

Hainbat berbaldi antolatu ditu datozen asteotarako Aretxabaletako EAJk. Lehenengo GBBko bozeramaile Joseba Egibarrek egingo du, gaur, 19:30ean, Kurtzebarri eskolako aretoan. Bizi dugun egoera politikoa izango du berbagai Josebak, eta herritar guztiak gonbidatu gura dituzte EAJko kideek.

Datorren hilabete hasieran EAJko presidente Josu Jon Imaz etorriko da, eta aurrerago Xabier Artzalluz ekartzeko asmoa daukate.



Joseba Egibar.



Bai, nahi dut.

Ezkontzen gaineko gehigarria, martxoaren 24an, egubakoitza, Goienkariarekin batera

Etxe hauen laguntzarekin: Mendigoia hotela • Iker sukaldak • Jean Louis David ile paindegia • Bea lentzeria • Gemes estetika zentroa • Azul de rizos ile apaidegia • Etxe-aundi jatetxea • Guztiz Eder estetika zentroa • Urkan Irudi Komunikazioa • Lasagabaster • Iparproject • Tamayo • Zubia txitiegia • Gure ametsa jatetxea • Imanol bodas y eventos • Maya jantzidenda • Miren Arrieta • Hotel Mondragon • Eguzkitza landetxea • Makatzeta jatetxea • Lasai jatetxea • Sofa-leku • Corte Blanco • Kanela dekorazioa

Goienkaria

KIROLA > BUKATU DA XAKE DENBORALDIA

Mailari eutsi dio Arlutz taldeak

Zapatuan bukatu zen xake denboraldia, eta Arlutz Xake taldea, berriz ere, ohorezko mailan geratu da

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Denboraldi gogorra jokatu dute ohorezko mailako xakelariekin; izan ere, Euskal Herriko hamar talde onenak daude. Euren artean Arlutz xake taldeak jardun du, eta azken partidan bada ere, mailari eustea lortu du beste behin.

BI PUNTU AZKEN PARTIDAN

Joan zen zapatuan jokatu zuten denboraldiko azken partida, eta aretxabaletarrek Iruñeko Orviña taldearen bisita jaso zuten etxeen. Puntu eta erdi lortu behar zuen Arlutzek mailari eusteko, eta partidaren garrantziaz jabetuta-edo oso ondo jokatu zuten



IRABAZTEA merezi izan zuten aretxabaletarrek zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

etxekoek. Bina egin zuten azkenean, eta, hain zuzen ere, sailkapenean bigarren postuan geratu den Orvinako jokalariek onartu zuten zorte handia izan zutela bi puntuok lortzen.

DENBORALDI GOGORRA

Txapeldunari dagokionez ez da ezustekorik egon, Donostiako Gros taldea nagusitu da, oso samur nagusitu ere. Lehen mailara jaitsi direnen artean hiru talde daude: Bilboko Rey Ardid eta Gasteizko San Viator eta Ruta de Europa. "Gero eta denboraldi gogorrakoak dira", aitorrtu digu Arlutzeko jokalari Aitor Alcaidek. "Beti ibiltzen gara larri, baina azken partidan mailari eustea lortu izan dugu". Aretxabaletarrek, baina, meritu bikoitzak daukate: batetik, lau jokalari baino ez izatea taldean, eta bestetik, aretxabaletarrak izatea laurak. Badakite bizirik irauten, eta ahal duten artean ohorezko mailan jarraitzeko asmoa daukate.

> KIROLAK
Olinpiadak egingo dituzte kirol etxeen apirilaren 1ean

Goiena Sport taldeak olinpiadak eta sagardotegira irteera antolatu ditu apirilaren 1erako. 10:00etan hasita badmintona, hockeya eta herri kirolak egingo dituzte kirol etxeen. 13:00etan autobusa hartuko dute Hernaniko sagardotegi batera joateko. Kirol etxeko jardueran dabiltzan kirolariendako zein interesa duten herritarrendako dago zabalk. Izena emateko epea martxoaren 23an bukatuko da. 50 euro balio du irteerak eta izena ematerakoan ordaindu behar da.

> LITERATURA
Literatura astea Kurtzebarri eskolan datorren astean

Literaturaren gaineko astea antolatu dute Kurtzebarri eskolan martxoaren 20tik 23ra bitartean. Astelehenean bertan, Maite Franko ipuin kontalariak saioa eskainiko die eskolako txikienei. Eguenean, hilak 23, ostera, Patxi Zubizarreta idazleak Lehen Hezkuntzako 1. eta 3. ziklokoekin jardungo du solasean. Eguenean, gainera, XVI. Ira-kur Maratoia egingo dute. Literatura asteak iraun bitartean ikasleek egindako lanak egongo dira ikusgai.

> DANTZA
Gasteizen egingo dute dantzan bihar herriko umeek

Leizarra musika eskolan Aitor Villarreal irakaslearen esanetara dabiltzan 60 bat gaztetxo Gasteizera joango dira bihar dantza erakustaldia egitera. 9 eta 15 urte bitarteko neska-mutikoak dira, eta 18:30ean egingo dute dantzan Lakua O3 gizarte etxeko Federico Garcia Lorca aretoan. 12 dantza egingo dituzte, euren artean Aitorrek berak asmatutako *Leizarra dantza*. Guraso eta senide asko hurreratuko da Aretxabaletatik.



M.A.

Intsusako ukendua egin dute asteo sendabelar ikastarokoek

Sendabelaren gaineko ikastaroa ematen dabil Zorion Insausti ordiziarrak gurean, Loramendi EEK antolatutakoa. 20 lagunetik gora ez zituela gura saioetan esan zuen irakasleak, eta hainbat herritarrek kanpoan geratu behar izan dute. Fruta likorea, desodorante naturala eta hazkuna belarrekin tintura gertatzen ikasi zuten lehen saioan. Aste honetan, ostera, azalerako ezin hobea den intsusako ukendua egin dute astelehena eta martxetako bitartean. Martxoaren 6an hasita, astelehenero izaten dituzte saioak, eta maiatzaren 15ean bukatuko dute.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

SANER

ITURGINTZA

Selaikua baseria
Apotzaga auzoa
ESKORIATZA
605 71 66 92 / 943 71 52 51

PIENSOS
SUNZUE s.a.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behe
ARETXABAleta
Tel.943 77 00 33/79 42 56

ELKARTASUNA > SAHARAKO UMEEI HARRERA

Saharar umeei laguntzeko dei egin dute

Uztailletik irailera bitartean bi hilabetez Saharako umeak etxean hartzeko familiak behar dituzte, hangoei laguntzeko

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Astelehenean NUBI elkarrekin berbaldi informatiboa egingo du, kultura etxearen, 19:00etan. Saharako Lagunen Elkartea *Oporrak bakean* programaren nondonik norakoak azalduko ditu, Saharako umeek udan Euskal Herriko bi hilabeteko egonaldiak egin ditzaten (uztail hasieratik irail hasierara).

Berbaldiaren helburua da eskoriatzarrei jakinaztea programa hori zer den eta gogoratzea umeak hartzeko familien laguntza behar izaten dutela. Horrez gain, egonaldi horien gaineran jasotako esperientziak azalduko dituzte.

FAMILIEK OSATUTAKO ELKARTEA
2003an, Arrasateko Udalak Saharako umeak udan ekartzeko programan esku hartu zuen. Umeei harrera egindako familia batzuek erabaki zuten elkarrekin sortzeko premia zegoela. Hortaz, 2004an NUBI sortu zuten, eta urte hartako harrera ekimena eurek zuzendu zuten. 2004an, 12 umek egonaldiak egin zuten.

dia egin zuten Arrasaten, eta beste bik Aretxabaletan.

Poliki-poliki, NUBI zabaltzen joan zen, eta hala, 2005ean ume gehiago ekarri zituzten ibarrera: 12 Arrasatera, hiru Bergarara, bi Oñati eta bat Antzuolara, hain zuzen ere.

EGITASMOA IBARREAN ZABALDU

Duela gutxi, asmo bera duen Bubisher taldea sortu dute Bergaran. Hala, bi elkarteen artean ibarra banatu dute, lan eraginkorragoa egiteko. Bubisherrek Bergaran, Antzuolan eta Elgetan egingo du lan; eta NUBIk Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate eta Leintz Gatzagan.

FAMILIEN PREMIA HANIDIAGOA

Orain dela gutxi izan dituzten uholdeak direla eta, Saharan premia handiagoarekin daude. "Familia asko etxe barik gelditu dira eta *haimma*-tan bizi dira. Dagoeneko han duten beroarekin, gogorra da egoera horretan bizi izatea. Horregatik, aurten ume gehiago hartzeko saiakera egiteko eskatu digute", azaldu zigutene NUBIk arduradunek.

NUBI-REN LAGUNTZA UNEORO

Umeon bidaia ibarreko udalek ordaintzen dute, eta egonaldiak irauten duen bi hilabeteetan, NUBI elkarrekin hiru telefono izango ditu eguneko 24 orduetan. Informazio gehiago behar izanez gero: 685 72 48 16, 685 72 48 17 edo 685 72 48 18.



ANTZINAKOA Azkoagarren gaur egungo etxea XX. mendearren hasieran egin zuten, baina eraikina zaharragoa da.

I.B.

ZERBITZUAK > HERRIKO BIGARREN HOTELA EGINGO DUTE

Azkoaga Enea hotela egiteko lanak aurrera

Estruktura aldatzea komenigarria zenez, hura bota eta berria egiten dabilta; azkoagarren asmoa da eraikinak estruktura bera edukitzea.

I.B. > ESKORIATZA

Azkoaga tabako-denda zegoen eraikinean azaroa ezkerro dabilta lanak egiten. Hasieran, langileak eraikinaren barrua husten ibili ziren, baina gerora konturatu ziren eraikinaren atzeko aldeko estruktura aldatzea komeni zela, zaharkituta zegoelako. Horregatik, joan den egubakoitzetan eta oraingo astean, hondeatzeko makina bat ibili da eraikinaren atzealdea botatzen. Aurreal-

dea, berriz, oraindik ez dute ukituko, ondo dago-eta.

ESTRUCTURA BERA EGINGO DUTE

Azkoaga familiakoen asmoa da eraikinak estruktura bera izatea. Aurrealdea dagoenetan geldituko da, eta atzealdea lehengoaren antzekoa egingo dute.


Valentin Azkoagak ez du zehaztu gura hotela noizko egongo den bukatuta. "Estruktura eta estaldura berria egiten dugune-

an berba egingo dugu daten gaineran, baina ordura arte ez dago jakiterik", aitorrtu zuen.

AZKOAGA ENEAK 14 LOGELA

Bestela, proiektua ez da aldatu. Azkoaga Enea hotelak 14 logela izango ditu, eta, horrez gain, behoko solairuan jatetxe txiki bat eta kafetegia jarriko ditute, eta biek hala biek atzoko lorategira irteera izango dute.

Azkoagak badaki aste barruko bezero gehienak enpresetako langileak izango direla. Hala ere, asteburuetarako eskaintza personalizatuagoa egiteko asmoa dauka, bikoteak eta familiak Eskoriatzara erakartzeko.



I.K.

Lur-jauzi handiak gertatu dira egunotan udalerrian

Euri boladaren eraginez, Apotzaga eta Gellao arteko mendi-bidea pitzatu eta zati handi bat behera jausi da. Hortaz, handik ezin da auto ezta traktorerek igaro. Ez da bidea jausten den lehenengo aldia. Arrazoi horregatik, bi auzoetako lagunak haserre daude eta Udalerri "behin betiko" konponbidea eskatu diote. Horrez gain, zapatu arratsaldean San Juan kalearen atzealdeko terraza bat erreka ondoko pasealekura jausi zen, baina zorionez ez zen ezbeharrik gertatu.

Iraia Artzamendi > Margolaria eta serigrafia egilea

"Elizateetan oso txoko ederrak dauzkagu, altxor ia ezezagunak"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Iraia Artzamendi eskoriatzarrak erakusketa jarri du Arrasateko Harresi aretoan. Udalariaren gainerako marrazki ugari eta serigrafia abstraktuak batu ditu.

Txikitatik marrazten duzu?

Bai. Oso txikitak, 4 edo 5 urte-rekin, hasi nintzen marrazten. Hori da daukadan zaletasun handiena. Berez ez dut uste beste ezer-tarako horren pareko bokaziorik daukadanik. Almenen ikasi nuen, baina horren ostean Eibar-ko institutura joan nintzen Arte batxilergoa ikastera. Eta horren ostean Leioara jo nuen, EHUn Arte Ederrak egitera.

Unibertsitatean espero zenuen-a aurkitu zenuen?

Espero nuena baino gehiago aurkitu nuen han. Eibarren batxilergoa egin nuenean artea ez ziren beste hainbat gauza ikasi behar izan nituen. Arte Ederretan, berriz, hainbat arte praktika probatzeko aukera izan nuen. Esperimentatzeko balio izan zidan, eta, hala, gustuko nuen espezialitatea aukeratu ahal izan nuen: Teknika Grafikoa edo Serigrafia, hain zuzen ere.

Zer dela eta erabaki zenuen erakusketa egitea?

Arte Ederretako ikasketetan urtebeteko atsedernaldia egitea erabaki nuen. Bainan kasualitate batzuen ondorioz, Urretxuko Iñaki Bastarrika idazle eta itzultzailea ezagutu nuen. Hain zuzen ere, amonak nire gainean berba egin zion eta Bastarrika nire lanak ikustera etorri zen. Hala, artelan gehiago egitera bultzatu eta erakusketa egitera animatu ninduen.

Eskoriatzaren gaineko lan ugari batu dituzu erakusketa, ezta?

Bai, hala da. Bastarrikak herriko motiboekin lan egitera animatu ninduen. Hortaz, hiriguneko eta elizateetako argazkiak egiten hasi nintzen, eta horrik abiaturik lumatxoz eta tintaz



Iraia Artzamendi margolaria eta serigrafia egilea.

Bai. Iñaki Bastarrikak eta beste lagun batek Hauts Urdinak izeneko ekimena sortu dute eta *Quercus ilex* arte bilduma egitea erabaki dute. Bilduma horretako lehenengo liburua nirea izango da. Harrituta eta, jakina, oso pozik nago proposamenarekin.

Arrasaten jaioa zara, baina txikitak Eskoriatzara bizi izatera joan zinen. Lan hori egitzen herria berrezagutu duzu?

Bai. 7 urterekin Arrasatetik Eskoriatzara bizi izatera joan ginen. Elizateak zertxobait ezagutzen nituen, baina lan hori egitzen asko ibili behar izan dut, eta esan beharra daukat izugarrizko altxorrak dauzkagu udalerrrian: baserri ederrak, antzina-koko garbitoki eta iturri bitxiak, hilerra bereziak... Badut gogoa txoko gehiago ezagutzeko.

Lekuan argazkia eta gero etxe-an marrazkiak egin dituzu?

Bai. Udazken eta neguan ibili naiz motiboak bilatzen, eta, eguraldi txarra egin duenez, hala egin dut. Dena dela, argazkilari-za ere oso gustuko da.

Hala ere, Harresi aretoko erakusketa Eskoriatzako motiboez gain bestelako lanak ere dituzu erakusgai...

Bai. Eskoriatzaren gaineko lanak lumatzox eta tintaz egin ditut. Guztira, 36 batu ditut. Horiez gain, hamar bat serigrafia eraman ditut erakusketa. Lan abstraktuak dira, gai askoren gaineakoak, eta horiek egiteko asko esperimentatu dut eta hainbat teknika erabili ditut: akrilikoak, guatxea, pastela...

Zure lanekin batera, Ane Agirre aretxabaletarraren eskulturak ere jarri dituzue...

INEMen informatikako eskolak hartzen nentilela Ane ezagu-tu nuen, eta hark ere artelanak egiten dituenez, erakusketa batera egitea erabaki genuen. Horrez gain, Iñaki Bastarrikak poema batzuk idatzi ditu, gure lanen gaineakoak.

> ATXILOKETA Tabernari bat mehatxatzeagatik atxilotua

Martitzen gaean, Ertzaintzak F.N.O. inizialak dituen 50 urteko eskoriatzar bat atxilotu zuen, eta eguztenean epailearen esku utzi zuten.

Ertzaintzaren esanetan, martitzenean 22:00ak aldera F.N.O. Eskoriatzako taberna bateko bezeroak gogaitzen ibili zen. Halako baten, tabernariak jendea bakean uzteko eskatu zionean, F.N.O.-k labana batekin mehatxatu zuen tabernaria.

Horren ostean, Ertzaintzak eskoriatzarrar tabernako ingurueta atxilotu zuen.

> ZINEMA Domekan umeendako film emanaldia

Etzi, domeka, umeendako film emanaldia egingo dute Ibarraundi museoko aretoan, 17:30ean. *Baloia* filma emango dute, euskaraz. Lan horrek 94 minuto irauten du, eta interesatuek euro bat ordaindu beharko dute.

Sophiak, 11 urteko neskatalik, txakurra galdu du. Umeek adarra jotzen diote, baina halako baten ijito batek baloi zahar bat utziko dio. Baloia magikoa da eta botere bereziak ditu, eta Sophiak abenturak bizi izango ditu.

> BERBALDIA Norberaren errerealizazioa berbagai


Astelehenean, hilaren 20an, Geuy Draecknan adituak *Errealizazio pertsonala. Zergatik eta nola?* leloa daukan berbaldia egingo du Ibarraundi museoan, 18:00etan.

Amuska emakumeen elkartea antolatu du berbaldia. Aurretik beste bat egin zuten, eta oso erantzun ona izan zuen. Emakumeen elkartearren asmoa da jendeak ondo erantzuten badu eta interesa badu, ezagutze pertsonalaren gaineko ikastaroa egitea.

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



FAGOR

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealeku 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01



ANTZERKIA > SOLDADUTZAKO KONTUAK OLARANEN

'Erreleboa' izeneko antzezlana egingo du Txalo taldeak bihar

Iker Galartzza eta Joseba Usabiaga aktoreek antzezlan saritua eskainiko dute

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Bihar, zapatua, helduendako antzerki saioa izango da, 22:00etan, Olaranen. Txalo antzerki taldeak *'Erreleboa'* lana eskainiko du. Lan horrek antzezlan onenaren saria irabazi du Azpeitiako Antzerki Topaketetan.

Iker Galartzza eta Joseba Usabiaga dira aktoreak. Biak hala biak *Goenkale* telesaiotik ezagunak. *Tomas* postariaren eta *Tximista*-ren paperak egiten dituzte, hurrenez hurren.

SOLDADUTZA GAI HARTUTA

Oraingoan, ordea, bestelako papekin datozi. Izan ere, soldadutzaren gainekeo parodia egingo dute Galartzak eta Usabiagak.

Algecirasen egingo dute topo bi euskaldunek soldadutzan; bata amaitzekotan eta bestea hasi berritan. Gau batean elkarrekin esperientziak eta biziak konpartituko dituzte.

Ernesto Caballeroren jatorrizko *Retén* antzezlana itzuli eta egokitutu du Iker Galartzak. Hark dio soldadutzaren absurdua islatzen duela antzezlan horrek. Hala, soldadutzatza abiapuntu hartuta, herrimaren, adiskidetasunaren eta beste zenbait balioren gainean jardungo dute.

Horrez gainera, obrak baditu bere umore puntuak ere; horrenbestez, antzerkiaz gozatu nahi duenak Olaranen izango du bihar horretarako aukera. Sarreera doan da.



AKTOREAK Goenkale saiotik dira ezagunak bi protagonistak.

TXALO

UMEENDAKO ANTZERKIA

Bestalde, datorren domekan, martxoaren 26an, umeendako antzerkia egongo da, 18:00etan, Olaranen.

Gorringo taldeak *Asto bat hipodromoan* lana eskainiko die Antzuolako umeei.

Bernardo Atxagaren ipuin batean oinarritutako antzezlana da. Hipodromoa dagoen Lasarte-Vicherrira zaldiz betetako treina iritsiko da udan; eta baita herriko bizimodu aldatuko duen morroia ere; besteak beste, astronomiarako zaletasuna baitu.

Bertso ikastaroan 12 lagunek dihardute

Idolaz elkartea bertsotan ikastaroa ipini du abian. 11 lagunek eman dute izena eta Aste Santura bitartean astelehenetan elkartuko dira 19:00etatik 21:00etara. Enaitz Alustiza bertsolari bergararra dute irakasle, eta esan digunez, "bertsoaren gainekeo oinarrizko gauzak irakatsiko dizkiet: neurria, errimak, doinuak... Baino bat-batean ere saiatuko dira, beharbada". Hala, bertsotzaleek bertsoa hobeto ezagutzea aukera izango dute. Ikastaroaren amaieran bertso afaria egitekotan dira.



I.A.



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

LEKV-BERRI MERENDERoa

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

EGAÑA
Era guztiako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

AURREKONTUA

Gertu Gaek "planto" egin du ados ez dagoelako

I.A. > ANTZUOLA

Egubakoitzeko udalbatzarrean onartu zuten aurtengo udal aurrekontua. Gertu Gaek plataformakoak ez ziren udalbatzarrean izan, aurrekontuari "planto egin" diotelako. Euren esanetan, "batzordeetan ez da aurrekontuaren gaia landu". Kexu dira "gai garrantzitsuak lantzeko Antzuolako Etxegintza ize-neko txiringitoa muntatu dutelako. Makroproyektuen gainean egindako proposamenei muzin egin die. Aparte, aprobetxatuz nahi dituztenak eta gehiago egiten ari dira. Plenoetan gure bota kontatu ere ez dute egiten".

> ERAKUSKETA

Hegazti harraparien argazkiak ikusgai asteburuan Olaranen

Asteburuan erakusketa izango da ikusgai Olaran etxeen. *Hegazti harrapariak* izenburupei, Javier Ara eta Juanjo Noguiraren argazkiak ikusi ahal izango dituzte hara joaten direnek. Erakusketa gela zabalik egongo da 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara bitartean.

> MANIFESTAZIOA

Elkarriren manifestaziora joateko autobusa

Elkarri agurra eman eta Lokarriri ongi torria egiteko, bihar, zapatua, manifestazioa izango da Bilbon *Guztioen artean. Bakea-Akordioa-Kontsulta* lelopean. Hara joateko autobusa 16:00etan irtengo da Beheko Auzoko geltokitik. 943 00 06 00 telefonora deitu behar da izena emateko.

Jose Monterroso eta Mari Carmen Salas > Bolatoki tabernakoak

"Bezeroen eskarien arabera moldatuko dugu gure jarduna"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA
Azaroan itxi zituen atea Bolatoki tabernak. Orain, kirodegiko lanekin batera tabernan ere hainbat berrikuntza egin dituzte. Apirilaren 8an dira zabaltzeoak, eta tabernaren ardura hartuko duten Jose Monterrosorekin eta Mari Carmen Salasekin egon gara.

Nolatan bururatu zitzazuen Bolatoki taberna hartza?

J.: Taberna hartzeko aukera zegoela jakin nuen, eta koinatak, Mari Carmenek, ostaritzan jarduten duenez, elkarrekin hartza proposatu nion.

Zein dira bezeroek aurkituko dituzten berrikuntzak?

J.: Berogailua ipini dute, komunak handitu dituzte, ezin-duendako egokitu dute taberna eta argi instalazioa ere berria da.

Eta zuek zer eskainiko diezue bezeroei?

Mari Carmen (M.C.): Giro berria sortu nahi dugu. Herritarrek nahi dutena eskaiztea da gure asmoa: pintxoak nahi baditzte pintxoak, eguneko menuak nahi baditzte ba hori... Goiz zabaltzea da gure asmoa eta gosarietik hastea. Asteburuetan ere menu bereziak edo plater konbinatuak emango ditugu. Pilot partiduak daudenean barran zen-tratuko dugu batez ere gure lana.



Jose Monterrosok eta Mari Carmen Salasek apirilaren 8an zabalduko dute taberna.

I.A.

"Giro berria sortu nahi dugu; horretarako, pilot zein bolo jokoaren gaineko irudiak ipinita"

"Urte sasoi onean zabalduko dugu; gainera, zortea izan da taberna berrituta hartza"

J.: Kontuan hartuta taberna non dagoen, kirodegian, ukitu berezia eman nahi diogu, argazkiekin eta pilotaren zein bolo jokoaren gaineko irudiekin.

Tabernaz gain, kirodegian ere izango duzue ardurarik, ezta?

J.: Garbiketa eta kirodegia-ren erabiltzaileen kontrola egingo dugu. Frontoiaz, berri, Udal arduratuko da.

Taberna itxita egon izana kalterako izango da?

J.: Ez dut uste. Nobedadea izanik, jendea, probatzen bada ere, etorriko da. Gainera, zorte handia izan dugu taberna berri-tuta hartuta.

M.C.: Orain arte beste batzuen-dako egin dut lan, eta gure negozioa izanik gogotsu ekingo diogu. Gainera, garai onean zabalduko dugu, udaberrian.

bere ustez



Ana Gillegi

Etxeko irratia mutututa aspaldian

Beti izan naiz oso irratizalea. Goizean goiz ipini izan dut irratia betidanik. Amaren eta amonen etxeen horrek esnatzen gintuen. Azken aldian, ordea, gogaitu egiten nau. *Magazine*, albiste, mahai-inguruek, denek dute ahotan politika. Honen inguruan ez bada ez dakigu ezer esaten. Dena konpontzen da, dena pentsatzen da politika bitarteko dela. Ez dago beste biderik? Hala ere badago politika gainditzen duen *hit-a*: eguraldia. Ezin ezer egin eguraldi gizona edo emakumea entzun gabe.

"Dena konpontzen da, dena pentsatzen da politika bitarteko dela. Ez dago beste biderik?"

Konturatuko zarete zenbat bider aipatzen den ditxosozko eguraldia. Ezin ezer antolatu eguraldiak zer egingo duen dakigulako; pronostikoak bi, hiru edo lau egunetakoak direnez... Eta gertatzen da zaparrada batek harrapatzan bagaitu, edo xirimiriak bustitzen bagaitu? Gainera bat-batean olatuak ere importante bihurtu dira, baita barnealdekoentzat ere. Denok izan behar dugu surflari (arrantzaleak ere bai?).

Azken aldian irratia mutu dago etxeen. Bainaz da dena txarra izan, irratia mutututa izanik, ETB leko programazioari esker, etxeen gehiago irakurtzen dugu.

Haizeak, ekarriko ote digu zaborra garbitzeko norbait?

> OLIOA
Iaz, erabilitako 675 litro olio jaso ziren birziklatzeko

Ecogras empresa arduratzen da erabilitako olio jasotzeaz. Euren datuen arabera, iaz 675 litro jaso ziren Elgetan. Erabilitako olio hamabost egunean behin jasotzen dute; bariku arratsaldeetan, 16:00etatik 20:00etara bitartean plazan. Hurrengo hitzor-dua martxoaren 24an da.

> HEGAZTI GRIPEA
Gaitzaren aurrean hartzeko neurriak udaletxeen daude

Hegazti gripearren gainekeo informazioa eta horri aurre egiteko neurriak jaso dituzte udaletxeen. Beraz, hegazti gripearren susmorik izanez gero edo hegazti asko hilez gero gomendatu dute Foru Aldundiko Abeltzaintzara deitza (943 11 20 75). Bestalde, nahi duenak informazioa eskuragarri du udaletxeen.

GAZTETXEA > URTEURRENEKO JAIA

Bazkaria eta kontzertua bihar gaztetxearen 10. urteurrenean

Trikitilariek eguerdian eta iluntzean jardungo dute; baita bazkalostearen ere bertsolariekin

I.A. > ELGETA
Bihar, zapatua, gaztetxearen hamargarren urteurrenaren ospatze-ko jaia egingo dute.

Otsailean eta martxoan barrena hainbat ekitaldi egin dituzte eta asanbladakoak gustura geratu dira. Hitzaldia bertan behera geratu bazein ere, umeen egunean eta pasa den asteburuko tainerretan gustura ibili ziren. Han-kapalu, txalaparta, malabar eta pandero tailerrak egin zituzten, hain zuzen ere.

BERBALDIA
Orain arteko ekintzarik arrakastatsuena joan den barikuan egindako berbaldia izan zen. Bertan, hamar urteotan gaztetxearekin harremana izan duen jendeak

hartu zuen parte batez ere. Elkarrutako 30 lagunen artean gaztetxearen orainaz eta geroaz egin zuten berba.

Egitaraua

- Eguerdian: trikipoteoa Elgetako trikitilariekin.
14:30: herri bazkaria, gaztetxean.
Bazkalostean: Elgetako trikitilariek eta bertsolariak (Fredi Paia eta Jokin Uranga).
Iluntzean: trikipoteoa Elorrioko trikitilariekin.
22:30: Trapatoni talde elorriaren kontzertua gaztetxean.
Ondoren, DJ Bull goizaldera arte.

Luze jo zuen berbaldiak; 22:00etatik goizaldeko ordu biak arte egon ziren anekdotak kontatzen, eztabaidan...

BAZKARIA MERKEAGO

Hamargarren urteurreneko eki-taldeak amaitzeko bihar, zapatua, egun osoko jaia egingo dute.

Eguna trikipoteoarekin hasi eta herri bazkaria egingo dute gero. Antolatzaileen esanetan, aurten txartelak merkeago ipini dituzte, hamargarren urteurrena izanik ahalik eta jende gehien elkartzea nahi dutelako.

Bazkariaren ostean ere ez da jai girorik faltako. Trikitixa doinuei bertsolarien kantuak gehituko zaizkie. Eta eguna amaitze-ko musika izango da: The Uski's taldea zen etortzehoa, baina azken unean ezin direla etorri esan dutenez, Trapatoni taldeak joko du; DJ Bull izango da ondoren.

**((112))
SOS DEIAK**

GAZTE EGUNA > HIRUGARREN URTEZ GAZTE EGUNA IZANGO DA

Bihar, zapatua, ospakizun bikoitza egingo dute gazteek

Martxoaren 19an, domeka, Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada sortu zela bi urte beteko dira

Urteurren hori datorrela kontuan hartu eta Bihar, zapatua, III. Gazte Eguna egingo dute

UBANE MADERA > ARAMAIO

Bihar, zapatua, arratsaldean hasi eta gauerdira arteko jaia antolatu dute Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladakoek. *Kuadrilan arteko pikieegingo dute, 17:00etan.* Eguraldiak zehaztuko du non egingo dituzten jolasak. Irabazten duen koadrilari taldeko lagun guztienako afaria opari egingo diote.

Gaeanean, berriz, afaria egingo dute jangelan. Afalosterako, euskarazko bakarrizketak eta Enaitz Alustiza eta Jokin Labaien bertso-larien bertso saioa antolatu dituzte. Eta gauerdian etxafuegoak jaurtiko dituzte, ATGaren bigarren urteurrenena gogorarazteko.

Iaz arrakasta izan zuen jaiak, 70 bat gaztek parte hartu zuen-eta.

LOKALA PIZGARRI

Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak hainbat belaunaldi-tako gazteak batzen ditu. "Lehen, gaztetxea zegoen Aramaion, eta hantxe elkartzen ginen gazteak,

baina bota egin zuten. Hala, gazte guztiak batzeko leku barik geratu ginen, eta, horren ondorioz, gazteak koadrilaka banandu ginen. Halako batean, gu baino nagusiagoak ziren gazteek deitu zuten batzarra gazte taldea sortzeko, gazteak berriro elkartzeko. Eta, hain zuzen, halaxe sortu genuen Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada. Aurreneko urtean herriko jaiak antolatu genituen eta harrezkero talde polita batu gara". Naiak, Liernik, Soniak eta Amaiak kontatu digu-

KONTUAN HARTZEKO

Helduen partehartzea lortu guran

Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada pozik dabil herriaren alde lan egiten; 30 bat lagun ibiltzen dira ekintzak antolatzen, asanblada moduan; baina gabezia ere igartzen dute aramaioaren artean: "Herriaren parte-hartze handiagoa falta zaigu. Azken batean, herriko edozeinendako antolatzen ditugu ekintzak, baina gero jendea ez da animatzen. Askok pentsatzen dute gazteendako bakarrik antolatzen ditugula ekintzak; eta gure helburua da ahalik eta herritar gehienek parte hartzea. Bereziki, gurako genuke helduek parte hartzea".

te hori. Taldearen izen berezia-rengatik ere galdeitu diegu haiei: "Gaztetxeen bazegoen pintada bat esaten zuena Aramaixo Tropikala; eta hortik atera genuen".

EKINTZAK URTE OSOAN

Kontuak kontu, igarri egin da gazteen eragina herrian. Azken bi urteotan herriko jaiak eurek antolatu dituzte, arrakasta handiarekin. Horrez gainera, urtetik urterera geroago eta ekintza gehiago antolatzen dituzte: esaterako, uda-udazkenean Aramaio ezagutzeko irteerak (Tellamendira Iku-rrina ipintzera) Gabonetan, ikastaroak eta txapelketak, eta, besteak beste, iaz hasi ziren Liburuaren Eguna antolatzen. Azken batean, gazteen helburua herria piztea da: "Orokorean ekintzak antolatu gura ditugu herriari nolabaiteko bizitza emateko, bestea egun guztian taberna barruan ibiltzen gara-eta. Erritmo motela dugu, gauzak lasai hartzen ditugulako, baina polito-polito bagabiltza egiten."

bere ustez



Manex Agirre

Galderak eta soluzio proposamena

Gaur egungo euskaran egoerari begi beltzkin begiratu ezkerro "antzerki-fasearena" etortzen zait burura. Zer da begi beltzkin begiratzea? Ezkor izatea. Zer da "antzerki-fasea"? Hizkuntza bat kultur komunitate baten parte garela antzeztekoi soilik erabiltzea. Onartu genuen beste guztiak bezalakoa dela (mailaz, kalitatez) gurea, ez dugu onartu besteak erabiltzen diren bezala erabili daitekeela gurea ere.

Zein dira antzerkiaren sintomak? Karteletako itzulpenen eskasak, euskara txakurrei eta umeei hitz egiteko

"EZ DUGU ONARTU BESTEAK ERABILTZEN DIREN BEZALA ERABILI DAITEKEELA GURE HIZKUNTZA ERE"

> ZERBITZUAK
**Garraio egokituararekin
buru-belarri dabiltza**

Halaxe adierazi digu Mertxe Mondragon alkateak, "jo eta fuego" dabiltzala Aita Mennirako ganorazko garraioa lortu guran; hau da, Arrasateko eguneko zentroa joan beharra duten herri-tarrendako garraio egokitua lortu guran. Alkateak jakinarazi digunez, orain Diputazio-tik dabiltza aztertzen zein izango litzatekeen zerbitzu horren kostua baldin eta taxi bitartez egingo balute. Edozean ere, irtenbide hori ez dute oso egoki ikusten Udalean, taxiak ez daudelako zailtasunak dituzten pertsonendako behar bezala egokituta.

bakarrik erabiltzea, euskarazko elkarritzeta baten erdian umore tonuan berbe-tan hasi orduko erdarara jotzea... Modu partikularrean Aramaion, herri sarrean daukagun kartel ponposoa, egiaren alde bat (edo bat ere ez) bakarrik erakusten duena.

Fatalismoak utzi eta begi argiekin (baikor) begiratu ezkerro, soluzio bila hasi ezkerro, Txirritolaren alde egingo nuke apustu, kultur ekintzak antolatzen dituen talde izatetik benetako euskara-elkarre izatera pausoa eman dezan. Badakigu herri txikietan gauzak nahasten direla, baina... animo!



Iturriotz 23 - Arrasate
Tel.: 943 71 17 81



**ARAMAIO
Uribarri-auzoa - Gureia.**
Etxebizitza salgai, etxe bikoitz baten alde bat. 260 m² erabilgarri inguru. Hiru solairu ditu. Txoko, garajea, teniserako pista. 3.000 m²-ko lursaila. Bista paregabea. Leku lasaia.



**Hiltegi zaharra
berritu egin
gura du Udalak**

Oraindik ez dute erabaki zertarako aprobetxatuko duten hiltegi zaharra. Baino Udalak eraikina konpondu gura du, atzera ere erabiltzeko. Alkateak kontatu digunez, asmoa da erakusketa egiteko eta herritarrek eskulanak eta margolanak egin ditzaten erabiltzea: "Erakusketa areto beharra dago eta, gainera, uste dugu etxeak konpontzeko beharra ere badaukala. Horrez gainera, Ibabeko Andra Mariaren baxera horra ekartzeko asmoa dugu". Horren harira, proiektua eskatu dio Udalak Arabarri enpresari.

U.M.

EMAKUMEAK > OSPAKIZUNA

'Sorginen' hiru isuski Nerea, Matilde eta Martzelinari

Giro bikainean baziak zuten 'sorginek' eta nekatu artean egin zuten dantza batzuek

Oraindik ez dute erabaki ikastarorik egingo duten eta nora joango diren auren asteburu-pasa

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Egun handia izan zuten Gatzagako emakumeek zapatuan. Emakumearen Eguna astean pasatuta elkarrekin ospatu gura izan zuten, eta Sorginak emakume taldeak antolatutako baziakian elkartu ziren asko.

ISUSKIETAKO JOLASAK

Emakume asko elkartu ziren, bai, baina ez izena emandako guztia. Beste konpromiso batzuk eta gripea tarteko beste urte batzuetan baino gutxiago hurreratu ziren Gure Ametsa jatetxera. Astean, gainera, Arrate jatetxeko nagusia hil egin zen, eta hori ere igarri egin zuten. Baina elkartutakoek, gazte zein nagusi, eguneroko lan eta kezkak albora utzi eta jai giroan ospatu zuten euren izeneko eguna.

Bapo baziak ostean, eta ohiturari jarraituz, isuskiak banatu zituzten Sorginak taldeko kideek. Dagoeneko herriko emakume gehienek dituzte etxeen isuskiak, urtero banatzen

ditzute-eta hiru. Aurten Etxausategi baserriko Martzelina Aranburuzabalak, San Martin baserriko Nerea Marurik eta Matilde Arresekin jasotzen, eta isuskiok aldean hartuta egin zuten lehenengo dantza.

Jangela berean Arabako Eloso herriko emakumeek izan zituzten lagun, eta elkarrekin jardun zuten dantza eta jolasean. Iaz hasi ziren jolasak egiten, eta, irribarrea ez ezik algarak sortzeko bikainak zirela konturatuta, aurten gertu eroan zituzten jolasera-k tresnak: jantziz betetako dozena erdi maleta. Bainujantziak, gerrikoak... Nahiko lan izan zuten arropok janzten eta eranzten.

IRTEERA ETA IKASTAROA

Joan zen zapatuan, dantza eta dantza artean, tartetxo bat haritu eta udaberriko irteera antolatu gura zuen Sorginak taldeak. Urtero egiten dute irteera herriko emakumeek; iaz, esaterako, Zamorara joan ziren, eta aurten maiatz erdi inguruan joango dira



BAZKARIA Gure Ametsa jatetxean izan zuten, eta giro ezin hobea sortu zen elkartutako ia 30 emakumeen artean.

M.A.



ISUSKIETAKO Herriko hiru emakumerendako izan ziren: Martzelina Aranburuzabalak, Nerea Maruri eta Matilde Arrese.

M.A.

asteburu-pasa. Data zehaztu zuten, baina ez zuten erabaki nora joan. Ezagutzen ez dituzten Palentzia eta Zaragoza aipatu zituzten batzuek, etxetik hurrago gurago zutela beste batzuek. Azkenean erabaki barik utzi zuten, eta apiril hasieran egingo duten batzarrean zehaztuko dute

irteerako plana zein den, lehenbailehen antolatzen hasteko.

Irteera bakarrik ez, ikastaroaren bat ere egin gura du datozen asteotan Sorginak taldeak. Tai-ichiaren gainekoia izango da, seguru asko, erabilera terapeutikoak dituen aipatutako borroka-artearen gaineko interesa azaldu

dute-eta herriko hainbat emakumeek. Interesa orokorra dela ikusiz gero antolatzen saiatuko dira, baina hori ere erabaki barik utzi zuten. Bi aste barru egingo duten batzarraren ondoren jakinarako diete herriko gainerako emakumeei zein erabaki hartu duten.

ETXEBIZITZAK > HIRU ETXEBIZITZAREN LEHIAKETA

Pilar kalean dauden hiru etxebizitzak salduko ditu Udalak

37 metro koadro dituzte bik eta 49 hirugarrenak, eta Gatzagako bizilagunek lehentasuna izango dute lehiaketan

Astean, hilaren 14an, argitaratu dituzte Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean baldintzak, baina argibide gehiago edo agiriak eskuratzeko Gatzagako udaletxera joan behar da.

JAURLARITZAREN PREZIOA

Pilar kaleko 9. atartean daude hiru etxebizitzak. Bik 36,98 metro koadro dituzte eta hirugarrenak 48,61. Eusko Jaurlaritzak etxebizitza sozialendako ezarrira dituen eta 2005eko urriaren 1a ezkerro indarrean dauden prezioak izango dituzte, hau da,

txikienek 22.113,30 euro eta handienak 29.067,81 euro. Hainbat baldintza hartuko ditu kontuan Udalak erabakitzeko orduan: eskatzailea Gatzagan erroldatua egotea eta bertan biziitza azken urtean, diru sarrerak 9.000 eta 15.000 euro artekoak izatea, eta beste batzuk.

GAOn argitaratu ostetik 26 egun izango dituzte interesatuek eskaera egiteko. Epea bukatu eta lehenengo egunean zabalduko ditu Udalak aurkeztutako eskarak, eta orduan erabakiko du etxeok zeini saldu.

> GARRAIOA
Ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar da maiatza bitartean

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga kobratzen dabil Udal martxoaren 1a ezkerro. Kamioi, automobil eta motora duten herritar guztiek ordaindu behar dute aipatutako zerga, eta apirilaren 30a izango da ordaintzeko azken eguna. Zergaren zenbatekoa ibilgailuaren potentziaren arabakoa da, eta kontua helbiratuta dutenei bertatik pasatuko die Udalak. Gainerakoek udaletxera joan beharko dute ordaintzera. Hala gertatzen ez bada, prozedura exekutiboaren bitartez jasoko ditu zergak, eta errekarria, berandutzte interesa eta beste kostu batzuk gaineratuko dizkiote.

> IRTEERA
Sagardotegira joango dira hainbat koadrila bihar afaltzera

Aste bukaeran sagardotegira egingo dute irteera Gatzagako hainbat lagunek. Urtarril inguru, elurra egin zuenean, ziren egitekoak, baina orduan atzeratua eta bihar, zapatua, joango dira Legorretan dagoen sagardotegira afaltzera. "Hainbat koadrilatako kideak elkartu genen batean erabaki genuen sagardotegira joatea", dio Rosa Urretak, "eta gazte zein nagusi elkartuko gara".

Labidea dendar eman behar zuten izena interesatuek autobusa antolatzeko, eta martitzeanean bukatu zen epea. 20 lagunetik gora joango dira bihar, eta 19:00ak inguruan aterako da autobusa herritik.

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Udalarenak diren hiru etxebizitza sozial lehiaketa bidez saltzea erabaki zuen udalbatzarrak otsilean egindako osoko bilkuraren

DUATLOIA > ANTIXINTXIKAREN ETA OÑATIKO TRIATLOI TALDEAREN PARTAIDETZAREKIN

Oñatiko Duatloia: 250 lagun lehian zapatuan

Oñatiko proba euskal triatloizirkuiturako puntuagarria izango da. Lasterketa 16:00etan hasiko da, Oñatiko plaza nagusian

EDU MENDIBIL > OÑATI
Oñatiko Duatloia jokatuko da bihar, zapatua, 16:00etan hasita. Aurtengoa 15. ekitaldia izango da eta 250 partaide izango dira irteeran; tartean, Antxintxika Debagoina taldeko eta Oñatiko triatlozi taldeko ordezkariek.

DESKARGAKO BUELTA BIZIKLETAN
Oñatiko proba euskal triatloizirkuiturako puntuagarria izango da. Hain zuzen ere, zirkuituko bigarren proba izango da, domekan jokatu baitzen lehenbizikoa, Basaurin.

Basaurikoa *sprint* distanziakoa bada, Oñatiko proba beteranoa distantzia motzekoa dugu: zortzi kilometro korrika, 40 kilometro bizikletan eta beste lau kilometro korrika izango dituzte aurrean partaideek. Esan bezala, proba 16:00etan hasiko da, Oñatiko plazan. Herri barruan lau kilometroko ibilbidea prestatu dute antolatzaleek. Zirkuituari bi buelta eman ostean, bizikleta gainean Deskargako buelta egingo dute partaideek, eta, azkenik, zirkuituari buelta bakarra emango diote korrika. Denboraldiaren hasieran batzuen eta besteen indarrak neurtzeko aukera egongo da bihar. Debagoieneko partaidezari dagokionez, Antxintxika taldeko 20 bat lagunek hartuko dute parte eta Oñatiko Triatlooi Taldea ordezkatuz dozena bat lagun izango dira, beste hainbat antolaketa lanetan jardun beharko dute-eta.

Antolatzailak pozik azaldu dira jasotako erantzunarekin.

Logistika arrazoiengatik, 250 partaide zen jarritako muga, eta kopuru horretara iritsi dira.

PRONOSTIKO IREKIA
Faboritoak aurreratzea ez da erraza izaten halakoetan. Hala

ere, Laurent Galinier, Hector Llanos (Urkulu azken triatloiko irabazlea), Samuel Porte eta Mitxel Aginagaren arteko lehia egon daiteke bihar. Denboraldi hasieran sorpresaren bat ere ezin da baztertu. Nesken kategorian, zailagoa da oraindik pronostikoa. Ainhoa Murua zarauztarra izan genuen iazko irabazlea Oñatin, baina bihar ez du parte hartuko, autonomia arteko beste proba baten izango delako asteburuan.



ZUHAITZ EZPELETA Arrasatearra izan zen iaz irabazlea Oñatin. OÑATI TRIATLOI TALDEA



Mikel Galdos pozik itzuli da Sevillatik. Maila bikaina azaldu du han. XABI URTZELAU

GOLFA > GALBAHEA GAINDITU ETA ONENEKIN LEHIATU ZEN

Mikel Galdos 8. tokian sailkatu zen Sevillan

Azken egunean egin zuen Galdosek ibilbiderik onena, 70 kolperekin

E.M. > ARETXABAleta
Mikel Galdos aretxabaletarra 8. postuan sailkatu zen aste bukaeran Sevillan jokatutako Peugeot Tourreko txapelketan.

Real Club Sevilla golf zelaian 132 jokalari izan ziren lehian eta 45ek gainditu zuten lehen saioa. Galdosek azken egunean, zapatuan, egin zuen ibilbiderik onena (70 kolpe, -2). Bezperan 72 egin zituen eta egunean 75 kolpe. Ivo Giner izan zen garailea, eta izen handiko jokalariek haritu zuten parte, tartean Santiago Lunak (2.a) eta Miguel Angel Jimenezek (5.a).

> GAZTE OLIMPIADAK

Gazte Topaguneak antolatutako jokoak eta herri bazkaria egongo dira zapatuan Bergaran

Bihar, zapatua, Debagoieneko gazte olinpiadak izango dira Bergarako San Martin plazan, 11:00etan hasita. Antolatzailak dei egiten diente gazteei zapatuko jokoetan parte hartzera. Izenematea Debagoieneko gaztetxeetan eta ohiko tokietan egin daiteke, eta zortzi laguneko taldeak osatu behar dira (talde mistoak osatzeko aukera dago baita ere). Zapatuko egitarauaren barruan herri bazkaria egingo dute Bergarako Artatse elkartean.

Biharkoa eskualde mailako kanporaketa izango da eta sailkatutakoek probintzia mailako neurketak izango dituzte martxoaren 25ean eta 26an. Finala, berriz, apirilaren 15ean jokatuko da, Etxarrin.

www.gaztebulegoa.com gure webgunea martxan!



- Jarri zure iragarkia: saldu-erosi, etxebizitza-kideak bilatu, lana...
- Egin zure kontsulta www.gaztebulegoa.com

**Bidaia • Aisialdia
Hezkuntza • Lana • Bekak
“Gomendatzen dizut” lehiaketa
Aldizkari elektronikoa**



asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Preferente maila
Aretxabaleta-Allerru
Domeka. 16:30. Ibarra.

Aloña Mendi-Anaitasuna
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Touring-Mondragon
Zapatua. 17:00. Fanderia.

Lehen erregionala
Vasco-Bergara
Domeka. 16:00. Herrera.

Bigarren erregionala
Aretxabaleta-Lasalle
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Ordizia-Antzuola
Zapatua. 14:00. Altamira.

Ohorezko mailako gazteak
Martutene-Mondra
Zapatua. 15:30. Martutene.

Aretxabaleta-Zumaia
Zapatua. 17:30. Ibarra.

Bergara-Mariño
Zapatua. 17:30. Ipintza.

Lehen mailako gazteak
Orioko-Bergara
Domeka. 16:30. Antilla.

Zestoa-Aretxabaleta
Domeka. 16:30. Zubiaurre.

Antzuola-Intxurre
Zapatua. 16:30. Estala.

Bigarren mailako gazteak
(Igoera fasea)
Lazkao-Arrasate
Zapatua. 15:30. Arizti Handi.

Kadeteen lehenengo maila
Zumaiako-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Aita Mari.

Arrasate-Urola
Zapatua. 12:00. Atxabalpe.

Kadeteen bigarren maila
(Igoera fasea)
Bergara-Mariño
Zapatua. 11:30. Ipintza.

Ohorezko mailako infantilak
Aloña Mendi-Tolosa
Domeka. 11:30. Ibarra.

Arizmendi Aretx-Eibar
Zapatua. 12:00. Ibarra.

Infantilen lehenengo maila
(Igoera fasea)
Bergara-Arrasate
Zapatua. 10:00. Ipintza.

Infantil txiki (txapeldunen fasea)
Arizmendi Aretx-Lengokoak
Zapatua. 12:00. Ibarra.

Emakumezkoen Liga, igorera fasea
Arizmendi Aretx-Intxaurdi
Zapatua. 16:00. Almen.

Mondra-Amara Berri
Domeka. 11:00. Atxabalpe.

Zarautz-Bergara
Zapatua. 16:30. Asti

Emakumezkoak, Kopa
Amaikak Bat-Aloña Mendi
Domeka. 10:30. Errrotazar.

Emakumezkoak, kadete maila F8

Urki-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 15:30. Unbe.
Bergara-Lagun Onak
Domeka. 18:00. Ipintza.

Aloña Mendi-Andraitz
Zapatua. 11:00. Zubikoa

Gipuzkoako ligako kadete maila (emakumezkoak)

Hotel Ibis - Bergara
Zapatua. 18:00. Hondarribia.

ESKUBALOIA

Euskadiko kadete maila (emakumezkoak)

Verkol Aloña-Leitzaran
Zapatua. 16:00. Zubikoa

Alebin maila

Bergara-Real Union
Domeka. 11:00. Ipintza.

Aretxabaleta - Beasain
Domeka. 10:30. Ibarra.

Arrasate - Ordizia
Domeka. 11:00. Atxabalpe.

Aloña Mendi - Urola
Domeka. 10:00. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

Nazional B maila
Santurtzi-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Santurtzi.

Gipuzkoako liga
Aloña Mendi-Cabo Rojo UPV
Gaur. 22:30. Zubikoa.

Hirugarren maila
UDA Mercedes-Amara KE
Zapatua. 20:30. Donostia.

Gazte maila
Lasarte-Eskoriatza
Zapatua. 11:00. Lasarte.

SASKIBALOIA

Lehen maila
Mugarri Alkesa-Suminan
Zapatua. 18:00. Iturripe.

Gipuzkoako ligako senior maila (gizonetako)
Irun Basket-Kevian Sport
Domeka. 12:00. Uraran.

Ogiherri Jove.- Candy BKE
Zapatua. 20:00. Paco Yoldi
(Donostia).

Gipuzkoako ligako senior maila (emakumezkoak)
Aoña Mendi-Irun
Hondarribia

Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Gipuzkoako ligako junior maila (gizonetako)

Lasalle-Bergara Araneta
Zapatua. 18:00. Lasalle
(Donostia).

Loiola B-Aloña Mendi -
Domeka. 12:00. San Ignacio

Loiola ikastetxea (Donostia).
Azkune-Mugarri Alkesa

Zapatua. 12:45. Santo Tomas
Lizeoa (Donostia).

Arrasaten, San Juanetako eta Udaberriko txapelketen barruan

Gaur. 19:00. Uarkape.

Benjamin, kadete eta gazte
mailako norgehiagokak.

Arrasaten, San Juanetako eta Udaberriko txapelketen barruan

Bihar. 16:00. Uarkape.

Benjamin, alebin, infantil eta
gazte mailako norgehiagokak



ERABAKIGARRIA Arrasatearrek 76-65 galdu zuten Leioan.

rren tokian da orain, Consmetal (30 puntu) eta Askartza (28) taldean atzetik, hain justu. Mugarri Alkesak 27 puntu ditu eta bi puntu besterik ez dio ateratzen bihar bisitari izango duen Suminan taldeari. Horren harira, biharko partidua irabaztea ezinbestekoa da aurkari zuzen bat atzean uzteko.

ZALEEN GARRANTZIA

Zaleen lagunza ere funtsezkoa izango da bilbotarren aurkako norgehiagoka aurrera ateratzeko. Mugarri Alkesaren jarraitzaileek ondo baino hobeto lagundu zuten taldea domekan, Askartzari egindako bisitan. Ehun lagun inguru izan ziren taldea animatzen eta Leioako kirolegian primerako giroa izan zen partidu osoan zehar. Partidua galdu arren, amaieran txalo zaparrada luzea eskaini zieten zaleek jokalari arrasatearrei.

Esan bezala, 11 puntuko aldearekin galdu zuen Mugarri Alkesak Leioan. Ia partidu osoan markagailuan aurretik joan arren (18-22, 30-33 eta 50-49 lehen hiru laurdenean), azken laurdenean garaipenak eskuetatik ihes egin zien arrasatearrei. Bi hilabete zeraman Mugarri Alkesak partidurik galtzeke; hain zuzen ere, azken partidua Askartzaren aurka galdu zuten, Arrasaten. 12 partidu irabazi eta lau galdu ditu Mugarri Alkesak orain arte.

AZKEN SEI JARDUNALDIAK

Ligaxka amaitzeko sei jardunaldi besterik ez da geratzen eta bigarren postua eskuratzeko lehia bizi dago. Azken txanpan partidu guztiak finalak dira, eta zapatuan lehen hitzordua daukate arrasatearrek.

Leioan galdu ondoren, sailkapeneko 3. tokian dira arrasatearrak; Suminan 5. tokian dago, bi puntura

E.M. > ARRASATE

Mugarri Alkesa saskibaloi taldeak partidu erabakigarrria izango du bihar, zapatua, Bilboko Suminan taldearen aurka, 18:00etan. Arrasatearrek 76-65 galdu zuten azken jardunaldian, Askartzaren aurka, eta Gorka Zurututzen taldea sailkapeneko hirugabe



**Tau saskibaloitako
taldera animatzera
koadrila handia
Leintz aldetik**

Leintz Eskola Kiroleko neska-mutikoak Tauren partidua ikusten izan ziren eguztenean, Gasteizen. Euroligaren barruan, partidu garrantzitsua zuen Tauk, Bamberg talde alemanaren aurka. Leintz aldeko koadrila ederra joan zen Tau animatzera: 410 ikasle (lehen hezkuntzakoak eta DBHkoak) eta guraso. Zazpi autobusetan joan ziren Gasteizeraino eta ederki asko igaro zuten eguztenean gaua. Tauren garaipenarekin (71-51) eta Fernando Buesa pabilioiko giroarekin gozatu zuten gaztetxoek.



Aloña-Anaitasuna domekan, Azkoagainen

Aloña Mendik sendo jarraitzen du lider postuan. Oñatiarrek Anaitasuna izango dute bisitari domekan Azkoagainen, 16:30ean.

GORKA GABILONDO




Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABAleta / 943 79 24 58
www.baster-alde.com

Eskaintza

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkaleku

Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramatzen dizugu

Eguneko menua eta karta



Eguzkitza erretegia

Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

Berezitasunak

- Behi txuleta
- Bakailaua

Martitzenetan itxita

Arane Erreka 30 / BERGARA
943 76 97 01



Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Larrinetxe jatetxea

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita



Taberna-Berri jatetxea

Durana 24-26 / ARETXABAleta
943 79 20 67 / 943 79 49 41

Eskaintza

- Menua
- Enpresa baziariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

Berezitasunak

- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



Tartufo jatetxea

San Juan auzoa / BERGARA
943 76 35 51

Eskaintza

- Familiako baziariak
- Kintadak dantzaldiarekin
- Eguneko menua eta karta berezia
- Aparkaleku ezin hobea
- Bi jangela: 100 eta 55 pertsonendako

Berezitasunak

- Arrainen aukera zabala
- Oreina eta txuleta txingarretan erreta

Egunero zabalik 5:30etatik aurrera



Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAIA
945 44 50 95

Eskaintza


- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik





> MUSIKA

Euskadi Gazteko irabazleak zapatuan Oñatin > 45



> KOMUNIKAZIOA

Mondragon Unibertsitateak webgune berria jarri du abian > 51

> JAIZKI BAKAIKOA
Tolosan ile-apainketa ikasketak egin ondoren, Londresen eta Parisen aritu zen. Hainbat tokitan egin du lan, Cibeles moda ibiltokia barne > 50



KANTARIAK GOGOTSU Ohituta ez, baina prest daude finaleko fokuak noiz piztuko. Biko taldeak zein hirukoak talde baten babesarekin joko du.

IBAN ARANTZABAL

Debagoieneko kantariak ere Euskal Kantu Txapelketan

Arrasateko talde bik jardungo dute txapelketan

Urretxun, martxoaren 18an; Oiartzunen, 25ean; eta finala, berriz, Azkoitian, apirilaren 1ean

IBAN ARANTZABAL > ARRASATE
Helburu bakarrarekin doaz kantu txapelketara: ondo pasatu gura dute eta, ahal delarik, oholtsa gainean egon zer den ikasi eta gozatu. Horixe nabarmendu dute bi taldeek.

ANE ETA JONE

Ane Undagoitia eta Jone Etxeberria dira bikotea eta 20 urte dituzte. Goikobalun urtetan jardun dute kantu eta Anek akordeoia ere jo izan du. Musika-zaletasuna txikitatik izan dute, eta orain kantu berri batekin ausartuko dira. Hain zuzen ere, Lauaxeta-

ren omenez egin zen diskoko *Mendigoxaliarena* aukeratu dute, Eñaut Elorrietak kantatzentzuena. Bigarren kantu, berriz, triki-pop erakoa da.

Lehendik ere ezagutzen dute zer den taula gainean egotea. Bergaran jokatu zen kantu txapelketan talde handiago batekin egon ziren, eta ordutik hona izan dute buruan oholtza gainera igotzea. Xarma taldearekin jo zuten The Beatles-en kantu bat. Orain, gusturago sentitzen dira pop musikarekin: Ella Baila Sola dute gustuko, eta euskaratza ere pentsatu zuten lehiaketara aurkezteko.

MIREN, ENERITZ ETA MAIALEN

Hirukotea dira horiek eta musika-zaletasuna Goikobalutik haratu dutela esan daiteke. Hirurak ibili dira abesbatzan. Manaren kantu bat itzultzera animatu dira: *Ana* kantu, hain zuzen ere. Lehen ere jotzen zuten Mirenek eta Maialenek gitarrarekin, eta orain kantura ere pasatu dira. Taldetan hiru abeslari dira, baina atzetik banda oso bat dute. Eneritzek trikia eta panderoa ere jotzen ditu, gainera.

Bestelako estiloak entzuten dituztela aitortu digute: El Canario del Loco taldekin hasi eta Rip,

Cicatriz eta halako taldeetaraino doazenak. Horrela izanagatik, txapelketara Manaren *Ana* eta Alaitz eta Maiderren *Amets bat* kantu ezaguna eramango dituzte. Kantuaren inguruan lan egitea eta hortik bizi izatea gustuko lukete hirurek: "Gainera, talde oso bat sortu dugu eta eutsi egin gura genuke horrela urte luzez".

Ez da makala izango lehia; bitartean, Rakel Murgiordorekin berotzen dute ahotsa. Ea zortzik dugun debagoendarrok eta artista berriak ezagutaratzeko aukera ematen duen 2006ko Euskal Kantu Txapelketak. > 44

KANTUA > EUSKAL KANTU TXAPELKETA

Ilusio handiz joango dira kantatzera arrasatearrak

Gipuzkoako Kantu Txapelketarekin hasi, Euskal Herriko helburu izanik

IBAN ARANTZABAL > ARRASATE

Euskara eta euskal munduari bultzada emateko helburuarekin sortu zuten lehiaketa hori Euskal Kantzaleen Elkartekoek. Iparraldean sortu zen lehenengo, Kantu Xapelketa izena-rekin. Helduentzako, baina, 1985ean izan zen lehenengoa. Ordutik gaurdaino ia urtero egin da, baina izan da urterik antolatu ez denik ere. Horregatik, edizioez baino urteez berba egin dugu Euskal Kantzaleen Elkarteko Ainhoa Ansarekin.

Ainhoak gogoratu digu hasieran ez zegoela elkartekirik ere, eta egitura sendoagoa behar izanda sortu zela elkartea 1992an.

ELKARTEAREN EGITEKOA

Jarduera nagusia Euskal Kantu Txapelketa antolatzea izan bada ere, pedagogia musikal eta musikologia ere landu dituzte.

Txapelketarekin kalitate teknikoa goratzea bilatzen dutela esan digu Ainhoak. Euskal Herri

osoko kantari berriei daude ate-ak irekita eta probintzia probintzia ekiten diote bideari.

GIPUZKOATIK EUSKAL HERRIRA

Gipuzkoan hiru saio izango ditugu: Urretxun martxoaren 18an, Oiartzunen 25ean eta apirilaren 1ean Azkoitian. Azkoitiko azken emanaldi horretatik aukeratuko dira hiru lehenengoak eta horiek izango dira Euskal Herriko Kantu Txapelketa. Bi sail nagusi izaten dira txapelketan: lehenengoa, *a capella* kantatzen dutena; bigarrena, soinu laguntzarekin. Hala ere, bakarka, binalka edo taldean ere abes daiteke.

Gipuzkoako ordezkariek debagoiendarrak izango dira? Horrela balitz, eta Euskal Herriko Txapelketa egingo den zehaztu barik badago ere, haien ordezkatuko lukete Gipuzkoa.

HELBURUAK

Euskal kantua osasuntsu dagoela adierazi gura dute antolaketatik ekimen horrekin. Bide



BERGARAN 2002an Bergaran egin zen Kantu Txapelketako finala. Argazkian, Bergarakoak, bigarren geratu zirenak. ARTXIBOA

batez, euskal kantagintza ahalik eta gehien zabaltzea da asmoa. Ez da kantakera bakarra erabiltzen eta sortzaileak, kantariak, errepetorio klasikokoak, ez horren klasikokoak... Denetarik entzun ahal izango da.

Pentsa, Arrasateko bikoteak Manaren kantu bat egingo du, baina hori bai, euskaratuta. Aukera paregabea dirudi nork bere lana ezagutzen emateko eta baita kantua bera plazaera ekartzeko ere.

ATZERA BEGIRA

Ibarrean ere izan zen, Bergaran

Bergaran jokatu zen kantu txapelketako finala 2002an. Argiñe Agirrezabalek *Behar nauen artean* kantua egin zuen eta bigarren saria jaso zuen bakarlarien atalean; Bergarako Maitane eta Saioa bikoteak abestu zuen *Zure albotik urrun banago Su ta Gar* taldearen moldaketa.

Talde pare bat ere aurkeztu ziren: Arrasateko Xarma taldeak (hamar lagun inguruko taldea; J. Delgado eta M. Fernandez) The Beatlesen bat egin zuen euskaraz: *Ez etsi*; entzuleen saria eroan zuten. Bestalde, Bergarako Bergarakoak taldeak *Zure begiek* kantua abestu zuen eta bigarren geratu zen. Lehiaketan debagoiendar gehiagok hartu zuen parte.

TALENTOUEN BILA

Era berean, talentuak bilatu gura dituztela adierazi digu Ainhoa Ansak. "Jende berri asko ezagutzen da eta horiekin laguntzea gure egitekoen artean dago. Guk beti lotzen dugu, hala ere, euskara beraren erabilpena bultzatzearekin. Kantu inguruan, euskaraz, Euskal Herriko lurralte guztietako gazteek elkar ezagutzeko eta bizipen uneak trukatzeko modua eskaini gura diegu", dio.

Ez da lan makala egiten dute-na. Hainbat musika eskola esker-tuta egongo dira ekimenarekin eta baita bertaratzten diren ikusleak ere. Euskal kantua aitzakia har-tuta badago zer ikusi. Ea entzuleok kantariekin beste gozaterikerik dugun. Arrasateko bi taldeek gus-tura entzungo dituzte txaloak.

EXPO BODAS 2006
GOIZKONTZA ENAZOKA

Eskoriatzako Udaletxea

Apirila 2

Tokia: MENDIGOIA Hotela
Pol. Indus. Torrebaso 8
Eskoriatza

DESFILEA
Oparien zozketa eta Produktuen dastaketak
Sarrera dohainik.

Laguntzaileak eta Babesleak:

ION LEIHOAK
P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA

- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK • ZOLUAK

20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: 943 79 11 35 Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: 945 26 71 73

K21
KALITATEA
Enero 2002
Nivel 2

Posta elektronikoa: ion.a@euskalnet.net • www.ventaion.com

LEHIAKETA > GAUR, EGUBAKOITZA, 'BARRE BARRA-BARRA' LEHIAKETAREN FINALA


Ikusleek erabakiko dute bakarrizketa onena zein den

Algortako Jon Urraza aktorearen hiru bakarrizketa dira finalistak. Gaur, egubakoitza, horietako bi aukeratuko dituzte ikusleek

IKER BARANDIARAN > BERGARA
Gaur, egubakoitza, *'Barre barra-barra'* bakarrizketa barregarriren lehiaketako finala egingo dute Bergarako Pol-Pol tabernan, 22:30ean. Ikusleek erabakiko dute zeintzuk diren bi bakarrizketa onenak.

Debagune Debagoineneko euskara elkarteen elkargoak bakarrizketa barregarriren lehen lehiaketa antolatu zuen, Euskal Herri osora zabalduta.

Jasotako lanen artean, Algortako Jon Urraza aktorearen hiru



Jon Urraza irabazlea. GOIENKARIA

bakarrizketa izan dira finalista: *Andra krisialdian*, *Apartamentua* eta *Nere Itu maitea*. Gaur, egubakoitza, Urrazak hirurak egin beharko ditu jendaurrean, eta ikusleek bi aukeratuko dituzte. Lehenak 300 euroko saria jasoko du eta bigarrenak 200 eurokoa.

ESKARMENTUDUN AKTOREA

Jon Urraza behin baino gehiagotan izan da ibarrean bakarrizketa horiek egiten. Azkeneko aldiz Arrasateko Jai Zale tabernan izan zen, Kultur Errortak eta AEDk gonbidatuta. "Hain justu, lehiaketara bidali ditudan bakarrizketak dira hainbat herritan egin ditudanak. Ikuskizunak *Ez haien... ezta haien gabe ere izeana du*, eta hiru kontakizun horietan banatuta dago. Bikote harremanen gainekeo pasarteak dira", azaldu zigun Urrazak.

Aspaldian Organik taldearekin ikuskizunak egiten dabil. Horrez gain, Arrasateko Jon Zubiaaga aktorearekin *Bob? Nor da Bob?* ikuskizuna ere prestazten dabil.



GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.

Boni Laskurain 3 BERGARA

943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSLTA



Sabeleko lerroa desagerrazteko makina.

KONTZERTUA > HIRU IRABAZLEEN METAL DOINUAK

Euskadi Gazteko lehiaketako hiru irabazoleak Oñatin

Bihar, zapatua, Euskadi Gaztea lehiaketako 15. edizioko hiru irabazoleek kontzertua egingo dute Oñatiko gaztelekuaren, 23:00etan

I.B. > OÑATI
Euskadi Gazteko maketa lehiaketak zelanbaiteko oihartzuna dauka urtero. Aurtengoa 15. edizioa izan da eta honako hauek izan dira irabazoleak: Berriozarko Khous taldeak epaimaiharen saria jaso du; Urolako Nuke taldeak entzuleen lehenengo saria; eta Goierriko Milkshake taldeak entzuleen bigarren saria. Euskadi Gazteko entzuleek telefono zein Internet bidez bota emateko aukera izan dute.

GAZTELEKUAREN EKIMENA
Oñatiko gaztelekuko arduradunek lehiaketaren emaitzak jakin ondoren, hiru talde horiek zuzean harremanetan jarri ziren, eta kontzertu bat egitera gonbidatu dituzte. Emanaldia 23:00etan izango da, eta interesatuek 5 euro ordaindu beharko dituzte.

METAL DOINUAK
Lehiaketako hiru irabazoleek metal doinuak jorratzentzut. Berriozarko Khous dira beteranoenak (2001ean sortu zuten taldea) eta gustuko metala duten



IRABAZLEAK Khous taldea da epaimaihak aukeratu duena. KHOUS

aren, hainbat musika estilo nahasten dituzte. Doinu gogorrak eta melodiak tartekatzen dituzte.

Entzuleen lehenengo saria jaso duen Nuke taldea Urola aldeko da, Zumaia, Azkoitia, Zestoa eta Legorretako kideak ditu-eta.

Horiek ere metala eta melodiak uztartzen dituzte, nahiz eta *rapetatuak* ere sartu. 2004an egin zuten lehenengo emanaldia.

Goierriko Milkshake taldeak, berriz, kontraste handiagoko musika gogorra egiten du erritmo aldaketa askorekin.

Haudunaldian zainketa egokia egitea gomendatzen da

Sei hilabeteko umea daukat eta oso pozik nago, baina umea eduki ondoren urdaila eta sabela oso bigun eta ildoa (estría) askorekin geratu zaizkit (gehienbat sabela). Batzueta pentsatzentzut bost hilabeteko nengoenean orain baino sabel txikiagoa neukala. Haudunaldi ondorengo gimnasiak bukatu ditut, baina ez zait muskulua itxi. Negargura sartzen zait nire gorputza horrela ikusita, eta noski, berriro haudun geratzeko gogorik ere ez daukat. Nire arazoak konpontzeko zerbitzuetan daitekeen jakin nahi duit. Ikarne.

Ikarne, bidali didazun argazkiaren arabera esan dezaket zure ehunak distentsio handia jasan duela. Ez didazu esan, baina seguruenik haudunaldian gizendu egin zenuen eta horrek eragin ditzu azalak eta ehunak eman eragitea. Zilboraren bueltan dituzun ildoa (argazkiaren arabera) sakonak eta nahiko irekiak daudela ematen du, eta hori ikusi ondoren ondorioztatu dut haudunaldian gizendu egin.

Giartzu Zentroaren lan ordutegia:
Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 22:00etara jarraian
Larunbatetan: 10:00etatik 13:00etara (udaberriko ordutegia)



Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

**1/ ETXEBIZITZAK****101. SALDU**

Angiozar. Baserria salgai. 626 35 60 89.

Antzuola. Sagasti auzoa. 90 m². Hiru logela, bi balkoi. Garaige itxia. Erdi jantzia. 607 63 48 88 edo 630 51 78 05.

Arrasate. Biologea ditu eta guztiz jantzia dago. Berehalako bizi-zteria joateko moduan. 144.000 eurotan salgai daukak. 943 77 13 02.

Arrasate. Etxea salgai. Prezioa negoziagarria. 649 55 48 10.

Arrasate. Etxebizitza salgai Zerraka kalean. 110 metro koadro. Hego-mendebaldeira begira. Bi garaje ditu. 660 70 13 80.

Arrasate. Hiru logela, berogailua, komuna eta berritua. 174 mila euro (29 milioi pezeta). 610 70 23 86.

Arrasate. Makatenetan etxe salgai. 943 77 98 90.

Bergara. 75 metro koadro. Hiru logela, egongela terrazarekin, komuna eta sukaldia. Txokoa eta bi apartaleku ere baditu. 600 46 58 02.

Bergara. Erdigunean, 79 m²-ko etxebizitza salgai. 685 75 78 16.

Bergara. Etxebizitza salgai Marton. 93 m². Egongela, hiru logela, sukaldia, komuna eta ganbara. Gela-gutxiek kanpora ematen dute. 619 28 60 32 edo 943 76 52 86.

Bergara. Koldo Eleizaldean: hiru gela, bi komun, kalefakzioa, garajea eta trasteleku. Eguzkitsua. Bista ederrak ditu. 943 76 27 68 edo 655 72 04 12.

Bergara. Marton etxea salgai. 83 metro koadro. Guztiz berritua eta jantzia, altzariekin. Bergailua, igogailua eta trasteleku ditu. 619 28 37 93 edo 661 80 00 46.

Bergara. Ortubar. Eraikuntza berria. 97 m². Hiru logela, bi komun. Dena kanoaldera begira. Erdi jantzia. Trastekua. Terraza eta arropa garbitzeko txokoa. Garaje itxia aukeran. Deitu telefono honetara: 661 46 30 75.

Bergara. Telesforo Aranzadi. 140 m². Berrituta. Telefono: 699 75 45 46.

Elgeta. Biguela, egongela, sukaldia, bainugela eta ganbara. Igogailua ere badu. Prezioa ona. 645 71 76 25.

Otxandio. Etxebizitza salgai alde zaharrean. Duplexa da. Bi komun, bi logela, egongela eta sukaldia. 100 metro koadro ditu. 656 72 43 58.

Soraluze. 35 metro koadro. Logela bat, sukaldia, eta egongela eta komun txikia bana. 15 milioi pezeta. 943 77 21 18.

102. EROSI

Antzuola-Bergara. Baserria erosiko nuke. 676 20 74 35 edo 620 61 07 24.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza salgai Ferrerias kalean. Hiru logela, sukaldia, bainugela eta egongela ditu. 629 50 76 40.

Arrasate. Unibertsitatetik geru. Hiru logela. 652 77 13 77.

Cambrils. Apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik gertu. Igerileku eta lorategia ditu. 610 79 47 29.

Capbreton (Landak). Home-mobile bat errentan ematen da. Bi logela dazuka. Hondartzatik gertu. Guztiz jantzia, terraza eta lorategia. Aste Santurako, Pazio asterako eta udarako. Ekonomika. La Civelle campinga (3 izar). 665 73 40 09 edo 943 77 18 49.

Costa Sancti Petri-Chiclana

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

Bergara:
• Bidekuturita 55 m². Oso ondo.
• San Anton Abad. 75 m². Oso ondo.
• Erdialdea 110 m². Oso ondo.
• Aranerreka 75 m². Oso ondo.
• Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
• Matxategi 80 m². Ondo.
• Martoko 60 m². Beritzeko.
• Ibarraiai 106 m². Berria.
• Iparragirre 165 m². Beritzeko.
• Antekale 74 m². Ondo.
ELGETA:
• 70 m². Beritzeko.

SORALUZE:
• Gipuzkoako etorb. 80 m². Oso ondo.

ANTZUOLA:
• Dúplex berria erdialdean.

104. GARAJEAK

201. SALDU

202. EROSI

203. ERRENTAN EMAN

204. ERRENTAN HARTU

205. ETXEAK OSATU

206. BESTELAKOAK

207. IRAKASKUNTZA

208. LANA

209. MOTORRA

210. DENETARIK

211. RELAX

3. LOKALAK

Bergara:
• SALDU
• EROSI
• ERRENTAN EMAN
• ERRENTAN HARTU
• ETXEAK OSATU
• BESTELAKOAK

105. ETXEAK OSATU

106. BESTELAKOAK

107. IRAKASKUNTZA

108. LANA

109. MOTORRA

110. DENETARIK

111. RELAX

5. IRAKASKUNTZA

Bergara:
• SALDU
• EROSI
• ERRENTAN EMAN
• ERRENTAN HARTU
• ETXEAK OSATU
• BESTELAKOAK

112. IRAKASKUNTZA

113. LANA

114. MOTORRA

115. DENETARIK

116. RELAX

7. ANIMALIAK

Bergara:
• SALDU
• EROSI
• ERRENTAN EMAN
• ERRENTAN HARTU
• ETXEAK OSATU
• BESTELAKOAK

117. ANIMALIAK

118. LANA

119. MOTORRA

120. DENETARIK

121. RELAX

9. HARREMANAK

Bergara:
• AGURRAK
• HARREMANAK
• DEJAK
• BESTELAKOAK

122. HARREMANAK

123. LANA

124. MOTORRA

125. DENETARIK

126. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

DEBAGOIENA

Jatetxea-Taberna

ematen da errentan ezin atenditzetegatik. Bezero propioak ditu.

657 23 30 65

(Cádiz). Apartamentua errentan, La Barrosa hondartzatik oso gerto. Deitu gauz. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Eskoriatza. Erdialdean. Berria. Arratsaledo getatik aurerra deitu. 652 70 08 00.

Vera (Almería). Hondartzeta eta urbanizazio naturistaren dagoen etxebizitza alokatzen da. Guztiz jantzia. Igerilekuarekin. 657 93 24 5.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bergara eta Arrasateko 30 urre inguruko 3 neska langile etxebizitza bilakatuta.

Maite. 665 73 17 66.

Bergara. Bikote batek etxebizitza hartzko luke errentan. 630 93 16 39.

Bergara. Brasilgo anai-arreba batzuek etxebizitza hartuko luke errentan. 659 98 20 17.

Ofici. Bineskak etxebizitza hartzko genuke errentan. 605 70 41 18.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Logela bat alokatzen da.

ARETXABAleta

Sukaldari laguntzailea behar da aste bukaeratan lan egiteko.

652 70 82 46

ANGIOZAR

Ortzi erretegia alokatzen da.

943 78 22 80

665 72 24 46

106. BESTELAKOAK

Arrasate

<b

hildakoak

- Joseba Muxika Zubeldia. Bergaran, otsailaren 26an. 79 urte.
- Jose Maiztegi Ariznabarreta. Oñatin, martxoaren 9an. 81 urte.
- Sergio Crespo Lopez. Arrasaten, martxoaren 9an. 92 urte.
- Federico Martin Juanes. Arrasaten, martxoaren 10ean. 58 urte.
- Jose Antonio Martinez Albaladejo. Arrasaten, martxoaren 10ean. 59 urte.
- Martzelino Zubia Ortueta. Oñatin, martxoaren 12an. 81 urte.
- Kontxita Saizar Alberdi. Bergaran, martxoaren 12an. 88 urte.
- Tomas Lasa Diaz Mendibil. Bergaran, martxoaren 12an. 86 urte.
- Juan Kortabarria Gabilondo. Antzuolan, martxoaren 13an. 65 urte.
- Poloni Arriola Zugasti. Eskoriatzan, martxoaren 13an. 83 urte.
- Eulogia Biteri Mendieta. Eskoriatzan, martxoaren 13an. 89 urte.
- Leandra Otxoa Abarregi. Arrasaten, martxoaren 14an. 82 urte.
- Josefina Agirre Uria. Eskoriatzan, martxoaren 14an. 91 urte.
- Roman Elkoro-Iribar Lazpiur. Bergaran, martxoaren 15ean. 77 urte.

URTEURRENA

Florencio Yarza Maiztegi

Lehen urteurreneneko meza domekan, martxoaren 19an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrrik asko Haren emaztea: Ana Maria Barrena; seme-alabak: Izaskun eta Jose, Ane Miren eta Elias, Elisabeth eta Alfonso; bilobak; Asier, Joseba, Unai, Peio, Ane eta Jon.

URTEURRENA

Joseba Otalora Galdos

Lehen urteurreneneko meza zapatuan, martxoaren 18an, 19:00etan, Oñatiko parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maritxu Otaegi Albisua

Lehen urteurreneneko meza domekan, martxoaren 19an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Juan Jose Garitano Elkoroiribe

Lehen urteurreneneko meza domekan, martxoaren 19an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrrik asko sendikoen izenean.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIaren ordezkaritzetako batera.

GOIENKARIA

Aster 18.500 etxetan.

Eskelen prezioa: 85 €.



URTEURRENA

Benita Larrañaga Sarraoa

Lehen urteurreneneko meza domekan, martxoaren 19an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Sergio Crespo Lopez

Julia Barrutiaren alarguna

Arrasaten hil zen 2006ko martxoaren 9an, 92 urte zituela



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2006ko martxoaren 17an.

URTEURRENA

Daniel Arizabaleta Zabaleta

Lehen urteurreneneko meza domekan, martxoaren 19an, 12:30ean, Arrasateko San Frantzisko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Maria Teresa Bergara Iturbe

“Maitere”

Gasteizen hil zen 2006ko martxoaren 6an, 75 urte zituela



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2006ko martxoaren 17an.

ESKER ONA

Poloni Arriola Zugasti

Mendiola hil zen 2006ko martxoaren 15an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrrik asko sendikoen izenean.

Bere aldeko meza esango dute domekan, martxoak 19, 12:30ean, Mendiola elizan.



Eskoriatza, 2006ko martxoaren 17an.

ESKER ONA

Martzelino Zubia Ortueta

Oñatin hil zen 2006ko martxoaren 12an, 81 urte zituela



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2006ko martxoaren 17an.

bila bila 7



sudoku

4	5	7		9	6	3
	7	1		8	4	
6						2
	4	2		6	7	
	1	3		4	8	
5						1
	3	9		5	2	
1	6	4		7	5	8

hitz gezidunak

Momentuan	▼	Erlabajoari atxikiak	▼	Krustazeo txikia	▼
Neholaz	►	E.H.ko men-dia	▼	Angstroma	
Gaixo	►			Potasioa	►
Gidatzen duena				Beldurti, ika-rati	
Hizkiak	▼				
Txarto	►	▼			
Gazitutako haragi	►			Gar	►
	▼			Diru	
Daukat (alde-rantziz)	►		Lokarri sendoa	►	▼
Zergatia, zioa	►		Mendebald-ean, zen		
IRUDIKO HERRIA	►				
Araknido mota	►				▼
			Norekin atzizkia	►	

LUMA

jeroglifikoak

Nondik zatoz?

d
IK

hizki salda

Gipuzkoatik pasatzen diren bost ibaien izenak

A	F	A	O	S	A	D	I	B
E	B	A	S	T	U	R	O	R
F	H	E	N	U	D	L	D	A
K	U	E	D	R	X	A	A	U
O	N	I	M	O	L	O	E	E
L	D	E	R	L	E	U	M	A
I	M	I	G	A	D	O	U	L
Z	A	D	A	B	U	I	R	A
U	R	E	S	A	M	T	U	R

bono fotoa



Bidaurreta errotona izenarekin eta irudiko gurutzearen izenaz ere ezagutzen da Oñatiko gune hau. Gurutzearen itzalean akatzen omen zituzten pikota bidez heriotzea zigortutako presoak, eta horrek eman omen zion izena guneari. Zein da izen hori? Argazkia eta galdera > Iñigo Blain

Super BM

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du GOIENKARIK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOAK

Ekarri txartela MARTITZEN EGURDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Gullon Creme Tropical galletak

800gr-ko kaxa + %20 doan

1,42 € 236 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEAK

AITZOL UGALDErendako (Bergara) eta LIDE ERRARTErrendako (Arrasate) izan dira 30 euroko erosketa-txartelak. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Jesuitak eta Dominikoak.



umore giroan

Kike Amonarriz

Untxi-jana

Joxe eta Fermín aspaldiko partez, Donostiara afaltzen joatea erabaki dute.

Sartu eta aspaldi ez dutela untxirik jan eta biek horixe eskatzea erabaki dute.

Jaten hasi orduko, ordea, Ferminek susmo txarra hartu dio:

- Fermín, hau ez da untxia,

hau beste zerbait da.

Zerbitzariari deitu eta:




- Aizu! hau ez da untxia.

- Bai, untxi gutxi daukagu hozkailuan eta orduan sukaldabeuruak untxi haragia zalditzen nahastea erabaki du, erdi eta erdi.

- Kontxo! Eta nola ulertzen duzue zuek erdi eta erdi hori?

- Untxi bat, zaldi bat...

soluzioak





GOIENKARIA e-posta berriak

Aldatu egin ditugu posta elektronikoak. Hauek dira berriak:

- Goienkaria** goienkaria@goiena.com
Asteleheneko Goienkaria astelehenena@goiena.com
Kultura kultura@goiena.com
Kirola kirola@goiena.com
Arrasate arrasate@goiena.com
Bergara bergara@goiena.com
Oñati oinati@goiena.com
Aretxabaleta aretxabaleta@goiena.com
Eskoriatza eskoriatza@goiena.com
Antzuola antzuola@goiena.com
Aramaio aramaio@goiena.com
Elgeta elgeta@goiena.com

Hartu kontuan!

Jaizki Bakaikoa > Ile-apaintzailea eta estilista

"Inbidia eta lehiakortasun handiegia dago nazioarteko modaren alorrean"

Gaztetxotan konturatu zen moda gustuko zuela, eta irakasle batek hala aholkatuta Tolo-

sar jo zuen ile-apainketa ikas- tera. Horren ostean, Londresen eta Parisen gehiago ikasi zuen.

Bilbo, Gasteiz eta Donostiako areto garrantzitsuetan egin du lan, baita Cibeles eta beste

moda ibiltoki batzuetan ere. Bere lanak psikologiarekin harreman estua daukala dio.

IKER BARANDIARAN > ANTZUOLA

Jaizki Bakaikoa ile-apaintzaile antzuolarrak urte asko egin ditu kanpoan lanean, eta ibarrera bueltatu berri da atseden hartzera. Bergaran dihardu lanean.

Zelakoa zinen txikitak? Argi zenuen modan lan egin gura zenuela?

Oso formala eta lasaia nintzen. Orduan ez neukan modarekiko zaletasunik. Hala ere, eskoian mororrotzea oso gustuko nuen. 16 urterekin hasi nintzen modan pentsatzen.

Noiz hasi zinen moda ikasten?

17 urterekin ile-apaintzaile ikasten hasi nintzen Tolosan. Moda gustuko nuen eta Arrasateko irakasle batek esku onak nituela-eta, ile-apaintzaile ikasteko aholkatu zidan. Bi urte egin nituen eta Bergaran lanean hasi nintzen. Orduan konturatu nintzen oso gustuko nuela lanbidea.

Horren ostean ikasketa gehiago egin dituzu?

Bai, Tolosan makillajea eta manikura. Eta, horrez gain, Londresen eta Parisen hainbat ikastaro egin ditut.

Ikasi duzun gauza guztien artean zer da zuretzat garrantzitsuena?

Beti izan naiz irekia eta soziala, baina jende desberdinarekin ibiltzen ikasi dut. Hori oso gauza garrantzitsua da.

Egia da ile-apaintzaileek psikologo lana egin behar izaten duzuela?

Bai. Oso garrantzitsua da berba egitea. Horrez gain, bezeroa ile-apaindegira sartzen den momentutik goitik behera begiratzen diogu: zelan jantzia datoren, egiten dituen keinuak, izateko modua, zelan berba egiten duen, zer gura duen... Batzuek look-a aldatu gura dute, eta beste batzuek berriketan egitea.

Bezeroen sekretu asko gordetzen dituzue?

Gaua asko kontatzen dizkigute bezeroek, eta batzuk sekretuak dira. Bestalde, guk kontakatilu ospea daukagu, eta ez dakit kontuak jakitea gustatzentz zaigun edo gure lanaren barruan dagoen, baina galdera asko egiten ditugu.

Emakume asko ile-apaindegira joaten dira denbora pasatzeera eta jendearekin egotera. Eurendako eder jartzeko unea



JOSETXO ARANTZABAL

PERTSONALA

Herria: Antzuola. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Ile-apainketa. **Zaletasunak:** Sukaldean ibiltzea, *Yohitzakurra*-rekin paseatzea eta esoterismo liburuak irakurtzea. **Zelan ikusten duzu zure burua 30 urte barru?** Ireakia izaten jarraitu gurako nuke. **Zerk ematen dizu buru-**

ko mina? Egin gura dudana ezin egin ahal izateak. **Zure bizitzako lelo da?** Norbait autentikoagoa da beti amets egin izan duena eskuratzentz badu. **Asmakizun bat?** Maitasuna. **Betetzeko daukazun amets bat?** Umeak edukitzea eta bizitza lasaia izatea.

izaten da, oso une garrantzitsua, baina beste batzuekin berba egi-tera ere joaten dira.

Zer ikasi duzu kanpora ikas- tera jo duzunean?

Tolosan oinarrizkoa ikasi nuen. Bestela, interesak eragin dit gauza desberdinak egin eta probatzera, irudimena landu... Nik gehien ikasi dut lan egiten eta gauzak probatzen. Londresen tendentzia eta teknika berriak ikasi nituen. Madrilen eta Bartzelonan oso klasikoak dira. Londresen igarri egiten dute euskaldunak garela dugun estiloarengatik.

Leku askotan egin duzu lan...

Bai. Hasieran bi urte egin nituen Bergarako Disdira ile-apaindegian. Horren ostean, Oskar Ginearekin Gasteizen ikas- ten eta lanean ibili nintzen. Ginea-ak garrantzi handia ematen dio bezeroaren arretari. Psikologia ikasi nuen berarekin. Ginea Bilbon aretoa zabaldu eta han bi urte eta erdi egin nituen. Sasoi hartan desfiletarako lanean ibili nintzen. Horren ostean, hiru lagunek areto bat zabaldu genuen Bilbon. Eta hiru urte egin nituen han, baina Donostiako Rizos kateko bi ile-apaindegia zuzentzeko eskaintza egin zidaten. Batez ere administrazio lana egiten nuen, eta Bergarakit deitu zidatenean ibarrera bueltatu nintzen.

Baina bestelako lanak ere egin dituzu, ezta?

Bai. Estilista lanak egin nituen ETBko *Lo que faltaba* saiorako. Ginea platoan agertzen zen, eta nik atzoko lana egiten nuen. Horrez gain, Cibeles ibiltokian (pasarela) egin nuen lan. Elisa Man diseinatzaileak ile-apaintzaile eraman ninduen. Izugarria izan zen nazioarteko ibiltokian lan egitea eta *top-model*-ak orrazteko aukera iza-tea. Hala ere, ez zitzaidan giro hori batere gustatu: oso lan gogo-rra da, *top model*-ak diva hutsak dira, eta inbidia, gerra eta lehiakortasun handiegia dago.

Zein hiri duzu gustuko? Antzuola txiki gelditu zaizu?

Bilbo da gehien gustatzen zai- dan hiria. Bere tamainan, dene- tatzik dauka. Eguneroko bizimo- dua Antzuolan egitea oso arraroa izango litzateke. Han familia dau- kat. Horrez gain, txikitako lagun gehienak kanpoan bizi dira. Hala ere, nire txikitako herria da eta oroitzapen asko ditut.

INTERNET > BEHIN-BEHINEKO WEBGUNE DA 'WWW.MONDRAON.EDU'

Webgune berria jarri du martxan Mondragon Unibertsitateak

Muko fakultateen informazio guztia jasoko du etorkizunean. Bien bitartean, MUREn fakultateen webguneek abian segituko dute

GOIENKARIA > ESKORIATZA
Mondragon Unibertsitateak webgune berria du aste honetatik: www.mondragon.edu. Behin-behineko webgunea da, hala ere, Vocento Mediatrader eta CodeSyntax enpresek egina. Webgunea software librean oinarritua dago, eta hemendik aurrera osatzen joango da.

Vocento Mediatrader eta CodeSyntax enpresek MUREn enkargua jaso zuten webgune berria egiteko. VMT enkargatuko zen webgunearen diseinu eta edukiak hornitzearaz. CSREN ardura, berriz, izango zen plataforma antolatza. Hala ere, sasoia iritsi denez ikasleek erabakitzeko zer unibertsitatetara joango diren, Mondragon Unibertsitateak eskatu zien behin-behineko



WEBGUNEA Osatzu joango da gunea MUREn informazio guztia jaso arte. GOIENKARIA

webgunea egitea, balizko ikasle batzuk behar duen gutxieneko informazioarekin. Horregatik sortu da, oso denbora laburrean, behin-behineko webgunea.

DISEINUA ETA TEKNOLOGIA

Webgune berriak diseinu garbia du, *minimalista* neurri batean,

erabiltzailea sarreran bertan erooso senti dadin. Botoietan klik eginda, edo webgunearen mapan, iritsiko da berak nahi dituen edukiera. Oraingo informazio bi hizkuntzatan jasotzen du, euskal eta gaztelaniaz, baina aurrerago lau hizkuntzatan eskainiko du.

> INTERNET

Web 2.0ri buruzko jardunaldia Bilbon apirilaren 6an

Banda zabalk eta blogak, gizarte-sareak eta wikiak... Aplikazio berri horien iraultza kontzeptu bakarrean laburtu da: Web 2.0. Eta horri buruz ariko dira Deustuko Unibertsitatean apirilaren 6an. Parte-hartzaleen artean egongo dira Martin Varsavsky (Fon), Bernardo Hernandez (Google) eta Alberto Sanchez (Microsoft). <http://www.blogak.org>.

> BLOGAK

Dagoeneko 35 blog komertzial daude 'goiena.net'-en

Goiena.net-en zuen denda edo komertzioaren bloga egiteko aukera duzu. Momentuan 35 blog komertzial daude. Sarera atera diren azkenak hauak dira: Mayte loradenda, Maulanda jatetxea, Aretxargi instalazio elektrikoak, Ganeshha tattoo eta piercings, Urdeki (Oñatiako txorizo) eta Gertu (jakiak). Argibideak: [www.goiena.net/merkatua](http://tinyurl.com/z7blv)

> WEBCAM-A

Idiazabalgo artzainak, modernizaziorako urratsak egiten

Artzainak modernizatzen ari dira. Izan ere, Idiazabalgo artzainek webcam-ak erabiltzen dituzte euren artaldeak zaintzeko. Erditze garaien ardiak zaintza da helburua. Webcam-en laguntzarekin, bi orduoro konektatzeko aukera daukate, ardiak ukuiluan nola dauden ikusteko. Wi-Fi sistemaren bitartez jasotzen dute seinalea. <http://tinyurl.com/z7blv>

teknologia berriak

> ARGAZKILARITZA

Poltsikoan eramateko moduko kamera atertu du Sony etxeak: 134 gramo bakarrik pisatzen du

Sonyk kaleratutako argazki kamera berria arina da benetan: 134 gramo besterik ez du pisatzen. Ia-ia kreditu txartel baten pareko tamaina dauka, 19 milimetro lodi da-eta.

Kalitatea ere ez da nolanahi-koa: bereizmena sei megapixe-lekoa da eta Carl Zeiss optika du, kamera gorputzean sartuta. Sony DSC-T9 argazki kamerak hiru handitzetako zoom optikoa egin dezake. 2,5 hazbeteko pantailan ikus daitezke argazkiak, musikaz lagunduta. www.sony.es



Oso fina da Sonyren DSC-T9 argazki kamera, poltsikoan eramateko moduko.

> BIDEOA

DVD formatuan grabatzeko aukera ematen duen kamera, Canon etxearen eskutik

Canon etxearen DC100 kamerak DVD formatuan grabatzeko aukera eskaintzen du. Zortzi zentimetroko diskoko erabilten ditu, eta DVD aparailu gehienetan erabilgarriak dira. Era berean, formatu tradizionalaz gain, panoramikoan grabatu daitezke irudiak, plasma eta LCD telebista aparailuetarako egokituta. Kamerako LCD pantaila ere panoramikoa da, 2,7 hazbeteko. 580 euro inguru balio du Canonen kamera berriak. www.canon.es



Formatu panoramikoan graba daitezke irudiak Canon kamerarekin.

> ORDENAGAILUAK

Nokia 770 Tablet: wi-fi konexioa duen ordenagailu txikia, aldean eramateko moduko

Nokia 770 Tablet delakoa poltsikoko ordenagailua da ia. Wi-fi konexioari esker etxeko edozein puntutatik Interneten ibiltzeo aukera eskaintzen du. Menu ezberdinetan edo Interneten murgiltzeko 800x600 bereizmena duen pantaila sakatu baino ez da egin behar.

Ordenagailu txiki horrek 128 megako memoria dauka eta poltsikoko askotan erabiltzen diren RS-MMC txartelen bitartez memoria handitzeko aukera dago. Multimedia erreproduzitzalea ere bada. www.nokia.es



MP-3, MPEG-1 eta MPEG-4rekin bateragarria da Nokia 770 Tablet ordenagailu txikia.



Sukalderako altzariendako osagarriak



etxetresna elektrikoak

- Kooperativentzako banatzaile espezializatua
- Baldintza ezin hobeak

Tel.: 943 76 19 95
BERGARA

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Podología



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia
- Depilazioa laser bidez

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

berriak

> PUBLIZITATEA
Ezkontzen gaineko aurreneko azoka Debagoienean

Apirlaren 2an egingo dute Eskoriatzako Mendiola hotelean ezkontzen gaineko aurreneko azoka Debagoienean.

Horren harira, Goiena Telebistak ezkontzen gaineko zenbait mikrosaio egin ditu: Baster-Alde jatetxearena eta Mujika jantzi dendarena. Era berean, datorren astetik aurreera ibarreko telebista hasiko da azokaren iragarkia eskaintzen. Eta *Goienkaria*-k berak gehigarria kaleratuko du.

> PROGRAMAZIOA
Ttipi-Ttapa Telebista, GOITB eta Goierri Telebista elkarlanean

Berako Ttipi-Ttapa Telebistak, Goierri Telebistak eta GOITB elkarlanean zenbait saio ekoiztuko dituzte. Asmoa da hiru tokiko telebista horien artean elkarlana bultzatzeara eta telebista saioak ekoiztea.

Udako programazioari begira hiru telebistok gura dute Jaiak 2006 saioa abian jartzea. Programa horretan, gure ibarreko zein beste eskualdeetako jaiak ikusteko aukera izango dugu.

> ARRASATE IRRATIA
Mikel Galdos golf jokalari profesionala, zapatuko saioan

Martizenean izan zen Mikel Galdos Aretxabaletako golf jokalaria Arrasate Irratiko autobusean. Aspalditik du golferako zaletasuna eta urtarriila ezkerro ogibide ere badu. Golfaren gainean ditugun zalantzak argitu zizkigun Galdosek.

Astean zehar gurekin bat egiteko modurik ez duzuentzako, *Asteburuko gainbegiratua-n* izango duzue beste aukera bat.

> ZINEMA
Eguenetan zinemaren geltokia Arrasate Irratian

Uhinetan barrena bidaiatuz, hamaika geltoki ditu Arrasate Irratiko autobusak. Horietako bat da zinemaren geltokia, eguenetan. Han, Amaia Labaienek Debagoienean emango dituzten filmen eta hiriburuetako estreinaldiengen berri ematen digu.

Zinema gustuko baduzu, zatoz gurekin eta konta egigu zu ikusi duzun azken filma; izan ere, iritzi guztia gustura hartuko ditugu; parte hartu!

'GABIRIAKO RALLYSPRINT LASTERKETA' > ZAPATUA, 15:45


Euskadiko Rallysprint Txapelketa ikusgarria gurean

**EAeko Rallysprint
Txapelketako
Gabiriako lasterketa
ikusteko aukera
oraingo asteburuan**

GOIENKARIA > BERGARA

Motor hotsak izango dira nagusi oraingo asteburuan Goiena Telebistan. Izan ere, zapatu arratsaldean Gabiriako rallysprint lasterketa eskainiko du ibarreko telebistak. Euskal Autonomia Erkidegoan rallysprint txapelketako hamar lasterketa jokatuko dira, horietako bat Aramaion. Oraingo astean, berriz, Gabirian jokatu den lasterketaren irudirik ikusgarrienak erakutsiko dizkizue GOITBk.

Goierrri Telebistak grabatutako lasterketa zapatu arratsaldean eta domeka eguerdian ikusteko aukera izango duzue.



GABIRIAKO LASTERKETA Rallysprint txapelketa jokoan.

GOIENKARIA

'ASTEKOAK', INFORMAZIO SAIO BERRIA ASTEBURURAKO > ZAPATUA ETA DOMEKA

Gure ibarreko albiste nabarmenenen begiratua egingo du saio berriak

GOIENKARIA > BERGARA

Oraingo asteburuan informazio saio berria estreinatuko du Goiena Telebistak. *Asteakoak* izenburupean, aste barruan gure ibarrean izandako albiste nabarmenenen begiratua egingo du.

Informazio saio laburra eta ariana izango da, begi-kolpe batean Debagoienean izandako albiste nagusien berri emango duena. Mikel Alberdi eta Josu Txintxurreta errealizatzaleek eta albiste-gietako taldeak eginiko saioa izango da, eta astelehenetik egubakoi-

tza *Gaurkoak* informazio saioan batzen dituzten albiste guztiaiak eskainiko dituzte. Asteko protagonista nagusien adierazpen esan-guratsuak ere izango ditu. Astebururo eskainiko du GOITBk *Asteakoak* saioa; zapatuetan 14:45ean eta 20:30ean eta domeketan 16:00etan eta 23:30ean. Programa berriarekin informazioaren aldeko apustua egin gura du Goiena Telebistak, eta, bide batez, zapatu eta domekako programazioa indartu egin gura du. Saio berriak ez du aurkezlerik izango.

telebegi

Unai Moraza > www.eibar.org/blogak/telezaborra

Sole eta koadrila, zuzenean

A spalditik Espainiako telesailekin muturtuta nabil. Ez ditut jarraitzen. Txarrak, gidoi ahulekin, aktore kaxkarrekin... Eta nola ez, luzeegiak. Ordubete baino askoz gehiago irauten du atal bakoitzak, AEBetan nagusi den ereduari uko eginez: 22 minuto (publizitatearekin 30) edo 42 minuto (publizitatearekin ordubete inguru). Ez dut ulertzen *Aquí no hay quien viva, Los Serrano* eta antzekoen arrakasta.

Zorionez, Internetek dituen baliabideekin posible da AEBetako telesailak jarraitzea. Han atala ematen dute, eta hurrengo orduetan Internetek deskargatzeko aukera dago. Publizitaterik gabe, nahi duzun orduan ikusteko aukera, eta debalde!

Igande honetan, baina, *7 viadas-i* aukera bat eman nion. Hasieran Sole eta koadrilaren gorabeheren jarraitzailea nintzen eta 200. atalak merezi zuen. Eta ez nintzen damutu. Aktore zaharrak berreskuratu zituzten, eta kapitulua zuzenean emititu zuten! Zuzenekoaren eraginez, akats txiki batzuk egon ziren, baina Espainiako telesail onena dela erakutsi zuten. Bikaina.

arrasate irratia

FM 107,7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.

Mikel Galdos, Aretxabaletako golf jokalaria profesionala; Metereologien geltokian Pello Zabalarekin hegazi migratzaleak berbagi; Lorategiaren geltokian hainbat opari proposamen; eta beste hainbat gondibidat.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!

Albistegia Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)

Meteorologien geltokia (Pello Zabala)

Elkarriketak

Lorategiaren geltokia

Zozketak

Zorion agurrak

(parte hartzeko: 943 71 71 31)

12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

12:20 Izarrer ordua: abesti ezagunak

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 Igo autobusera! (errepp.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

17:15 Zorion agurren tarte (errepp.)

GOITBko programazioa

Egubakoitzza, 17

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musikasaioa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Gezbideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparrorratza. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gez-bideak. 16:45 Albisteak. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albisteak. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Behazulo. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Albisteak. 23:15 16 mm. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.

Zapatua, 18

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean. 12:00 Eltze beroa. 12:15 16 mm. 12:45 Jaun ta jabe. 13:45 Didjeridu. 14:15 Klip@. Musika taldeen bideoeklipak. 14:45 Astekoak. 15:00 Jazz Mintegia. 15:30 MKT. 15:45 Gabiriako Rallysprint. 16:15 16 mm. 16:45 Erreportajea. 17:15 Didjeridu. 17:45 Marrazki bizidunak. 19:15 Eltze beroa. 19:30 16 mm. 20:00 Behazulo. 20:30 Astekoak. 20:45 Ilunpean. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berbaire. Mahai inguru. 22:15 Elkartasun bideak. 22:45 16 mm. 23:15 Erreportajea. 23:45 Emisio amaiera.

Domeka, 19

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparrorratza. Euskadi-Txina. 12:00 Didjeridu. 12:30 Eltze beroa. 12:45 Gabiriako Rallysprint lasterketa. 13:15 Elkartasun bideak. 13:45 Klip@. 14:00 Marrazki bizidunak. 15:00 Miarrizteko balletaren ikuszkuna. 15:30 Ilunpean. 16:00 Astekoak. 16:15 Behazulo. 16:45 16 mm. 17:15 Eltze beroa. 17:30 Marrazki bizidunak. 18:45 Klip@. Bi saio. 19:15 Iparrorratza. 19:45 Behazulo. 20:15 Zera dio eta Motzean. 20:30 Ilunpean. 21:00 Gabiriako Rallysprint lasterketa. 21:30 16 mm. 22:00 Berbaire. 22:30 Didjeridu. 23:00 Miarrizteko balletaren ikuszkuna. 23:30 Astekoak. 23:45 Emisio amaiera.

Asteleheneta, 20

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze beroa. 14:30 M1. 14:35 Gez-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari bueltaka: Etiopia. 15:30 M1. Eguraldia eta burtsa tartea. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gez-bideak. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Didjeridu. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Jaun ta jabe. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 16 mm. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Albisteak. 23:15 Gabiriako Rallysprint lasterketa. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 21

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Gabiriako Rallysprint txapelketa. 14:15 Zera dio. 14:30 M1. 14:35 Gez-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartasun bideak. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gez-bideak. 16:45 Albisteak. 17:00 Jazz. 17:30 Danbaka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea: Sarako eliza eta azoka biologikoa Beran. 18:15 Munduari bueltaka. 18:45 Albisteak. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Ilunpean. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire. 22:45 Albisteak. 23:15 Behazulo. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 22

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musikasaioa. 14:30 M1. 14:35 Gez-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio eta Motzean. Julio Ibarra. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Didjeridu. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki. 20:45 Albisteak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak. 22:15 16 mm. 22:45 Albisteak. 23:15 Erreportajea: Sarako eliza. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 23

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Motzean. 14:30 M1. 14:35 Gez-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Miarrizteko balletaren ikuszkuna. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Jazz mintegia. Elgetako gaauak. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gez-bideak. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 16 mm. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartasun bideak. 18:15 Iparrorratza. Argentina. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Miarrizteko balletaren ikuszkuna. 21:45 Berriak. 22:15 Didjeridu. Aitor Blain. 22:45 Albisteak. 23:00 Berbaire. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Tailer eta zerbitzu teknikoa

- Mekanika / Karrozeria
 - Autoak eskuz eta kanpotik zein barrutik garbitzeko zerbitzua
 - Esku libreko kita (Bluetooth)
- 175 €-tik aurrera (BEZA eta kitaren jartze lanak barne)

Zure moduko batek bakarrik izan ditzake horrelako eskaintzak.

Hilabete honetan:



*BEZik gabeko salneurri gomendatua (garraioa, eskaintza promozionala eta Prever Plana barne). Eskaintza ez metagarriak. Hil amaiera arte baliagaria stockean dauden automobilentzat. Penintsula eta Balear Uharteetako bezero partikularrentzat. Operazioan parte hartzen duten saltokietan baliagaria. Argazkietan aurkeztutako modeloak: Berlingo Multivolumen, Jumpy Combi Club eta Jumper Combi Club.

www.citroen.es
Citroën Informazioa: 902 44 55 66

ETOR ZAITEZ:

TALLERES CHAPIME S.C.L. Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala.
San Andres Auzoa 5 – Tel.: 943 79 45 22 ARRASATE



smssoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767
zenbakira

Deiaren prezioa:
1,2 € + BEZA



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFOKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA



Hirnoak
Eibar I ELBAR
Athletic Club I BILBAO
Osasuna I OSASUNA
Real I REAL
Real Union I UNION

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) I AITORMENA
Aizkolari (Kontatu) I AIZKO
Amore amore (Karidaleko benta) I AMORE
Askatun egarri (Lin Ton Taun) I ASKATA
Begia okertuta (Lin Ton Taun) I BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) I BIMINU
Dub manifest (Femini Muguruza) I DUB
Egunero (Hertzainak) I EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) I SUKAR
Elos dicen miera, nosotros amen (La Polla) I ELOS
Enamorado de la muerte (KIP) I ENAMO
Entzuidaua (Akerking's) I ENTZU
Etorkizuna (Etsasai) I ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken) I EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) I GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertean) I BELAIR
Haizea (Ken) I HAZEZA
Hegal egiten (Itzoi) I HEGAL
Ikusi (Deiform Tremens) I IKUSI
Ilargia (Ken) I KEN
Inpernuen ate joka (Gatub) I INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertean) I JOKIN
Kaixo (Urutz) I KAIXO

Lau Teilar (Itzoi) I ITZOIZLAU
Latzana (Latzen) I LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) I LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) I LORE
Marea Gora (Itzoi) I MAREA
Musturrek sartunde (Gatub) I MUSTURREK
Nicaragua (Kontatu) I NICIA
No time for love (Hertzainak) I NOTIME
Save (La Polla) I SALVE
Sari Sarri (Kortatu) I SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) I SORGIN
Txatxo (Zarama) I TXATXO
Txus (La Polla) I TXUS

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa te biar) I BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) I BOKESPOK
Hik Ian eta nik jai (rapia) I HIK
Itas ontxi batzen (Kaxiano) I ITSAS
Kupela (Epede eta Larrañaga) I KUPELA
Mila galdera (Maitz / Maider) I MILAI
Nirekin (Gozategi) I GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) I HIRA
Txanpon batzen truke (Alatz / Maider) I TXANPON

Folk
Arratsalde horretan (Sorantx) I SOROTAN
Bai euskarari (Panboa) I BAI
Bakezelak (Anje Duhaldetx) I BAKE
Bizkaia Maite (Bentzo Lertundu) I BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhaldetx) I EPERRAK



SOINUAK (2 sms)

1,2,3,4...Real!! I REAL
Alboka I ALBOKA
Athletic Itep!! I IEUP
Buztan bertsoa I BERTSO
Hartu...Aitaren ta semea.. IAITAREN
Hartu...Ansari I ANSAR
Hartu...Argentinara I ARGEN
Hartu...Mexikarra I MEXIKO
Hartu...Miami I MIAMOL
Independientz! I INDEPEN
Irrintzia I IRINTZI
Jotake irabazi arte! I JOTAKE
Milazul (pilota) I MILAZU
Suprinua I SUPRINU
Tobera I TOBERA
Txalaparta I TXALA
Txanbelia I TXANBERA
Txooootx I TXOTX

JOKOAK (sms 1)

MAFIA
ARTILLERO
SUDOKU
JAIETAKOAK
MARIA
SAN JERONIMO
SAN JUDAS
SAN MARTIN
SAN MARITZIAL

BARON ROJO
PINTXO PINTXO
PARCHIS
EPERRAK

LOGOAK (sms 1)

LAU1
NUKLEAR
REALIZENA
ARANBURU
BILBAO, IZENA,
ZENBAKIA
ANOETA1
LAU3
ARRANO 1
SORGIN
SORGIN
ANOETA1
ARCO
ARCO

KRUTXAGA
SMSOINU

1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragaria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzen informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezko da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzea, jar zaitez zure horitzailarekin harremanetan. Alfa ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemaren ala ematea doan dira.

* Euskaltele: deitu 900 84 02 00 telefonora, /* Vodafone: deitu 123-ra, /* Movistar: deitu 609-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurriara egindako abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiliztaileek eskura dezaketen nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

...ASKOZ GEHIAGO GURE WEBGUNEAN www.smsoinu.com

Martxoak 17-24

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguzteneko egurdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

Literatura Astea HUHEZIn



ESKORIATZA

> Zazpi bekatu nagusien gainean berba egingo dute idazle ezagunek

HUHEZIren Literatura Astean bekatu nagusien gaineko hitzaldiak egingo dituzte honakoek: Kirmen Uribek (hilak 20, 19:00), Hasier Etxeberriak (hilak 21, 19:00), Unai Elorriagak (hilak 22, 11:30) eta Harkaiz Canok (hilak 23, 19:00).

Film Laburren Zirkuitua



ARRASATE

> Asier Altunaren bi film Euskal Film Laburren Zirkuituan

Honako filmak emango dituzte hilaren 23an Amaia antzokian, 20:30ean: *Txotx eta 40 ezet* (Asier Altuna eta Telmo Esnal), *Sarabe* (Beatriz de la Vega), *Haragia* (Bego Vicario) eta *Hauspo soinua* (Inaz Fernandez).

Arotzen Egunean, musika saioa



OÑATI

> San Jose eguna, arotzen eguna, dela eta, Ganbara Abesbatzaren emanaldia

Oñatiko Ganbara Abesbatzak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 19:30ean. Sarrera doan izango da. Fagor Etxetresnetako altzarien negozioak antolatu du emanaldi hori.

Jaiak

OÑATI

> Bi lagunek ehun urte bete dituztela ospatuko dute

San Martin egoitzako bi lagunek ehun urte bete dituztela eta, jaialdia egingo dute bihar, zapatua.

12:00etan, meza, aurrekua eta alkatearen bisita. Gero, bazkaria eta dantzaldia.

Ikuskizunak

BERGARA

> Zirku Mundial ikastaroa eta ikuskizuna gaztetxean

Zirku Mundiala izenburuarekin, zirku ikastaroa, arratsaldean, eta ikuskizuna, gauean, antolatu dituzte gaztetxean.

Bihar, zapatua, gaztetxean. Ikastaroa, 16:00etan; ikuskizuna, gauean.

Antzerkia

ARRASATE

> Kike Biguri aktoreak bakarrizketa egingo du

Kike Biguri aktoreak bakarrizketa antzeztuko du Olarte kaleko Gure-Leku tabernan.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

ARRASATE

> 'Argitxo eta Dir-dir' umeenda-ko antzezlana egingo dute

Argitxo eta Dir-dir delako antzezlana egingo du Kukubiltxo taldeak, umeei zuzenduta. Mundu ilun baten, Argitxo-k ilun horri zelan aurre egin zion kontatzen du antzezlanak.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

BERGARA

> Barre barra-barra lehiaketako bakarrizketak ikusteko aukera

Barre barra-barra lehiaketako irabazleak, Jon Urrazak, lehiaketara aurkeztu zituen hiru bakarrizketak antzeztuko ditu. Publikoak erabakiko du zein lani eman saria.

Gaur, egubakoitza, Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

Lehiaketak

ARRASATE

> Diseinu industrial lehiaketa antolatu dute Fagorrek eta MUK

I. Jump diseinu industrial arloko lehiaketa antolatu dute Fagor Elektratresnek eta Mondragon Unibertsitateak. Munduko diseinu industrial eta arkitektura ikasle guztiak parte har dezakete. Internetez egingo da. Hiru lan berritzale eta originalenak 3.000 eurokin sarituko ditu. Mugaeguna ekainaren 30a da.

Argibide gehiago eta lanak ikusteko aukera, www.fagorjump.com webgunean.

Musika

BERGARA

> 80ko hamarkadako jaialdi elektronikoa egingo dute

DJ KRC (Samu) disko jartzaileak 80ko hamarkadako elektro-jaialdia girotuko du. Gaur, egubakoitza, Ziripot tabernan, 22:30ean.

ARETXABAleta

> Los Cretinos taldeak kontzertua egingo du

Los Cretinos Arrasateko rock taldeak musika emanaldia egingo du.

Bihar, zapatua, Haizea tabernan, 22:30ean.

BERGARA

> Udal Musika Bandak kontzertua egingo du

Bergarako Udal Musika Bandak kontzertua egingo du etzi, domeka. Pilotaleku izango da kontzertua, 12:30ean.

OÑATI

> Show Business eta Surfin Kaos taldeen kontzertua

Oñatiko Show Business eta Donostiarra Surfin Kaos taldeek musika emanaldia egingo dute. Show Business-i dagokionez, Dani baxu-jotzaileak taldearen egiten duen azkenetako kontzertua izango da.

Gaur, egubakoitza, gazteleku, 23:00etan.

OÑATI

> Euskadi Gazteko maketa lehiaketako irabazleen saioa

Euskadi Gazteko maketa lehiaketako podiuma egin zuten taldeek kontzertua egingo dute. Honakoak dira: Khous (irabazleak), Nuke (entzuleen saridunak) eta Milkshake (txapeldunordeak) taldeek.

Bihar, zapatua, gazteleku, 22:30ean.

Erakusketak

ARRASATE

> Debagoieneko bi artista gazteren artelanak

Iraia Artzamendi eta Ane Miren Agirre debagoiendarren erakusketa dago Harresi aretoan. Artzamendik hamar bat serigrafia eta lumatzox eta

tintaz egindako 40 bat lan batu ditu, eta Agirrek hiruzpalau eskultura. Iñaki Bastarrikak poemak idatzi ditu erakusketa horretarako.

Astegeunetan: 18:00-20:00; zapatua eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00. Martxoaren 26ra arte.

ELGETA

> Epifanio Perezen margolanen erakusketa

Epifanio Perezen margolanen erakusketa ipiniko dute egunean, hilak 23, Espaloia antzokian.

Erakusketa ikusteko aukera egongo da apirilaren 6ra arte.

BERGARA

> Menchu Gal margolariaren erakusketa inauguratuko dute

Menchu Gal margolari irundarraren lanen erakusketa egongo da Aroztegi aretoan apiril bukaeraraino. Parisen

eta Madril bizi izan da Gal. Paisaiak, natura hilak eta erretratuak egiten ditu.

Inaugurazioa gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 19:00etan.

BERGARA

> Pilar Ansoategi arrasatearraen margolanak

Pilar Ansoategi arrasatearrak loreen gaineko 18 margo-lan ditu erakusketan.

Masterreka kaleko Nahikari tabernan, hil osoan. Informazioa: www.nahikari.com.


DEBAGOIENA

> Emakume errefuxiatuaren gaineko argazki erakusketa

Argazki erakusketa dago Aretxabaletako udaltek zaharrean hilaren 19ra arte. Hilaren 20tik 24ra arte, berriz, Eskoriatzako kultura etxearen egongo da.

Antolatzaileak: Leintz ibarreko GKEak eta ACNUR.

PROPOSAMENA



OÑATI > Mendi Astearen barnean, Josune Bereziarturen bideoa

Mendi Astea antolatu du Oñatiko Aloña Mendi elkarteko sail horrek. Horren barnean, munduko eskalatzaileriak onenetako baten, Josune Bereziarturen, bideoa emango dute gaur, egubakoitza: *Erori eta berriz hasi* du izenburua, eta bideo-klip moduan eginda dago.

Bestetik, martxo bukaerara arte, Bereziartuk eta Rikardo Otegi egindako *Hatz puntak* argazki erakusketa egongo da.

Kultura etxearen. Bideo emanaldia 19:30ean hasiko da.

nire aukera



Aitziber Gorosabel
Gatz Museoko arduraduna
Leintz Gatzaga

"Turismo aldetik Eskoriatza oso interesgarria da"

Asteburuko egun baten koadrilarekin bazkaria egingo nuke gustura. Gure koadrilako ohitura bat da irteerak egitea eta goazen lekuetan bazkaltzea, eta ohitura horri oso pozik eutsiko nioke. Izan ere, umeak dauzkagunean, gero eta gutxiago egiten dute hori koadrilek.

Bestetik, azkenaldian, mendian buelta bat ematea faltan igartzen dut, Euskal Herriko edozein lekutan. Behin, Gesaltaza Añanara, Valderejora... joan ginen, eta priman ibili ginen.

**Umeekin, zein plan egingo
zenuke astebururako?**
Umeak ere bazkarira etor daitezla! Niri hori asko gustatzen zait, koadrilakoketa seme-alabak bazkarira eramatea.

**Euskal Herrian, zein herri
bositatzea merezi du?**
Zerain. Leintz Gatzagaren oso antzekoa da. Gainera, hango turismo bulegoekoink oso harreman ona daukat.

**Ibarreko zein herri
interesgarriena turismo
aldetik?**
Leintz Gatzaga. Eta Eskoriatza ere bai: auzune interesgarriak ditu, eta hango turismo arduradunek lan handia egiten dihardute.

**Eguraldi txarra dagoenean
zer egiten duzu gustura?**
Etxeen egon, siesta egin eta etxeko lanak egin.

Etxeko abererik baduzu?
Bai, baserriari bizi naiz eta!
Abere gustukoena, etxeko arratoi-txakurra: etxeko jabea da, izan ere!

Zinema

ARAMAIO KULTURA ETXEA

La vida es un milagro
Egubakoitza: 22:00.
George y el dragón
Domeka: 17:00.

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Orgullo y prejuicio
Egubakoitza: 22:00.
Domeka: 19:30.
Esta abuela es un peligro 2
Domeka: 17:00.
Film laburak
Eguena: 20:30.

ELGETA ESPAÑOLA ANTZOKIA

Anneluise eta Anton
Domeka: 17:30.
La memoria de los peces
Eguaztena: 21:30.

ESKORIATZA IBARRAUNDI

Baloia
Domeka: 17:30.

ONATI KULTURA ETXEA

Dicen por ahí
Egubakoitza: 22:30.
Zapata: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelena: 19:30.

Txirri, Mirri eta Txiribiton
Zapata: 17:00.
Domeka: 17:00.

Nadie sabe
Eguena: 20:00.

EIBAR UNZAGA

Brokeback mountain
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapata eta domeka: 17:00,
19:30, 22:15.
Astelena, martitzena eta
eguaztena: 19:30, 22:15.

FRONTI UNZAGA

El castillo ambulante
Zapata eta domeka: 17:00.

Transamérica
17:30, 20:00, 22:30.

RIALTO

Casanova
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapata eta domeka: 19:30,
22:15.
Astelena eta martitzena:
19:30, 22:15.

KIRIKU ETXEA

Kiriku eta basapiztiak
Zapata: 17:00.
Domeka: 17:00.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ GURIDI

Tristán e Isolda
20:00, 22:30.

Destino final 3
17:30, 20:00, 22:30.

La pantera rosa
Egubakoitza: 20:00.
Zapata eta domeka: 17:00,
18:45.

Date movie
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

La verdad oculta
17:00, 19:45, 22:30.

Sky high
17:30.

Cargo
17:30, 20:00.

Crash
17:30, 20:00, 22:30.

La fiesta del chivo
22:30.

**Mrs. Henderson
presenta**
Egubakoitza: 22:30.
Zapata eta domeka: 20:30,
22:30.

FLORIDA-GURIDI

Truman Capote
Egubakoitza: 17:00, 19:45,
22:30.

**Zapata eta domeka: 19:45,
22:30.**

**Buenas noches
y buena suerte**
17:30, 20:00, 22:30.

Volver
17:00, 19:45, 22:30.

El castillo ambulante
Zapata eta domeka: 17:00.

Transamérica
17:30, 20:00, 22:30.

IRATXOEN ERREGEA

Zapata eta domeka: 17:00.

Lie with me
Egubakoitza: 17:00.

San Fermín 78
19:45, 22:30.

Aqua
17:30, 20:00, 22:30.

Syriana
17:00, 19:45, 22:30.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

**Mrs. Henderson
presenta**
16:00, 18:10, 20:20, 22:30,
00:40.

Thai dragon
16:00, 18:10, 20:20, 22:20,
00:30.

Gisaku
16:00, 18:00, 20:00.

**Esta abuela
es un peligro 2**
16:00, 18:00.

Terror en la niebla
22:20, 00:30.

**Dick y Jane,
ladrones de risa**
16:20, 18:20, 20:20.

Underworld evolution
18:00.

La pantera rosa
16:20, 18:20, 20:20, 22:20,
00:30.

Apostando al límite
22:00.

Melissa P.
16:00, 18:00, 20:00.

Memorias de una geisha
Egubakoitza eta zapata:
16:30, 19:30, 23:00.

Domeka: 16:00, 19:00, 22:00.

Conejo en la luna
22:00, 00:30.

En la cuerda floja
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

**Gauerdiko saioak, egubakoitz
eta zapataun.**

Eguaztena, ikuslearen eguna.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Date movie
12:15, 16:30, 18:30, 20:30,
22:30, 00:30.

En la cuerda floja
22:35, 00:45.

Bambi 2
12:15, 15:30, 17:00.

Buenas noches y...
20:00, 22:05, 00:30.

Volver
12:00, 17:00, 19:40, 22:10,
00:45.

Syriana
12:15, 17:00, 19:45, 22:15,
01:00.

Munich
Egubakoitza eta zapata:
22:30.

Sky high
12:15, 16:10, 18:10.

Brokeback mountain
22:00, 17:00.

Munich
22:00.

Memorias de una geisha
18:45, 21:30, 00:25.

Crash
12:15, 16:00, 18:15, 20:30,
22:45, 01:00.

Volver
12:15, 17:00, 19:30, 21:45,
00:15.

Tristán e Isolda
12:15, 16:45, 19:15, 21:30, 00:00.

Zathura
12:15, 15:45, 18:00, 20:15.

El nuevo mundo
12:15, 16:30, 19:00.

El jardineró fiel
21:50, 00:35.

Sky high
12:15, 15:50, 17:55, 20:00.

Destino final 3
12:00, 16:15, 18:15, 20:15,
22:15, 00:30.

El castillo ambulante
12:15, 15:30, 17:45.

**Gauerdiko saioak, egubakoitz
eta zapataun.**

Eguerdiko saioak, domekan.

**Astelena, ikuslearen eguna
(jaiegunk izan ezik).**

ÁBACO BOULEVARD

La pantera rosa
12:10, 16:20, 18:20, 20:20,
22:20, 00:30.

Bambi 2
12:15, 17:05.

Buenas noches y...
20:00, 22:05, 00:30.

Volver
12:00, 17:00, 19:40, 22:10,
00:45.

Syriana
12:15, 17:00, 19:45, 22:15,
01:00.

Munich
Egubakoitza eta zapata:
22:30.

Sky high
12:15, 16:10, 18:10.

Brokeback mountain
12:00, 17:00, 19:00.

Date movie
12:10, 16:20, 18:25, 20:20,
22:25, 00:30.

Crash
20:10, 22:25, 00:45.

**Dick y Jane,
ladrones de risa**
12:10, 16:25, 18:20.

Destino final 3
12:00, 16:15, 18:15, 20:15,
22:15, 00:30.

Tristán e Isolda
12:10, 17:00, 19:30, 22:00,
00:30.

El nuevo mundo
19:25, 22:10, 01:00.

La verdad oculta
12:10, 16:05, 18:10, 20:15,
22:25, 00:45.

Zathura
Egubakoitza eta zapata:
16:00, 18:10, 20:20.

**Domeka: 12:00, 16:00, 18:05,
20:10.**

'Jawata', DJ bat Patagonian

BALDINTZA GOGORRAK Zazpi kilo galdu zituen Monikak Patagonian, 'El conquistador' saioa grabatzen

EDU MENDIBIL > BERGARA
Bergarako Ipintza institutuan ari da lanean Monika Weber, ETB-2ko *El conquistador del fin del mundo*-ko lehiakideetako bat. Patagonian bizi izandakoaz lilitratuta itzuli da hondarribiarra: "Mendiarekin eta naturarekin gozatzeko aukera paregabea izan zen, eta, nahiz eta harreman pertsonalak onak ez izan, gustura ibili nintzen. Baldintzak oso gogorrik ziren: hotz handia, txukuntasun falta, janari gutxi, ibaiko urarekin eta suarekin gertatu beharra... Ia dena bilatu behar genuen, baina abentura-zalea naiz eta asko disfrutatu nuen".

Urrian eta azaroan grabatu zuten saioa, eta zappi kilo galdu zituen Monikak. "Hilerokorik ez nuen izan. Zortzi bat egun dilistik jaten eman genituen eta gauzex saldatxo bat besterik ez. Eta pur-

gatorioan oraindik okerragoa izan zen... Hugo Arrondo jasan behar izatea ere ez zen makala izan", diosku.

Esan bezala, lehiakideen artean tentsioa izan zen nagusi. Evarekin eta Anderrekin ondo konpondu bazeen, Oihanarekin dezepzioa eraman zuela esaten digu. Julen Madina taldeko kapitainak egindako bereizketa ere ez zitzaien batere gustatu. Madinak uste baino gogorrako zela erautsi zuen *Jawata*-k, teorian bera baino indartsuagoak ziren hiru lagun kanporatuta. Jose Luis Kortari buruz zera dio: "Bihotz oneko pertsona da; sentikorra, gainera. Baino hori agerian ikusi arte, jasatea ez da erraza. Bestalde, oso gizon erakargarria da. Izter zoragarriak dauzka, gorputz ederra eta begi politak ere bai...". Saioa grabatu zenetik ez

ABENTURA Harreman pertsonalak onak ez izan arren, gustura aritu da lehiakide hondarribiarra Patagonian

dira elkartu lehiakideak. Hala ere, martxoaren 31rako daukate hitzordua, Urnietan.

DISKO JARTZALEA ETA SURFZALEA Irabazlea nor izan zen ezin digu aurreratu. Dena dela, apirilaren 10ean ikusleen faboritoa hautatzeko aukera izango da. Eta ikasleek ez diote hutsik egingo. "Haiengandik gauza politak betterik ez dut entzun. Gustura daude euren irakaslea telebista ikusita".

Surfzale amorratua da eta DJ ere ibiltzen da Monika, *Jawata* ezizenarekin. Donostiako Etxekalten egiten ditu saioak. Gargardoaren eta musikaren hutsunea nabaritu zuen bai Patagonian: "Saioa bukatu eta lehenbiziko gauza horixe egin nuen, dutxatu aurretik: kaskoak jarri eta musika entzun".



IRAKASLEA Gaztelaniazko eskolak ematen ditu Monika Weberrek, Bergaran. E.M.

ahobero

"Arnaldo Otegi ez da PSOEren solaskide eta ez da izango indarkeria gaitzetsi ezean edo ETArri armak uzteko eskatzen ez dion bitarteak"

Jose Blanco >
PSOEko antolakuntza idazkaria. Eta isilean sozialistekin sola-sean dabiltzan besteengainean zer dauka esateko Blancok? Indarkeria gaitzetsi al dute horiek? Zuhurrago jardun beharko lukete politikoek.

iturri onetik

Eskualde osorako zaharren egoitza egindo dute Aretxabaletan

Aretxabaletan zaharren egoitza bat egiteko lehen urratsa eman dute. Untzillara bidean dagoen lursail bati hiri-lur izendapena emateko prozesua martxan da, eta bertan bailararako egoitza egiteko asmoa dago, tranbiak izango lukeen geltokiaren ondoan. Egoitza pribatua litzateke, nahiz eta Diputazioaren plaza batzuk kontzertatuta egongo diren. MCC ei dago proiektuaren atzean.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goienna.net/blogak/piperraутса

Dozena bat lagun

Ditxosozko prozesua ba omen eta, bestelakorik dirudien arren, sendo samar legoke. Nahiko sendo, behintzat, zapuztu nahi luketenen trabak eta atzaparkadak jasateko.

Baina prozesu ditxosozkoa, balego eta balitz, dozena bat lagunek daramate aurrera, alde bietakoak kontatuta. Eta horiek, hain zuzen, ez dabilta hedabideetan kontakatilu. Dabiltzanak —gabiltzanok— ez dakigu zehatzik ezer, eta han-hemenka jasotako zurrumurrekin egiten ditugu jakitun plantak. Ordea, importanteegia deritzot prozesuaren gauzatzeari, arinkeriaz ibiltzeko. Horregatik, hedabideetan gai honetaz aritzeko, jokabide zorrotza hartu dut hurrengo denboretako: motz jardun, ez espekulatu eta ez endredatu. Beste dozena horrek lasai egin ahal izan dezan bere lana.

ai, ene!



Estolda dotoreak dituzte Japonia aldean

Argazkian ikusten denez, estolden diseinuari garrantzi handia ematen diote Japonian. Lur azpitik doanarentzako, tapa politak.

<http://elfURL.com/192u>



UNITED COLORS OF BENETTON.

Maalako Errabala 13
ARRASATE
943 79 92 76